
Hernani
2009

Hernani 2009

Udal Artxibo Zerbitzua
Servicio de Archivo municipal

Hernaniko Udala
Ayuntamiento de Hernani

16. urtekaria 2009
XVI Anuario 2009

Diseinu orokorra: andrekale35
Azala: Alberto Elosegi
Imprimategia: Centro Gráfico Ganboa

Lege gordailua: SS-0403-1993

Artikuluetan azaltzen diren iritzien erantzule idazlea bera da.
Las opiniones expresadas en los artículos publicados son responsabilidad exclusiva de sus autores.

Hernani

2009



Alkatearen, agurra

Urtea azkar pasatzen da eta eguneroko zurrunbiloan gauza asko oharkabean pasatzen zaizkigu, baita egunero begien aurrean izanda ere. Ez dugu eguneroko martxan hainbat kontutan patxadaz hausnartzeko denborarik hartzen eta presaka bizitze horretan bidean gauza asko geratzen zaizkigu.

Esan dezagun horri aurre egiteko bitarteko asko daudela eta horien artean bat esku artean duzun urtekaria har genezakeela. Egunerokoan lerro gutxi hartzen dituzten, baina aldi berean gure bizimoduan eragin zuzena duten kontuak aztertzeko ahalegin pausatua da aurtengo alea hortaz, aurrekoen ildotik jarraituz.

Adibide bat horren adierazgarri: sarritan egin dugu gutako edozeinek udaletxetik hilerrira garamatzan bidea eta ziurrenera gutxitan erreparatu diogu oin azpian dugun zubibide horren historiari.

Aurtengo urtekariak honelako gauza txiki eta hein berean haundiei begira jarri nahi zaitu, espero dut gustuko aukeraketa egingo genuela aurten ere. Asmo horrekin aritu dira lanean hainbat lagun, eta lerro hauetatik eskainitako lana eta denbora eskertu nahi nieke, irakurgai interesgarriak eskaintzen dizkigutelako eta, bide batez, Hernaniren oraina eta lehena hobeto ezagutuz etorkizunera begirako lanean laguntza paregabea ematen digutelako. Guztiei eskerrak, eta zuei irakurleak zareteneoi, tarte atsegina igaro ezazuela orrialde hauetan jasotako artikuluak irakurtzen.

Saludo, de la Alcaldesa

Rápidamente pasa el año, y en la vorágine del día a día muchas de las cosas que nos rodean, aun teniéndolas ante nuestros ojos, pasan desapercibidas. En este día a día, tampoco nos paramos un momento, a observar o reflexionar, y es por ello por lo que muchas cosas se nos quedan en el camino.

Existen diferentes maneras de romper con esta dinámica, y una de ellas puede ser la lectura de este anuario que tienes en tus manos. El número de este año, al igual que los anteriores, nos ofrece una manera relajada de sumergirnos en temas que, aunque en la vida diaria ocupan escasas líneas, nos afectan directamente.

Una muestra de ello puede ser, por ejemplo: cualquiera de nosotros, en más de una ocasión, habremos recorrido el trayecto que desde el ayuntamiento va hacia el cementerio, sin reparar, muy probablemente, en la historia del viaducto sobre el que caminamos.

El presente anuario no busca sino que reparemos en estas pequeñas pero al mismo tiempo grandes cosas. Espero que la elección de los temas que en éste se presentan haya sido acertada, ese ha sido el objetivo de las personas que han trabajado en la elaboración de esta publicación, y desde estas líneas quisiera agradecer a todas ellas el trabajo y las horas dedicadas a esta labor, por los interesantes artículos que nos ofrecen y por la extraordinaria ayuda que, dándonos a conocer mejor el pasado y el presente de Hernani, nos brindan de cara al trabajo futuro. Gracias a todos y a todas, y a vosotros lectores, que paséis un rato agradable inmersos en la lectura de estas páginas.

Marian Beitialarrangoitia.
Alkatea / Alcaldesa

aurkibidea
índice

2009

05 **Hernaniko Udala mugikortasun seguruarekin. Bide heziketa Hernanin.** *Ramon Azpiolea eta Jon Retegi*

12 ***"Baserriko ikasketadun"* artista, Anastasia Leunda.** *Leire Goñi*

17 **Hernaniko printzak. Plaza Berria.** *Luix Errazkin*

18 **Ernani.**

20 **Nere Borda, Hernaniko lorategi botanikoa.** *Iñaki Sanz-Azkue eta Anaïs Mitxelena*

28 **Norteko trenbidea Hernaniko baratzetik.** *Urko Apaolaza*

34 **El viaducto de Txingurri Txulo. Rescate de una valiosa y desconocida pieza del patrimonio cultural de Hernani.** *Imanol Jiménez*

42 **Josetxo Zapiain.** *Iban Oiartzabal*

46 **Olegario Garin, bertsolari hernaniarra.** *Antton Garin*

50 ***"Las Mercedes"*, fábrica de cemento en Fagollaga.** *Luis Lerchundi*

58 **Joxe Mari Aizega (Mondragon Unibertsitateko errektoreordea):*"Urte batzuk barru ohartuko gara Bologna prozesua beharrezkoa zela unibertsitatean".*** *Jon Odriozola*

62 **Peña Otaño, 50. urteurrena.** *Joxemiel Azurmendi eta Joan Mari Jalon*

72 **Urteurrenak. Euskal Jaiak Hernanin, 1909-2009.**

78 **Karitateko Alabak, 125 urte Hernaniko herriaren zerbitzura.** *Laura Pacheco*

84 **Ignacio Iruin (Alcalde de Hernani, 1976-1979): *"Recuerdo con emoción y alegría la izada de la Ikurriña en el ayuntamiento tras la dictadura".*** *Jose Mari Martínez*

89 **Juanjo Uria (Alcalde de Hernani, 1979-1983): *"No tengo la más mínima duda de que Euskal Herria tiene futuro".*** *Jose Mari Martínez*

96 **Oihana Gaincerain, heredera y futuro de Sidras Zelaia.** *Oihana Gaincerain y Elena Sierra*

100 **Alfonso Maria Zabala, apaiz komediantea.** *Gorka Bereziartua*

102 **Biharamunean.** *Uxue Apaolaza*

104 **Hernaniko Musika Eskolak, hogeita bost urte.** *Iñaki Eguren (Hernani Musika Eskola Publikoa).*

112 **Visión artística de Hernani. Torre Onddi.**

113 **Agur Angel, eskerrik asko!**

114 **Crónica 2008ko kronika.** *Mikel Zapiain*



Hernaniko Udala
mugikortasun seguruarekin

Bide heziketa Hernanin


Ramon Azpiolea eta Jon Retegi

Hezkuntza funtsezko tresna da eraldaketarako; izan ere, hezkuntzak hausnarketa eragiten du, gauzak horrela egitearen zergatiez jabetzen gara. Gauzak aldatu ahal izateko aurretiazko eta ezinbesteko urratsa da.

Zentzu horretan, mugikortasun segururako hezkuntzak lehentasunezko xedetzat izan behar du pertsonek duten arriskuaren pertzepzioa areagotzea, hori baita prebentzio-katearen lehenengo urratsa eta, ziurrenik, garrantzitsuena. Zalantzarik gabe, istripuen ondorioak murrizteko modurik egokiena "**istripurik ez izatea** " da, eta hori gu guztion eskuetan dago.

Testuinguru horretan, **prebentzioaren** aldeko apustua egin da; prebentzioa, pertsonek arriskuaren pertzepzioa areagotu eta beren jarrerak jarrera seguruagoengatik aldatzeko beharrezkoa den oinarrizko estrategia eta balore gisa.

Baina nola iritsi prebentziora? Zeintzuk dira prebentzioaren oinarrian egon behar duten hezkuntza-baloreak? Prebentzioaren oinarria **erantzukizuna eta autonomia** dira.



Oinarrizko hiru balore horiek funtsezkoak dira, eta eragin zuzena dute mugikortasun seguruaren eremuan garrantzia duten beste bi balore hauen gainean: **elkarbizitza eta zuhurtzia.**

Istripuen prebentziorako ezinbestekoa da portaera jakin batzuk aldatzea. Gauza ez da zer egin behar dugun jakitea bakarrik. Ez da nahikoa arauak ezagutzea, ezta arau horiek betetzeko nahikoa gaitasun edukitzea ere. Ez da nahikoa subjektuak izan dezakeen borondatea ere. Gure portaera osotasunean integratu behar da testuinguruan prebentzioak eragina izan dezan.

Portaera osotasunean tratatzea da, hain zuzen ere, **konpetentzien** araberako ikuspegi batek eskaintzen duena.

Definizio desberdinak bat datoz esaterakoan **konpetentzia** bat testuinguru jakin batean erakusten diren jokaeren multzoa dela, ezagutzak (informazioak eta kontzeptuak), trebetasunak eta jarrerak bateratzearen ondorio. Ez da jokaera isolatu bat, beren artean lotura duten jokaera askoren batura baizik. Jokaera horiek eredu bera jarraitzen dute, eta portaera eraginkor bat izatea ahalbidetzen diote pertsonari. **Konpetentziek** jarduera bat arrakastaz gauzatzea ahalbidetzen dute.

Zazpi konpetentzia identifikatu dira mugikortasun seguruaren arloan.

Arreta prozesu psikologiko jarraitu bat da, pertsonen jokaera modu eraginkorrean gertatzea ahalbidetzen duena. Horrela arretari zeharkako izaera aitortzen zaio nolabait ere; izan ere gainerako konpetentziak burutzen eragiten du.

Bestalde, pertsonaren barneko alderdiei buruzko bi konpetentzia daude: **neure burua eta nire emozioak kudeatzea** eta **bideari lotutako egoeretan estresa kudeatzea**.

Pertsonaren kanpoko alderdiekin zerikusia duten bestelako konpetentziak ere badaude: **zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia** eta **ingurunearen azterketa izenekoak dira.**

Azkenik, bide-jokaeraren alderdi zailenetakoak taldeko presioarekiko erresistentzia eta egokitzapena eta malgutasuna izenekoak dira.



Bide heziketa Hernanin

Lehen hezkuntzako programazioa

Nori zuzendua. Udalerriko ikastetxe guztietako lehen hezkuntzako hiru zikloetako ikasleak.

Iraupena:
- Lehen hezkuntzako 1. mailan: ordubete ikasgelan eta ordubete kalean.
- Lehen hezkuntzako 2. mailan: bi ordu ikasgelan eta ordubete kalean.
- Lehen hezkuntzako 3. eta 4. mailetan: bi ordu ikasgelan eta ibilbide bat garraio publikoetan.
- Lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailetan: bi ordu ikasgelan eta zirkulazioko haur parkean bi ordu.

Helburuak:
- Haurra konturatzea zer nolako arazoa dagoen istripuen inguruan.
- Haurra jabetzea kalean barrena ibiltzen denean duen jokaeraz; zein diren bere barruko prozesu eta pentsamenduak.
- Haurra jabetzea jokabide desberdinek eragiten dituzten arriskuez eta bere zaurgarritasun propioaz.



Ekintzen azalpena / Metodologia. Ekintzak lehen hezkuntzako hiru zikloetarako egiten dira. Bi saio ikasgelan bertan egiten ditugu (haur hezkuntzako lehenengo mailan saio bakarra). Saio horietan metodologia aktibo eta parte-hartzaileak erabiltzen ditugu. Eta beste saio praktiko bat egiten dugu, kalean barrena oinez lehen zikloan, garraio publikoko bidaiari gisa bigarren zikloan eta bizikleta gidari gisa hirugarren zikloan (azken hori parke mugikor batean).

Proiektua haurren adinari egokitu zaio, haurren beharrak abiapuntutzat hartuz, beren autonomia garatzeko helburuarekin, jokabide, jarrera eta portaerei buruzko hausnarketa eginez eta oinezko, bidaiari nahiz gidari gisa dituzten rolez jabetuz.

Ebaluazioa. Etengabeko ebaluazioa egiten da saioetan zehar eta bukaeran azken ebaluazioa egiten da talde bakoitzarekin

Bigarren hezkuntzako programazioa

Nori zuzendua. Bigarren hezkuntzako hiru lehenengo mailetako ikasleak.

Iraupena. Ordubete ikasgelan eta bi ordu kalean bizikletan.

Helburuak:
- Norberaren zaurgarritasunaz eta arriskuez gehiago jabearaztea.
- Autogestio emozionalak bideratzen duen norberaren jabetze maila indartzea.
- Talde presioari aurre egiteko baliabideak indartzea.
- Arrisku nagusiak detektatzea eta horrekin lotutako jokabide ziurrak identifikatzea.



Ekintzen azalpena / Metodologia. Saio bat ikasgelan egiten dugu, metodologia aktibo eta parte-hartzaileak erabiliz. Eta beste saio praktiko bat egiten dugu zirkuitu batean eta herrian barrena ibilbide bat eginez.

Proiektua parte-hartzaileen adinari egokitu zaio, haien beharrak abiapuntutzat hartuz, beren autonomia garatzeko helburuarekin, jokabide, jarrera eta portaerei buruzko hausnarketa eginez eta oinezko, bidaiari nahiz gidari gisa dituzten rolez jabetuz.

Ebaluazioa. Etengabeko ebaluazioa egiten da saio guztietan eta bukaeran azken ebaluazioa egiten da talde bakoitzarekin.

BIDE HEZIKETA

HERNANIKO UDALA

Marrazki erakusketa

Nori zuzendua. Herriko eskola guztietako lehen hezkuntzako 2. eta 3. zikloko ikasleak.

Iraupena. Ikasleek egindako marrazkiak astebetez jartzen dira Biteri Kultur Etxean ikusgai.

Helburuak. Ikasleek bide-heziketako saioetan egiten dituzten lanak herritarrei erakustea eta, aldi berean, horren kontzientzia sortzea.

ISTRIPUA





Udako ikastaroaren programazioa



Nori zuzendua. Lacunza hizkuntza akademiak antolatzen duen udako ikastaroetan (Summer Camp) parte hartzen duten gazteak.

Iraupena. Bi saio ikasgelan, bakoitza 90 minutukoa, eta saio bat pistan, 120 minutukoa. Aldez aurretik ikastaroen dinamizatzailearekin landu beharreko gaiak lantzen dira, gerta baitaiteke parte-hartzaileren batek ulertzeko arazoak izatea hizkuntza dela eta.

Helburuak:

- Norberaren zaurgarritasunaz eta arriskuez gehiago jabearaztea.
- Autogestio emozionalak bideratzen duen norberaren jabetze maila indartzea.
- Talde presioari aurre egiteko baliabideak indartzea.
- Arrisku nagusiak detektatzea eta horrekin lotutako jokabide ziurrak identifikatzea.

Ekintzen azalpena / Metodologia. Saioak adin taldeka banatzen dira eta, adin tartea nahiko zabala denez, bi taldetan banatu eta adinaren araberako ekintzak egiten dira. Saioaren lehengo zatia ikasgelan lantzen da, eta gero garraio publikoa erabiliz, parke mugikorrera joaten gara. Metodologia aktiboa erabiltzen da, parte-hartzaileek zirkulazioaren munduan betetzen duten rola eginez .

Ebaluazioa. Saioa bukatzerakoan azken ebaluazioa egiten da.

Adinduen programazioa



Nori zuzendua. Jubilatuen etxean ibiltzen diren jubilatuak edo aurrejubilatuak.

Iraupena. Bi orduko saio bat. Proiektua nola doan ikusita, saio gehiago ere egin daitezke.

Helburuak:

- Pertsona hauek zirkulazioarekin loturik dauzkaten arazoei buruzko hausnarketa egitea.
- Zirkulazioarekin loturik dituzten muga eta arazoez gehiago jabearaztea.
- Zirkulazioarekin loturiko gaietan autonomia eta erantzukizuna sustatzea.

Ekintzen azalpena / Metodologia. Hezitzaileen eta parte-hartzaileen arteko aurkezpenean talde eztabaida bat sortzen da, pertsona hauen arrisku eta zaurgarritasunari buruz eta zirkulazioaren egoerari buruz. Erabiltzen diren beste estrategia metodologiko batzuk dira lana talde txikitan egitea (horretarako prestatutako galdesorta baten laguntzaz) eta hezitzaileek azalpen bat egitea.

Ebaluazioa. Talde lanaren analisia. Saioa bukatzerakoan azken ebaluazioa egiten da parte-hartzaileekin.

Udalekuetako programazioa

Nori zuzendua. Udalak antolatzen dituen uztaileko udalekuetan parte hartzen duten haurrak. Bi lanketa mota egiten dira: bat begiraleentzat eta bestea 9-12 urte bitarteko haurrentzat.

Iraupena. Begiraleekin egiten den lanketa: ordubete. Haurrekin egiten den lanketa: ordubete

Helburuak. Parte-hartzaile gehienek lehendik ere haur hezkuntzan lantzeko programan parte hartu dutenez, ikasturtean zehar landutako helburuak sendotzea da xedea.

Ekintzen azalpena / Metodologia. Begiraleekin egiten den lanketa gelan egiten da. Ikasturtean zehar egindako ekintzen berri ematen zaie, beraiek ere ildo beretik jo dezaten. Haurrekin egiten diren ekintzak begiraleekin batera egiten dira, batetik bestera joateko bizikleta erabiltzen dutenean (bizikleta gidari moduan).



Ebaluazioa. Udalekuetako begiraleek, bide-heziketako irakasleek eta udaleko teknikariek azken ebaluazioa egiten dute bukaeran.

Mugikortasunaren astea (bizikleta festa)

Nori zuzendua. Herritar guztiei, oro har.

Iraupena. Bizikletaren eguna da gure lanaren ardatza. Egun horretan hiru orduko tailer bat egiten da herrian.

Helburuak. Segurtasunez jokatze aldera arauak ezagutzeak eta betetzeak duen garrantzia baloratzea eta horretaz jabetzea.

Ekintzen azalpena / Metodologia. Egiten den ekintza da bi gune desberdin dituen zirkuitu bat egitea. Gune horietako batean arauen ezagutza eta jokabide seguruak lantzen dira eta, bestean, berriz, gidatzeko trebetsunak eta jokabide seguruak.

Ebaluazioa. Saioa bukatzerakoan azken ebaluazioa egiten da. ■





Anastasia, etxeko balkoian, berak egindako koilarea soinean duela.

"Baserriko ikasketadun" artista,

Anastasia Leunda

Leire Goñi

Guraizeak, haria, txotxak, hainbat hazi, artilea, eta batez ere, imajinazioa eta eskuak ditu lanabes. Horiekin sortutako piezak hainbat artisau azoketako harribitxi bilakatu dira. Baina, lanak baino gehiago, sortzaileak berak du meriturik handien: Anastasia Leundak, alegia.

Duela 82 urte jaio zen Anastasia Leunda, Albizturren. Baina orain dela ia 40 urte inguru etorri zen Hernanira bizitzera senarra eta haurrekin, hauek eskolatu ahal izateko. Bizitzan zehar hainbat tokitan lan egin badu ere, ofizio baino gehiago, afizio bilakatu dena egiten jarraitzen du gaur egun ere. "*Entretenitzeko eta ondo pasatzen*" duelako egiten duela dio, baina konturatu gabe, "*meritu eta garrantzia handiko lana*" egin duela onartzen du. Artilearekin mota guztietako jantziak egiteko gai da, eta hainbat hazirekin mila formako bitxiak egiteko adina imajinazio ere badu: "*Baserriko ikasketak besterik ez ditut. Baina behin zerbait egitea lortzean, beste zerbait probatzeko irrika izaten dut, eta arian-arian nire diseinuak sortzen ditut. Aita ere artista ederra zen, eta zerbait izango dut nik ere!*".

Denbora-pasa gisa hasi zen lan horiek guztiak egiten, eta pixkanaka, pieza dezente bildutakoan, horiek erakutsi edota saltzeko erabakia hartu zuen. Hala egin zen ezagun Anastasia. Izan ere, hainbat herritan ospatutako artisau azoketan ikusi ahal izan du askok, berak egindako artilezko arropa eta ezkurrez egindako bitxiak soinean.

Erretiroa hartzea pasatu izan zaio burutik, "*edadean aurrera*" doala eta. Hala ere, toki askotatik deitzen jarraitzen diote, egindako lanak erakuts ditzan edota bere tekniken berri eman dezan. Horrelako eskariari muzin egiterik ez dagoela eta, aurrera jarraitzea erabaki du, ahal den bitartean: "*Egiten dudana meritu handiko lana da! Ez du beste inork horrelakorik egiteko abileziarik! Jendeak hori estimatzen badaki, eta interesa erakusten jarraitzen badute, nik erantzuten jarraituko dut. Lan polita da, eta ez da galtzen utzi behar!*"

Egiten dudana meritu handiko lana da! Ez du beste inork horrelakorik egiteko abileziarik!





Artilearekin egindako kulero eta jertsea.



Anastasia, bere senarrarekin, orain dela urte batzuk, Hernaniko Artisau Azokan.

ARTILETIK HARIRA, 10 CM.

Senarrak erretiroa hartutakoan hasi omen zen Anastasia artilearekin lanean. Senarrak Hernaniko Portu auzoan baratza txiki bat zuen, eta han pasatzen omen zuen eguna, lanean entretenituta. Anastasiak berriz, denbora libre dezente zuela eta, inguruko agure bati laguntzen eta konpainia egiten pasatzen omen zuen denbora. *"Kintana esaten zioten. Zahar xamar zegoen eta jende askok burla egiten zion. Baratzetik gutxi ateratzen zuen, eta lortutako hori ardiekin xahutzen zuen. Horregatik makina bat errieta izaten zituen andrearekin".*

Horrelaxe oroitzen du Anastasiak artilearekin jantziak egitera animatu zuen gizona. Bi txabola omen zituen Kintanak, bata, bereak zituen 45 ardientzako, eta bestea, artilea gordetzeko. Tarteka han egiten omen zuen lo, bi urtetan zehar moztu eta pilatutako artilearekin batean.

Orain dela 10 urteko kontua dela kalkulatzen du Anastasiak. *"Hotz handia egiten zuen, izotza. Kintanari bisitan joan nintzaion, eta fabore bat egiteko eskatu zidan. Hotza zuela eta, hartzeko nahi beste artile eta egiteko galtzerdi pare bat. Ni galtzerdiak josteko gai banintzen, baina ez artiletik haria ateratzeko! Hala ere, ezetz ez esateagatik, artile pixka bat hartuta itzuli nintzen etxera".*

Orduan, senarrak eman zion sorpresa. Artiletik haria ateratzen ez zekiela eta, bere kezka agertu zion senarrari. Honek berriz, berak bazekiela, gerra denboran makina bat aldiz aritu zela horretan. Hala, bazkalostean baratzetik tomateak lotzeko makila bat hartu, zulo bat egin, bertan artilea lotu eta bueltaka-bueltaka haria ateratzen hasi zen. Oraindik ederki gogoratzen da Anastasia horretaz: *"10 cm-ko tartea besterik ez zen behar bueltan-bueltan haria lortzeko! 10 cm besterik ez!"*

10 cm-ko tartea besterik ez zen behar bueltan-bueltan haria lortzeko!

Galtzerdi parea izan zen beraz, artilearekin egindako lehen lana. Baina ordurako Kintana hil egin zen. Barruko har urduria esna zuen ordea, eta paseatu bitartean haria egiten jarraitu zuen Anastasiak. Eta hari hori aprobetxatu egin behar zela eta, jantziak josteari ekin zion: jertseak, soinekoak, txapelak, galtzak, kulero eta galtzontziloak, oinetakoak... Pieza dezente egin zituen pixkanaka, eta pila handia bildutakoan, erakustea erabaki zuen.

ETXETIK MERKATURA.

Behin, etxean artilezko nahikoa arropa zuela eta, batzuk poltsan sartu eta Donostiara abiatu zen Anastasia. Bretxan dagoen dantzari eta baserritar arropa saltzen duten dendara jo zuen. Bertako saltzaileari artilezko piezak erakutsi eta izugarri gustatu omen zitzaizkion. Jertse bat erosi nahi izan zion, semearentzako, eta bote-prontoan, 8.000 pezeta balio zuela erantzun zion Anastasiak. Dendariak berriz, erosi.

Pixkanaka, hainbat tokitan saldu zituen jantziak Anastasiak. Ezagun egiten ere hasi zen, eta artisau azoketara joateko ere deika hasi zitzaizkion. Hainbat herritan izana da dagoeneko, arropak saltzen edo erakusten.

Senarra gaixotzean berriz, atzera eta aurrera ibiltzea ezinezko egin zitzaion, eta etxean gordetako jantziekin zerbait egin behar zuela pentsatu zuen: *"Meritu handia du egiten dudan lanak. Artileaz zerbait dakienak berehala antzemango du. Orain makina asko daude, baina horiek ere ez dakite nik bezala artilea lantzen! Horrexegatik, Hernaniko Udalari bi kutxa bete jantzi oparitu nizkion, aurrerantzean jendeari nire lanak erakutsi ahal izateko".*

BITXIGINTZA.

Denbora bat gaixorik pasa ostean, senarra hil egin zitzaion Anastasiari. Orduan, munduan ez zitzaiola ezer geratzen pentsatzen zuen, baina laster atera zituen berriro ere indarrak. *"Orain gutxi, igogailua egiteko obrak egiten hasitakoan bota zuten tren-geltoki ondoan zegoen ezkur-ondoa. Agurtzera ere joan nintzen, bizia berak eman zidan eta. Izan ere, han paseoan nenbilen batean, lurrean ezkurrak ikusi eta jaso egin nituen. Horiekin hasi nintzen bitxiak egiten".*


Tren-geltoki ondoko ezkur-ondoa agurtzera joan nintzen bota zutenean, berak eman baitzidan bizia

Ezkur haiek jaso eta etxeratzerakoan, lehen koilarea egin zuen. Gaztetan ere, egin izan zituen bitxiak: *"Ondoko baserrietan diru gehixeago zutenak izaten ziren, eta festetan eta horrelakoetan bitxi ederrekin azaltzen ziren. Gu ez ginen gutxiago, eta dirurik ezean, gure koilare eta eskumuturrekoak egiten genituen!".*

Entretenimendu berri bat aurkitu zuen horrela. Egunero, paseo bat ematera ateratzen da orain ere Anastasia. Dagoeneko ezagutzen ditu behar dituen landareak, eta non aurkitu ere badaki. Ezkurra, sagarra, eukaliptoa, pikuak... erabiltzen ditu. Horien haziak jaso, lehortzen utzi eta mota guztietako bitxiak egiten ditu gero. Inori balio ez dioten haziak balio diotela esaten du. Bakoitzak lehortzean hartuko duen kolorea ere aldez aurretik jakiten du jada. Horrela, koilareak eta eskumuturrekoak egiteaz gain, belarritakoak edota paparrekoak egiten ere aritzen da.



Anastasiak egindako hainbat belarritako eta koilare.





Bitxiak egiteko sukaldean jarritako "tailerra".

ONDARE BALIOTSUA.

Lanak uztea pentsatu izan omen du Anastasiak, baina jendeak etengabe deitzen diola eta, ez du aukerarik izan. Jantziak eta bitxiak egiteari utzi beharrean, berrikuntzak egiten aritzen omen da gaur egun. Izan ere, jendearen eskariaren arabera sortzen ditu sarri bere piezak.

Artilearekin egindako jantziak gaur egungo modara egokitu ditu, adibidez. Artzain frantziar batek haria ekarri eta eskariak egiten dizkio, gero Frantziako azokatan edo dendetan saltzeko. Horrela, moda modako jantziak egiten ditu gaur egun Anastasiak: kuleroak, galtzontziloak, tangak edota broma gisa oparitzeko kondoiak.

Bestalde, eskatutakoaren arabera ere aritzen da lanean. Neurria eta nahi denaren argazkia emanda, norberaren gustura egindako jantziak egiten ditu.


Horrez gain, Oiartzungo Emakume Taldearekin parte hartzen hasi da orain gutxi. Sendabelarrak erabiliz botikak, xaboiak, kandelak... egiten dituzte artisau hauek. Beste motatako ikastaroak ere eskaintzen dituzte, eta Anastasiari haria egiteko teknika irakasteko eskatu diote. Horrela, tarteka-marteka hara eta hona ibiltzen da Anastasia, bere jakinduria zabaltzen.

Bitxiak egiten ere jarraitzen du, jendeari gustatu egiten baitzaizkio, eta bera entretenitu egiten da.

Urte hauetan guztietan lan handia egin du eta ez du guztia galtzea nahi. Hernaniko Udalari oparitutako artilezko lanekin erakusketak egitea gustatzen zaio, jendearentzako eskuragarri egon daitezen. Dagoeneko hainbat herritan jarri dituzte ikusgai artilezko jantzi horiek.

Bitxiei dagokienez, badu beste kapritxo bat: *"Hiltzen naizenean, mezatik ateratzen direnei nik egindako bitxiak oparitzea gustatuko litzaidake. Hernaniarrentzako opari gisa utzi nahi ditut"*. ■

Hiltzen naizenean, nik egindako bitxiak hernaniarrei oparitzea gustatuko litzaidake



Hernaniko Printzak

Plaza Berria

Luix Errazkin

Texto extraído del libro *Los baskones en la nación argentina (1816-1916)*, pag. 292. Editado por José R. de Uriarte, director de *La Baskonia*. Buenos Aires [Argentina].

ernani



Ernani



Antigua puerta



Admirable portada de la Iglesia parroquial

Villa con Ayuntamiento, al que están agregados los barrios de Lasarte y el Puerto, con 4.326 habitantes. Situada al Sur de San Sebastián, en la falda del monte Santa Bárbara, á 158 pies de altura sobre el nivel del mar, con estación del ferrocarril del Norte. Terreno fértil, que baña el río Urumea, produce maíz, sidra y hortalizas. Dista 9 kilómetros de la capital, la que le une el tranvía eléctrico. Tiene fábricas de achicoria, de almidón, curtidos, chocolate, electricidad, envases cilíndricos, galletas, harinas, ladrillos refractarios, papel continuo, pasta de madera para papel, productos químicos, sidra, tejidos de lana y seda, de tejas y ladrillos; establecimientos de horticultura y arboricultura. Tiene agregados los barrios de *Lasarte*, con fábricas de mármol comprimido, y *El Puerto*.

Los principales edificios son: la Casa Municipal y la iglesia parroquial, templo espacioso, con bonita fachada y buena torre, y notables esculturas en el interior. En ella está enterrado Juan de Urbieta, el apresador de Francisco I en Pavía, según se lee en la inscripción al lado del altar mayor.

En los alrededores hay muchos caseríos, fábricas, fundiciones; abundante arbolado, de robles, encinas y castaños, y canteras de piedra, caliza y de yeso. Es villa antigua, citada ya en documentos de fines del siglo X. Sus armas son un castillo de plata y dos leones de oro, en ademán de subir á él, en campo de sinople.

La circunstancia de haberse quemado totalmente en tiempo antiguo el archivo de Ernani, ha hecho poco menos que imposibles las investigaciones acerca de la época de su fundación, concesión de su carta-puebla, etc. En otro incendio ocurrido en la villa en 1512, desaparecieron las ordenanzas municipales concedidas á Ernani por los Reyes Católicos.

En lo antiguo fué Ernani pueblo cercado y torreado y estaba considerado como plaza de armas, por su proximidad á San Sebastián y la frontera francesa.

Durante la guerra de la Independencia estuvo guarnecida y fortificada por los franceses, y más tarde, durante las dos guerras carlistas, Ernani fue teatro de varios reñidos encuentros entre las fuerzas del gobierno y las de D. Carlos. ■



Casa Municipal e Iglesia parroquial



Argazkia: Jesús Man

Nere Borda,

Hernaniko lorategi botanikoa

Iñaki Sanz-Azkue eta Anaïs Mitxelena

Londreseko "Royal Botanic Gardens"-aren handitasunik edo eta "Orto botanico di Pisa"-ko lorategi botanikoaren historiarik ez duen arren, Hernanin bertan herritik aldendu gabe ere badugu landare eta zuhaitz bereziez gozatzeko aukera ematen digun txokoa. "Nere Borda" du izena eta Hernaniko Lorategi Botanikoa da.



Argazkia: Jesús Mari Azkue

LORATEGI BOTANIKOA HERNANIN.
Koloradoko izeiak, palmondo kanariarrak, jukak, jasminak, pago gorriak... *Nere Borda* jardin botanikoak mota eta jatorri ezberdinetako landareak biltzen ditu eremu txiki baina erakargarrian. Herriaren erdigunetik 10 minutura, lorategia Latsunbe auzoko biribilgunearen alboan dago kokatua eta Hernaniko udalerriko ondare kultural eta naturalistikoaren katalogoan dago jasoa.

Landareez gain, ordea, badira lorategia berezia egiten duten beste ezaugarri batzuk ere. Horietan azpimarragarrienetarikoa jardinak berak duen diseinua da. *Nere Borda*koa, lau eremu ezberdinez osaturiko lorategia da: lorategi ingelesa, basoa, lorategi klasikoa eta lorategi esperimentala ditu. Hauetan guztietan aurkituko ditugun landareak identifikazio-txartel batekin hornituak daude, bisitariek zein espezieren aurrean dauden jakin dezaten.

Eremu irekia edo lorategi ingelesa.
Biribilgunetik gertuen dagoen parkearen zatia da. Gainontzekoak bisitatzeko ordutegi bat dagoen arren, lorategi ingelesa gune irekia da, abiapuntura itzultzen den bide zirkular batez osatua eta mota askotako espezieez apaindua.

Zedro urdina, Himalaiako zedroa eta magnolioak dira, Kanarietako palmondoekin batera, lorategi ingeleseko zuhaitzik esanguratsuenak. Hauen babesean zuhaixka eta loreak aurkituko ditugu, hauek ere kanpotik ekarriak.



Basoa.

Zuhaitz handi eta zuhaixkez osaturiko gune itzaltsua da. Lorategiaren iparraldean dago kokaturik eta haize babesgarri lanak egiten ditu.

Bertan, bide baten alde bietara izei gorriak, intsinis pinuak eta erramu orbandunak nagusitzen dira. Baina agian bide ertzean aurki daitekeen intsinis pinuetako bat da guztietatik aipagarriena.

Hernaniko Udalak, 2003. urtean, ale hau Zuhaitz Berezien Katalogoan sartzeko eskaera egin zuen. Izan ere dituen dimentsioak apartekoak dira, 25 metroko altuera eta ordurarte Gipuzkoan ezagutzen zen enbor-perimetro lodiena (441 cm) baititu.

Lorategi klasikoa.

Lau zatitan banaturiko karratu itxurako eremua da. Bertan Kanarietako palmondoak dira gehien ikusten direnak. Bide ertzean, aldiz, ezpelak eta basaerramuz osaturiko tontorkak azaltzen dira, lorategi klasikoa modu erakargarri batean apainduz.

Lorategi esperimentala (eremu didaktikorako erabilia).

Garai bateko atsedenlekua da. Egun jarduera partehartzaileak eta didaktikoak egiteko prestatua dago. Ur-landareak dituen putzuaz gain, bada aldizkako landaketa aldagarriak egiteko gune bat ere, baita informazio taulak jartzeko hormamarkesina bat ere.

Intsinis pinua. Argazkia: andrekale35.

Hernaniko Parke Botanikoa



ZATOZ EZAGUTZERA, HURBIL ZAITEZ
VEN A CONOCERLO, ACÉRCATE

Ordutegia Horario

NEGUAN Invierno: **9:00 - 18:00**
UDAN Verano: **9:00 - 20:00**
EGUNERO IREKITA DAGO Abierto todos los días

HERRIAREN ERDIGUNETIK 10 MINUTUTARA

Aberastasun botanikoa eta diseinua elkartzen dituen parkea.

Konifera ezberdinak, Gipuzkoan dagoen pinurik handiena izan daitekeena, hosto galkorreko zuhaitzak, denboraldiko kolore bizidun loreak, urmaela, nenufareak, arraitxoak...

Kolore eta material ezberdinetako harlauzez galtzadatutako bideak, egurrezko eta harrizko aulkiak...

5.685 m² familiarekin gozatzeko, lasai egoteko, paseo bat emateko, natura miresteko, irudimena askatzeko...

A 10 MINUTOS DEL CENTRO

Un parque que une la riqueza botánica y el diseño.

Variedad de coníferas, el que posiblemente sea el pino más grande de Guipúzcoa, árboles de hoja caduca, flores de temporada con vivos colores, un estanque, nenúfares, pececitos...

Caminos pavimentados con colores y materiales diferentes, bancos de madera y de piedra...

5.685 m² para gozar con la familia, para relajarse, para dar un paseo, para admirar la naturaleza, para dar rienda suelta a la imaginación...

- **A** Eremu irekia: Lorategi ingelesa
  Zona abierta: Jardín inglés
- **B** Basoa
  Bosque
- **C** Lorategi klasikoa
  Jardín clásico
- **D** Lorategi esperimentala. Eremu didaktikoa
  Jardín experimental. Área didáctica

1. SARRERA NAGUSIA. Informazio-taula
   Acceso principal. Panel informativo
2. Zuhaitz katalogatua
   Árbol catalogado
3. Palmondoen biribilgunea
   Rotonda de los palmitos
4. Urmaela
   Estanque
5. Informazio-horma
   Muro para paneles informativos
6. Nere Borda Etxea
   Villa Nere Borda
7. Latsunbeko biribilgunetik sarrera
   Acceso desde la glorieta de Latsunbe





HERNANIKO MAPA
Mapa de Hernani



HALLE-TARREN LORATEGI PRIBATUTIK HERNANIKO PARKE BOTANIKORA.

2000. urtean Hernaniko Udalak lorategia erosi zuen arte, egun *Nere Borda* dena jatorri alemaniarreko Halle senar-emazteena izan zen. Parkearen alboan dagoen etxebizitzan bizi ziren eta gaur parke botanikoa dena euren lorategi pribatua izan zen. Baina Udalak lorategia erosi zuenerako jardina dagoeneko diseinaturik zegoen eta kanpotik ekarritako espezie asko bertan zeuden landatuak.

Guzti honek zer pentsatu eman zigun. Jardina diseinatu zuenak lorategiei zein botanikari buruzko ezagutza handia eduki behar zuen... Izan ere, ekarritako landare arrotzak euren baldintzetatik kanpo landatzea eta haztea ez zen lan erraza. Are gehiago, lorategiak zuen itxurak, egileak landareekiko ezagutza eta afizio handia zituela adierazten zigun eta baita dirua horretan gastatzeko aukera ere!


Hau honela izanik, Kurt Halle (senarra) eta Lidia Hallerentzat (emaztea) lan egindako bi hernaniarrekin elkartzea erabaki genuen.

Lidia Halle, lorategi botanikoaren ama?

Maria Pilar Carrerak Halle-tarrek Orkolagan zuten lantegian lan egin zuen urte askoan. Mantilak eta errezelak egiten zituzten bertan eta Kurt Halle zen bertako nagusia. Hau dela eta senar-emazteen artean Kurt bera, fabrikako nagusia, izan zen hoberen ezagutu zuena.

Patxi Apezetxeak, aldiz, Lidia Halle emaztea ezagutu zuen. *Nere Borda*ko jardinaren lorategiaren mantenimendua eman zuen 20 bat urtez Halletarren jabegotasunean zenean. Bertara astean 3-4 egunez joaten zen lau orduz lan egitera.

Kurt eta Lidia Halle II. Mundu gerrarekin batera azaldu ziren Hernanin. Biak ala biak alemaniarrak baziren ere se-



narra jatorri judutarrekoa zen. Maria Pilarrek adierazi digunaren arabera Halle-tarrak Plaza Berrian bizi izan ziren lehendabiziko urteetan, beranduago egun jardin botanikoa dagoen etxera joan baziren ere.

Loreei buruz hitzegitean, ordea, Lidia Halleren izena da azaltzen dena. Gogoan ditu Maria Pilarrek Lidiak fabrikaren kanpoaldean zituen loreak. *"Oso jardinzalea zen emaztea"* dio Maria Pilarrek. *"Berak* (Kurt Hallek) *nahiko lan zuen fabrikarekin"* dio.

Patxik berak ere, hasieratik baieztatu digu Maria Pilarrek aipatutakoa. Lidia Halleri izugarri gustatzen zitzaizkion loreak eta *"jardina emazteak berak diseinatu zuen"*. Patxi lorategian lanean hasterako landare gehientsuenak landaturik zeuden jada, orain kiroldegia dagoen lekuan zeuden pinuak izan ezik: *"Hauetariko batzuk guk geuk landatu genituen lorategian"* dio.

Nabaria da Patxik ordu asko sartu zituela bertan lanean, oraindik ere buruz zenbatzen dizkigu eremu bakoitzeko zuhaitzak. *"Jardina oso txukun edukitzea gustatzen zitzaion señora-ri, belar txarrik gabe! Eta halaxe ibiltzen nintzen ni, belarrak banaka kentzen, magnolioei piramide forma ematen..."*.

Senarra eta alaba hil zitzaizkionean, Lidia bakarrik geratu zen eta bere bizia eta ilusioa lorategian jarri zituen. Jana edo eta arropan diru askorik ez zuela gastatuko baina lorategian dirua uzteak ez ziola inporta ere esan izan zion Patxiri behin baino gehiagotan.

Lidiak landareekiko zuen ezagutza eta pasioari esker bere jardin botaniko propioa diseinatu zuen etxean bertan. 2000. urtetik hona ordea bere lorategia zena, bisitatu nahi duen ororentzat dago irekia *"Nere Borda* Jardin Botanikoa" izenpean. Lidiak, zoritxarrez, ez zuen halakorik ezagutu.



Lorategiaren eta etxearen ikuspegi orokorra 1968 urtean.



LORATEGI BOTANIKOAK ETA EUREN GARRANTZIA ESPEZIE MEHATXATUEN KONTSERBAZIOAN.

Parke edo lorategi botaniko bat landareak, batez ere iratze, landare loredunak eta zuhaitzak dituen gune bat da. Baina lorategi arruntetan ez bezala, jardin botanikoetako landareak ikerketarako, kontserbaziorako eta hezkuntzarako hazten dira.

Ezagutzen den zaharrena XVI. mendekoa da, 1543an Pisako Unibertsitateak medikuntzarako erabiltzen ziren landareak ikertzeko sorturikoa. Egun, ordea, lorategi botanikoak mundu osoan zehar barreiaturik aurkitzen dira eta Kontserbaziorako Lorategi Botanikoen Elkarte Internazionala (BGCI) taldeak esaterako mundu osoko 800 kide (lorategi botaniko) biltzen ditu.

Lorategi botanikoek oso funtzio garrantzitsuak bete izan dituzte historian zehar eta egun ere hori bera egiten dute. XVIII. mendean, adibidez, esplorazio-bidaietatik ekarritako landareak beren jatorriko lurraldetik kanpo aklimatatzeko erabiltzen zituzten gune hauek. Egun, aldiz, turismo berdea erakartzeko ez ezik, jardin botanikoek funtzio oso garrantzitsuak betetzen dituzte landare espezie mehatxatuen kontserbazioan, hauekin erlazionaturiko ikerketetan edo eta ingurugiro-hezkuntzan.

Baina jardin botanikoetara ekartzen diren kanpoko landareekin ere ardura handia eduki behar da. Izan ere, hauetara ekarritako landare batzuen haziak ingurune naturalera zabaldu dira hemengo klimara egokituz eta landare exotiko inbaditzaile bihurtuz. Hau dela eta, egun, landare hauetariko asko arriskutsuak suerta daitezke ekosistema eta flora autoktonoarentzat.

Euskal Herrian bertan hainbat lorategi botaniko dira: Gasteizen eta Barakaldon esaterako. Baina gertutasunagatik agian Iturrarango lorategi botanikoa da ezagunena gure artean. Gipuzkoako Aia herrian Pagoetako Parke Naturalaren barruan dagoen 10 ha-ko gune honek 2.400 landare ditu eta espezie



atzerritar zein autoktonoekin osatua dago. Horrez gain, Euskal Herriko landare mehatxatuen bilduma bat du eta ibilbide batzuk ditu diseinatuak mota ezberdineko hainbat zuhaitz ikus daitezkeelarik bertan, bakoitza bere etiketaz identifikaturik.

Zein da Nere Bordaren funtzioa Hernanin?

Nere Borda Parke Botanikoa Hernaniko turismo berdeari bultzada emateko tresna paregabea da, eta era berean herritarroi ingurumen-hezkuntza lantzeko ez ezik, atsedena, aisia eta lasaitasunaz gozatzeko aparteko txokoa eskaintzen digu.

Eskerronak:
Maria Pilar Carrera Vera eta Patxi Apezetxea Navarrori, baita beraien senar eta emazteari euren etxean eskuzabaltasun eta goxotasun osoz hartu gintuztelako.


Bestalde, ez genituzke eskertu gabe utzi nahi Ines Sarasua eta Agustin Sanz, lorategiaren jatorriari buruzko informazio bila noraezean ginenean bidea argitu zigutelako.

Norteko trenbidea

Hernaniko baratzetik

Urko Apaolaza

Ez zen nolanahiko asmakizuna izango Txirritak bertso batzuk jarri bazizkion. Txirritaren bertsoak merezi dituenak atentzio pixka bat merezi behar luke gure partetik. Hala ere, orain arte ez da kasik ezer idatzi, ez prentsan, ez inon, Norteko trenbideak Hernaniko lurretan barna egindako bideaz eta utzitako arrastoaz. "Ze mespretxua!" esango du kontu zaharrak gustatzen zaizkionak. Baina hori konpontzeko lanean jartzen bada, segituan konturatuko da ez ikusi horren atzean zer arrazoi dagoen: *"Trenbidearen eraikuntzari buruz Hernaniko udaleremuko ia berririk ez dago"*. Horiek ez dira edonoren hitzak, Norteko trenbidearen Gipuzkoako zatiaz egin den ikerlan sakonenaren egileenak baizik. Pello Joxe Aranburu eta Luis Mari Intzak 2006an kaleratu zuten *Norteko trenbidearen eraikuntza, ebaluaketa eta ondorioak Gipuzkoan (I)* liburukotea eta bertatik, besteak beste, jasoko ditugu Txirritarentzat *"adelantu"* handia zenak gure baratzean utzitako berri papurrak.



Norteko trenbidearen sorrera.
Trenbideen sistemak Ingalaterran eboluzionatu zuen azkarren; hango meategietan erabili ziren lehenengo "perrak" materiala garraiatzeko. Baina iraultzarik handiena Watten lurrin-makinarekin etorri zen. Bapore bidezko motorrak itsasontzi eta trenetan aplikatu ziren eta 1830ean Liverpooletik Manchesterrerako trenbidea inauguratu zen, munduko lehena. Urte gutxiren buruan, lokomotoraren keak estepa, tundra eta desertuak zeharkatzen zituen, Siberian, Coloradon edota Indian.

Euskal Herriko lehen trenbidea Baionatik Bordelera zihoana izan zen, 1857an irekia. Ordurako, Espainian hasiak ziren Irun eta Madril elkartuko zituen trenbide proiektuekin. Gauza da, Esparteroren 1855eko lege batek Espainian trenbide zabalera handiagoa aurreikusten zuela Europako beste lekuekin konparatuta; horrek sekulako atzerapena eta isolamendua ekarri zuen, konexiorik ezin zitekeelako egin Frantziatik zetozen trenbideekin (gaur egun horrela jarraitzen du). Zergatik jokatu zuen horrela Esparterok? Estrategia militarra? Orografia zailtasunak? Gaur da eguna hori argitu gabe dagoena.

1856an Frantziako Péreire bankarien *Sociedad para el crédito mobiliario español* enpresak lortu zuen Madril-Irun linearako kontzesioa. Trenbidea egiteko dirua ezinbestekoa zen eta Euskal Herrian oraindik industrializaziorik ez zegoenez, kapitalik ere ez, horregatik izan zen funtsezkoa frantsesen parte hartzea. Baina Péreire anaien planak ez zuen zehazten Miranda de Ebrotik Irunerako ibilbidea eta horrek probintzien arteko konpetentzia latza sortu zuen, trenbide proiektu ezberdinekin. Bilbotarrek eginiko lehen proiektu batek planeatzen zuenez, trenbideak Miranda-Bilbo-Irun ibilbidea egin behar zuen, Bizkaiko hiriburura Gaztelako zerealak eramatea zen helburua. Aldiz, nafarrek, Frantziako konexioa Iruñea eta Baigorritik barrena egitea proposatu zuten; errioxarrek ere bazuten euren proiektua...

Konpetentzia izugarri horrekin, ez da harritzekoa Gipuzkoako elite ekonomiko eta politiko osoak esfortzu berezia egitea Aizkorri zulatu eta Zegamatik aurrera probintzia osoa zeharkatuko zuen linea berria bultzatzeko. Horrela, Diputazioak, udalek eta baita herrietako apaizek ere, diru-bilketa itzela egin zuten, frantsesek jarritako hasierako kapitala handitzeko. Horren guztiaren atzean Donostia eta Tolosako liberalak zeuden batez ere, baina beste herrietako jendeek ere parte hartu zuten diru bilketa horretan. Hauek dira Norteko trenbidea egiteko akzioak erosi zituzten hernaniarren izenak:




Suskribatzailea	Errealak	Suskribitzailea	Errealak
Udala	40.000	Antonio Maria Larrarte	8.000
Fermina Aristizabal	10.000	Jose Antonio Murua	500.000
Kristobal Lekunberri	6.000	Jose Inazio Arbelaiz	6.000
Maria Juana Iturriaga Paskual	10.000	Domingo Goenaga	2.000
Manuel Zendoia	10.000	Zuaznabar	2.000
Ramon Berasategi	10.000	Juan Maria Casas	2.000
Benito Antonio Fernandez	10.000	Migel Erize	2.000
Jose Domingo Ollo	10.000	Domingo Etxeberria	2.000
Jeronimo Cardan	16.000	Bizente Ubiria	8.000
Lino Maria Aranburu Miner	30.000	Santiago Urain	2.000
Feliz San Juan	4.000	Luis Adarraga	4.000
Urdangarai	20.000	Andres Agirre	2.000
Jose Antonio Gorrotxategi	4.000	Jose Antonio Olano	8.000
Manuel Lizeaga	6.000	Migel Inazio Azpiazu	4.000
Galardi andereñoak	20.000	Carlos Bireben (sic?)	4.000
Jose Migel Soroa	12.000	Teresa Elizalde	20.000
Feliz Santo Domingo	10.000	Antonio Maria Lizarraga	8.000
Martin Aranburu	10.000	Bizente Ansorena	4.000
			Guztira: 826.000

Taula honetan pertsona baten aportazioa nabarmentzen da galanki, Jose Antonio Muruak jarritako 500.000 errealak hain zuzen; hernaniar guztiek jarritakoaren adina baino gehiago eta gipuzkoarren artean laugarren suskripzio handiena da berea. Baina ez da harritzekoa, Murua baitzen Hernaniko gizon aberatsenetako bat, gaur egungo Oblatos aldean palazio eder bat zuen eta, besteak beste, Hernaniko Benefizentziaren eraikina berak eginarazi zuen. Gainerakoan, guztira 33 milioi erreal jarri zituzten gipuzkoarrek Norteko trenbidea egiteko, horietako milioi gehienak Donostiatik atera ziren, baina urrunagotik ere bai, Peru edota Kubako indianoetatik, adibidez.

Azkenean, gipuzkoarrek irabazi zuten lehia eta 1858an Norteko trenbidearen konpainia (*Compañía de los Caminos de Hierro del Norte*) sortu zen. Altsasura aisa iritsi ziren trenaren habeak baina Altsasutik Irunerako traiektua beste kontu bat izan zen. Malda eta malkarra, horixe. Obra zail eta nekosoek hainbat urte iraun zuten, batez ere Zegamako Otzaurten tunelak egiteko, Piamonteko langile esperimentatuak -gurera trikitia ekarri zuten horiek- behar izan zituzten, hortik atera kontuak. Horrela, 1864ko abuztuaren 15ean, Espainiako erregea barnean zeramala, trenak ibilbide osoa egin zuen Gipuzkoan zehar.

Hernaniko zatian zer berri? Gaur ez genuke hernaniarrek RENFEko trenik izango -ezta apeaderorik eta estaziorik ere- eta lasartearrek bai, historia beste modu batera portatu izan balitz. Norteko trenbidea Andoaindik Donostiara pasatzeko bi ibilbide diseinatu eta eztabaidatu ziren. Batetik, Lasartetik pasa eta Antiguotik barrena Donostiara iristen zena; bestetik, Hernanitik igarotzen zena. Ez da bizkorra izan behar azkenean zein aukeratu zuten asmatzeko. Hernaniko pasabideak bentaja gehiago zituen: motzagoa zen eta errebolta gutxiago eta txikiagoak zituen; ez zen Lasartekoa bezain aldapatsua; lur zorua hobea zen trenbidearentzat -Oriako erriberak eta Antiguoko plaiak enbarazu egiten zuten- eta azkeneko arrazoia, seguruena inportanteena, merkeagoa zen.



Hernaniko paisajea Norteko trenbideak erdibiturik (Argazkia: Indalecio Ojanguren, Gipuzkoako Artxibo Orokorra)



Baina Hernanira iristeko trenbideak Urnietako Azkonobieta pasa behar zuen –Andoain eta Urnieta artean–. Tunel luze horrekin (850 m) komeriak izan zituzten eta lan istripu larri bat ere gertatu zen: 1862ko abuztuaren 26an luizi batek lau langile harrapatu zituen; hildakoetatik hiru Piamontekoak ziren. Hernanin trenbideak 2.600 metro egiten ditu, 613'7 eta 616'3 bitarteko zenbakidun kilometroak hain justu. Ibilbidea Urumea erriora hurbiltzen zenez, errioak uholdeetan eta itsas-goran izaten zuen altuera maximoa kontuan hartu zuten eta bete-lana egin behar izan zuten trenbidea urak ez harrapatzeko. Hain zuzen, Urumea ondoko harria erabili zuten bete-lan hori egiteko. Hernaniko udal agintariak eta Eziago nahiz Muntoaundietako lurjabeak bildu, eta lurrak tasatu ondoren, bost urtez esplotatzeko baimena eman zioten enpresari, 121.760 errealen truke.

Bestalde, desjabetzeak ugari izan ziren trenak pasa behar zuen tokitik eta hernaniarrak ez ziren horietatik libratu. 1859tik 1864ra hainbat lur eta eraikin espropiatu zituen konpainiak eta horiengatik 434.835 erreal eman zizkien jabeei. Besteak beste, Portuko barrioan zegoen Franko errota –1546koak dira bere lehenengo berriak eta udal jabetzakoa izan zen urte askoan– arrunt kalteturik geratu zen. Beste leku ezagunetan soroak, sagastiak, paretak eta bideak zeharkatu zituzten trenaren burniek: Mariluz-txikin, Okendonean, Bestizanen, Etxetxokon, Aldunanian,

Ezkerronean, Errotaberrin, Satinean, Muntoaundin, Muruaren jauregian eta teila fabrikan. Guztira, 33 soro-puska eta 57.658 metro koadro. Artxiboan badaude desjabetze horien, bai eta planoen eta bideen inguruko dokumentuak ere.

- Los molinos, quebrantadoras y tamices que sean necesarios para moler cuando menos seiscientos sacos de cemento en doce horas de trabajo. El producto que se obtenga deberá pulverizarse de manera que pasando por un tamiz formado por novecientas mallas por centímetro cuadrado no deje más residuo que el veinte por ciento.
- "*Una turbina, transmisiones, elevadores de cemento y lignito y utensilios, herramientas y mecanismos necesarios.*"
-"*Un cable aéreo desde la fábrica hasta las canteras.*"
- "*Tres o más hornos necesarios para la buena calcinación de la piedra*"[11].

Afortunadamente, en los años 1902 y 1905 se han encontrado intercambios epistolares entre D. Santiago Alquizalete y el Ayuntamiento de Hernani que confirman la actividad cementera en Fagollaga; es decir, que lo que en la escritura de fundación es un deseo, un objetivo, llega a materializarse en una fábrica en funcionamiento. El 18 de noviembre de 1902 el promotor de la empresa se dirige al Ayuntamiento de la Villa en estos términos: "*Deseando, el que suscribe, obtener una poca piedra refractaria para hornos y conviniéndole la existente en Ereñozu-Malda, pegante a la carretera, en un argomal propiedad de esta villa: RUEGA a esa Iltre. Corporación le autorice arrancar algunos carros para el indicado fin en la seguridad de que procurará no causar daño alguno*"[12]. El día 26 el Ayuntamiento le contesta por medio de una carta firmada por el alcalde Alberto Bireben:

"*Enterado el Ayuntamiento de mi Presidencia del escrito que Ud. se ha servido dirigirle pidiendo autorización para extraer piedra refractaria para la construcción de hornos de la que existe en `Ereñozu-malda´ junto a la carretera, la Corporación municipal ha acordado en principio acceder a lo solicitado por Ud; mas teniendo en cuenta que no fija Ud la cantidad de piedra que desea extraer, ni el tiempo durante el cual ha de efectuar la extracción, acordó así bien se manifieste a ud. que la autorización que se le otorga para extraer piedra de Ereñozu malda, se entiende hecha con la intervención de la Comisión de Montes y del Regidor Síndico del Ayuntamiento para cuantas operaciones se hayan de practicar incluso el señalamiento del punto de extracción*"[13].

Por otro lado, la piedra utilizada como materia prima para la fabricación del cemento es la que se obtiene en las canteras de la zona llamada *Bortoluania*. Ahora bien, da la impresión que posteriormente la Sociedad tuvo problemas con esta pedrera pues en el verano del año 1905 "*los Sres. Alquizalete y Cía, industriales establecidos en esta villa*" piden autorización al Ayuntamiento para explotar la cantera que está situada en los terrenos comunales conocidos por *Bortoluanea-goicoa* o *Lepachiqui* y aprovechar la piedra que extraigan de ella "*para hacer cemento en su fábrica de Fagollaga*"[14]. Examinada la misiva se toma el acuerdo de que la *Comisión de Caminos* estudie la petición y que envíe un perito agrimensor para que mida el terreno, levante el plano y señale el sitio en donde, por ahora, deba

---

11 A.H.P.G.: 3-4052. fol. 312 vtº-313 r. El subrayado es nuestro.

12 A.M.H.: C-5-IV-5/3. En el libro que recoge las actas de las sesiones del Ayuntamiento (A-1-29) también se reseña brevemente el contenido de la carta del 26 de noviembre, señalando que la piedra es "*para hacer hornos de cal.*" El subrayado es nuestro.

13 A.M.H.: A-3-9. hoja nº 361. Esta piedra debe soportar altas temperaturas pues está destinada para el revestimiento de los hornos, y por lo tanto necesariamente tiene que ser refractaria, es decir, que resista la acción del fuego sin alterarse. El subrayado es nuestro.

14 A.M.H.: A-1-31. 3 de agosto de 1905. p. 37. Hay que recordar que en octubre de 1906 los socios declaran que había cesado el arrendamiento de Bortoluania.

extraerse la piedra. Como resultado de estos informes la Comisión estima que en aplicación de la legislación vigente, al estar la cantera situada en terreno comunal o de dominio público, a la sociedad peticionaria solo se le puede exigir un tributo o canon con objeto de paliar el perjuicio que cause su intervención; y en un principio, y dado el escaso valor del terreno, se estima que la cantidad a abonar por la Compañía sean veinticinco pesetas pero se matiza que la Villa y sus vecinos mantienen su derecho para aprovecharse de ese lugar.

A un concejal de la corporación el importe exigido le parece escaso y después de una animada discusión la cantidad se eleva a cien pesetas anuales. No contento con la subida el edil Arbelaiz propone que sean quinientas *"pues tratándose de una industria tan importante como es una fábrica de cemento, no debe equipararse la cantera que va a explotar con otras canteras, cuyos productos se destinan a distintos usos"*[15]. Una vez discutida la proposición se procede a continuación a su votación, y por cuatro votos contra dos se acuerda fijar en cien pesetas el canon a satisfacer en concepto de indemnización por los perjuicios originados y por la ocupación del suelo.

De lo visto hasta ahora se percibe la previsión en la búsqueda de ladrillos refractarios con la calidad necesaria para revestir el interior de los hornos a levantar y las gestiones practicadas para conseguir la materia prima y el combustible indispensable para su funcionamiento[16]. Y como quiera que esta fábrica se puso en marcha hay que admitir que en Fagollaga se levantó finalmente un horno para la obtención de cemento, y esta opinión coincide con la exhibida muy recientemente por varios estudiosos de arqueología industrial de nuestra provincia; así que es conveniente traer a colación los pareceres que los vestigios de Fagollaga despiertan actualmente en algunos especialistas de este tema.

Después de leer la frase subrayada líneas arriba que expresa la intención de levantar tres o más hornos para calcinar la piedra, es conveniente examinar el dictamen emitido sobre estos restos en 1995 por los etnólogos Luis Del Barrio y Luis Zaldúa, y que se publica en el *INVENTARIO DE ELEMENTOS PATRIMONIALES INMUEBLES EMERGENTES DE INTERÉS PREHISTÓRICO, HISTÓRICO Y ETNOGRÁFICO, EN EL TERMINO MUNICIPAL DE HERNANI (GIPUZKOA)*. La ficha nº 052 de este registro dice lo siguiente:

- ***Denominación***: *Fagollaga.*
- ***Tipo específico***: *Horno cementero.*
- ***Localización***: *F-4.*
- ***Período general***: *Contemporáneo.*
- ***Tipo general***: *Construcción industrial.*
- ***Propiedad***: *Privada.*

- ***Descripción***: *Ruina de horno cementero. Conformado por dos cuerpos adosados construidos en mampostería, con esquinales de sillar, uno de ellos de apariencia maciza, contiene en su interior tres cubas de cocido con sus respectivas bocas de descarga, revestidas de ladrillo macizo. El otro cuerpo se constituye mediante cuatro estructuras conformadas cada una por tres grandes arcadas de medio punto superpuestas, formando dos alturas además de la baja, dispuestas perpendiculares al alzado del cuerpo anterior, en la actualidad sin paredes y forjado de pisos*[17].

Bibliografía: Urteaga, M. (1992)

Luis del Barrio es también autor de un mapa de Hernani y su jurisdicción y, acorde con la apreciación vertida en el Inventario citado, en el enclave de Fagollaga coloca un signo convencional o icono que significa la existencia de un *Horno cementero*[18]. Por medio de un amigo común se tuvo la ocasión de pedir su opinión sobre la naturaleza de estos vestigios y en su respuesta expresó su total convencimiento de que, a pesar de no haber consultado fuentes documentales, estas ruinas -que él visito en su día- pertenecen a un horno de estas características.

Por otro lado, al pie de la descripción que en la ficha nº 052 hacen de la *"ruina de horno cementero"*, Del Barrio y Zaldúa citan: *"Bibliografía: Urteaga, M. (1992)."* El nombre completo que esconde la "M" es Mª Mercedes (o Mertxe) que pertenece a la directora del *Centro de Estudios o Investigaciones Histórico-Arqueológicas ARKEOLAN* y del *Museo Romano Oiasso* de Irún, y autora también de la *GUÍA HISTÓRICO MONUMENTAL DE GIPUZKOA*, obra, esta última, en la que hace un recorrido por todas las localidades guipuzcoanas reseñando sus particularidades más interesantes[19] Al recalar en Hernani, en el apartado que le dedica al barrio de Fagollaga, la investigadora escribe: *"Un caso interesante en este sector* [el siderúrgico] *es Fagollaga.*

---

15 Ibidem. p. 37 vtº

16 Similitud del horno de Fagollaga con los levantados en las industrias cementeras de la zona de Arrona: los hornos continuos que se levantaron por vez primera en la fábrica llamada *"Nuestra Señora de los Dolores"* estaban *"construídos de mampostería en el exterior con un revestimiento de ladrillos macizos en su interior. En la parte superior tenían una boca de carga y bajo el horno, existía un arco con un orificio para extraer el material calcinado."* Capítulo de Carmelo Urdangarín y José Mª Izaga en *Historia de un barrio joven - Auzo gazte baten... p.96. "Ezkaizto" Arroa-Beheko Auzo Elkartea. Año 2000.*

17 *Inventario de Elementos Patrimoniales Inmuebles Emergentes de Interés Prehistórico, Histórico y Etnográfico, en el Termino Municipal de Hernani. (Gipuzkoa).* Fecha: 15.03.95. Autores: Luis del Barrio y Luis Zaldúa.

18 Hernaniko Udala. Hernaniko mapa. EGILEA: Luis del Barrio - ETNOGINTZA.

19 En la Introducción de la obra su autora señala que esta Guía tiene por objeto *"ofrecer a la sociedad guipuzcoana los datos obtenidos en el Inventario del Patrimonio Histórico-Artístico Inmueble de Gipuzkoa, elaborado entre 1987 y 1989, por la Diputación Foral de Gipuzkoa."*

Se trata de un conjunto integrado por un edificio de arquitectura tradicional (13-35), varios canales y un puente de piedra (13-37) La casa, prácticamente cubierta por la hiedra, fue Fábrica de Cemento." [20]

Por último, los autores de la obra *Arqueología Industrial de Gipuzkoa* reproducen en sus páginas tres fotografías de estas ruinas; la primera reproduce la batería de hornos, la segunda muestra el interior de uno de ellos y la última no lleva pié pues ocupa toda la página y no deja espacio para él. Y en la página anterior se dice que las ruinas son de "*una construcción tronco piramidal en mampuesto con esquinales de sillería. Corresponde a una batería de 3 hornos, con bocas inferiores de descarga en arco rebajado, que presenta adosada una singular estructura de arcadas para soportar la plataforma sobre elevada de carga superior del horno*".[21]

¿En qué se apoyan todos estos expertos para emitir su juicio? Los etnógrafos Del Barrio y Zaldúa, Urteaga y los autores de la obra *Arqueología Industrial de Gipuzkoa*, lo hacen en su dilatada experiencia en investigaciones de restos de este y otros géneros que les permite asegurar sin dudarlo que las ruinas que se comentan son las de un horno cementero de tres bocas. La Investigadora de Historia y Arqueología Urteaga se apoya además de en su experiencia -que le lleva a identificar la imagen exterior de estos restos como representativa de una arquitectura industrial muy moderna y perteneciente al estilo neoclásico-, en la lectura de los documentos que tuvo la oportunidad de examinar en 1987 y que recogen el proceso de instalación de la cementera. Estos papeles se conservan en el Archivo Municipal de Hernani y pudo revisarlos cuando, reuniendo la información necesaria para realizar la *GUÍA* de la Provincia antes citada, visitó los Registros de las distintas localidades guipuzcoanas. Su información es totalmente coincidente con la que se ha podido obtener en los documentos que se han examinado líneas arriba para realizar este trabajo.

20 Urteaga Artigas, Mª Mercedes. *GUÍA HISTÓRICO MONUMENTAL DE GIPUZKOA*. p. 162. Edita el Departamento de Cultura y Turismo de la Diputación Foral de Gipuzkoa y Arkeolan (1992).

21 Maite Ibáñez Gómez, Mª José Torrecilla Gorbea, Marta Zabala Llanos; fotografía Santiago Yaniz Aramendía. *Arqueología Industrial en Gipuzkoa*; Vitoria-Gasteiz: Gobierno Vasco, Consejería de Cultura y Turismo, 1990. p. 207-208. No hubiera conocido la existencia de este libro sin la amabilidad del debatarra José María Izaga que me regaló el didáctico trabajo *Arroa-Behea, historia de un barrio joven* en cuya bibliografía viene incluida. Hay que subrayar que la existencia de las tres bocas de cocido, o tres hornos, que reseñan tanto Del Barrio y Zaldúa como Ibáñez y compañía coinciden con la disposición tomada por los fundadores de la empresa en el momento de su constitución: "*Tres o más hornos necesarios para la buena calcinación de la piedra.*"

CONCLUSIÓN

En los dos números de la revista *Hernani* publicados en 2002 y 2004 se demostró que los veinte mil quintales de Anclas que la Real Fábrica de Anclas entregó a la Armada Real Española a lo largo de cinco años se fabricaron en seis modestos talleres u oficinas cuyo emplazamiento y disposición se muestran en su contenido.[22] Y ahora, apoyándonos en fuentes documentales, se ha demostrado en estas líneas que los vestigios que hoy se yerguen en el pequeño islote de Fagollaga son en realidad las ruinas de un horno cementero que la sociedad *S. Alquizalete y Cía* levantó allí en el año 1903.

De la investigación efectuada se desprende que esta sociedad tenía por objeto la producción de cemento y que en el momento de su constitución preveía construir tres o más hornos. También se conoce que solicita piedra refractaria para revestir el interior de las tres bocas del horno, que arrienda una cantera para abastecerse de la piedra que hay que cocer para obtener el cemento, y dos minas para asegurarse el carbón necesario para esta operación; también se sabe que en 1903 la fábrica está en fase de construcción, que trabaja por vez primera en 1904 -pues aparece incluida en la Contribución Industrial de la Villa de Hernani de 1905- y que en la casilla que describe su actividad se lee: "*id. id* [fábrica de cal hidráulica] *un horno continuo*." Y finalmente tenemos la opinión de Mertxe Urteaga, de Luis Del Barrio y de Luis Zaldúa, y de los autores de la obra *Arqueología Industrial de Gipuzkoa* -expertos todos ellos en la investigación arqueológica- que en base a su estructura interna y a su estilo arquitectónico dictaminan que los restos de Fagollaga pertenecen a un horno cementero. Así que todo lo expuesto hasta ahora conduce a defender esta posición. ■



22 En 1750 la Villa de Hernani y los propietarios de las ferrerías Ereñozu y Picoaga firmaron con el Rey un Asiento para proporcionarle veinte quintales de anclas de distintos pesos y tamaños durante cuatro años, comprometiéndose a entregarle cinco mil en cada uno de ellos. Dificultades varias convirtieron en cinco los cuatro años estimados en primera instancia.

Joxe Mari Aizega

Jon Odriozola



Joxe Mari, ezkerretik hasita lehena da.

Txantxangorri elkartean ateratako argazkia da. 13 urte inguru izango nituen. Joxe Mari Gabiria izan genuen bertsolaritzako irakasle. Patata tortilla pare baten buelta biltzen ginen bertsotan aritzeko.

Egun, harrigarria iruditzen zait bertsotan ibili nintzela gogoratzea; ausardia puntu bat izan nuela uste dut. 1984an, adibidez, txikien mailako bapateko Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finalera iritsi nintzen; gogoan dut Karmelo Balda pilotalekuko 'beldur eszenikoa'. Egun, bertsozale xume-xumea naiz.

Kadete garaiko argazkia da; 16 bat urte izango nituen (1986). *Gurelesa GAC taldean urtebete igaro nuen. Jubeniletan bi. Orduko oso oroitzapen onak ditut; talde giroa... Hainbat pertsonek –Joxe Dorronsorok, Iñigo Larrañagak...– luzatu zidaten laguntza. Lasterketetan, berriz, aldapak azaltzen zirenean oinak minberatu egiten zitzaizkidan. Ordekako txirrindularia nintzen. Unibertsitateko ikasketak hasi orduko aparkatu nuen txirringa. Ziklismoak, gauza asko irakatsi zizkidan. Adibidez, irabazten ez bada, ez dela ezer ere gertatzen.*



Joxe Mari, eskubitik laugarrena.

Bere abizenarekin, askok, ez dute asmatzen. Batzuk, adibidez, Aizeaga deitzen diote. *"Aizega abizenaren jatorria nafarra da"* argitzen du. *"Doneztebetik gorantz joanda dagoen Saldias (Nafarroako iparraldea) herrikoa. Nire aiton-amonak —aitaren gurasoak— handik etorri ziren Hernanira"*.

Herri edo inguruko txoko bat aukeratu behar izanez gero, Adarra mendiak duen "irudi esanguratsuak" asko erakartzen du Mondragon Unibertsitateko errektoreordea. *"Hernanitik mendiko perspektiba guztia ikustea begiko dut. Horren lekuko, hainbat urtetan, urteberri egunean mendi puntara igo eta salda beroa edan izana"* dio Joxe Mari Aizegak.

Bere aisialdian txistua jotzen du tarteka. *"**Txobito** zenarekin ikasi nuen. Orain, noizean behin hautsa kentzen diot: Gabonetan..."*. Hernanin urteak eman ondoren, egun, Orion bizi da Joxe Mari Aizega. *"Bi herrietako herritarrak hurbilak eta xumeak dira"* dio. *"Gustura bizi nintzen Hernanin, eta primeran bizi naiz hernaniar bezala Orion"*.

Mondragon Unibertsitateko errektoreordea: *"Urte batzuk barru ohartuko gara Bologna prozesua beharrezkoa zela unibertsitatean"*

Bolonian (Italia) egona al zara?
Ez, baina badut bere berri.

Bai hiria, eta baita hautsak harrotzen ari den Bolognako prozesuaren inguruan, ezta?
Bai. Zalaparta dezente dago Bologna prozesuaren harian baina edozein eraldaketak berarekin dakarren zerbait da. Gauza asko aldatu behar izaten direnean alde eta aurkako jokaerak ohikoak dira. Urte batzuk barru ohartuko gara Bologna prozesua beharrezkoa zela unibertsitatean.

Zeresan handia ematen ari da.
Denetik dago. Ikasketa unibertsitarioek lan munduari begira antolatuak egotea, positiboa eta funtsezkoa dela uste dut. Hots, ikasketek irteera profesionala izatea.

Unibertsitatea enpresen morroi bihurtuko dela diote zenbaitzuk.
Helburua ez da hori ezta gutxiago ere. Arazoak arazo, Bolognaren xede nagusia, unibertsitatea modernizatzea da. Etorkizuneko unibertsitateak ezin du gure garaikoak bezala izaten jarraitu.

Lehen, irakasle bat baino gehiagok, bere ikasleen izenak zein ziren jakin gabe igaro zezaketen ikasturtea. Ikasgelan errosarioa bota eta azterketak egiten zituzten. Klase magistraletan oinarritutako metodologia ezagutu dugu. Beste motibazio eta konpromiso bat lortu behar dugu irakasle eta ikasleen artean.

Eta nork ordainduko du prozesu hau guztia?
Matrikulen afera dela eta, galdera bat dabilkit buruan bueltaka. Hiritar guztiok finantzatu behar al dugu ikasle guztien matrikula? Edota errenten arabera? Alegia, ikasle baten gurasoek ahalmena izanda, hiritar guztiok diruz lagundu behar al diogu? Alor askotan gauza dezente egiteke dago oraindik.

Bolognarekin hori guztiarekin amaituko al da?
Hori da helburua. Adibidez, zer da azterketa bat? Ariketa erabat aleatorioa. Neurtzen duen gauza bakarra, ikaslearen oroimen ahalmena da. Eredu klasikoa erabat zaharkitua dago. Beraz, irakaslearen lana, inplikazioa... eraldatu egin behar dugu. Hori da Bolognako prozesuaren mezu nagusia.

Ikasleak serio hartzen baditu bere ikasketa unibertsitarioak, ez du inolako zentzurik goiza kafetegian kartetan jokatzen igarotzea.

Eta noski, gero, azterketa batean bere etorkizun guztia jokatzea.

Prozesua 1999an jaio zen eta 2015era arte luzatuko da. 16 urterekin, ia adin-nagusiko, Bolognako prozesua gai izango al da erronka berriei aurre egiteko?
Mondragon Unibertsitatean eskaintzen ari garen gradu berrietan dagoeneko ez dago azken azterketarik, jarraipen etengabea baizik. Ingeniaritzan, garai batean, lehen ikasturtea gainditzen zutenen kopurua %30ekoa zen. Aurten, %70ak lortu du. Zergatik? Ikasleak lan gehiago egin eta konprometituagoak daudelako. Ikasle eta irakasleek *feedback*a dutelako. Horrek ikaslea ere motibatzen laguntzen du. Baita emaitza hobeak lortzeko ere.





Mondragon Unibertsitateko Zuzendaritza Batzordea

Eredu zaharrarekin arazoak izan zituen ingeniaritza ikasle baten ama batek, zera esan zidan behin: "*Nire semeak norbaitek bere gainean egotea zen behar zuena. Hau da, hilabetean behin 'hori hobetu behar duzu' edota 'ondo zoaz ' esatea* ". Uste osoa dut, tutoretzen eskutik eta ikasleek euren artean lan-taldetan antolatuz, emaitza hobeak lortu ditzaketela.

Zer botatzen duzu faltan zure ikasle garaitik?

Oso kritiko nintzen apunteak hartu eta azterketak era hartan gainditzearekin. Ez zen batere motibagarria. Halere, orduko emozio eta askatasuna botatzen ditut faltan. Etorkizunari begira, unibertsitateak hoberantz egingo du. Hori bultzatzen aritzeko aukera izatea oso atsegina da.

Nota onak ateratzen zenituen ikasle zinen. Asko ikasten zuena edota jasotakoa barneratzen zekiena?

Bietatik. Ziur aski, hasieran asko ikasitakoa, eta gero, azterketak nola gainditu ikasi zuena. Banuen ikasteko erraztasuna, hau da, memorizatu, ulertu eta sintetizatzekoa.

Bi karrera egin zenituen; Zuzenbidea eta Enpresa Zientziak.

Enpresa Zientziekin hasi eta bigarren urterako biak tartekatzen hasi nintzen. Antolatu eta aurrera atera nituen.

Egun Mondragon Unibertsitateko errektoreordea zara. Iñaxio Oliveriren eskutik sartu zinen bertan.

Ikasketak bukatu, doktoretza egin eta EHUn bost urtez aritu nintzen Zuzenbide fakultatean: Finantza Zuzenbideko irakasle lanetan. Hausnarketa bat egin ostean, etorkizunean nire burua ez nuela funtzionario sisteman ikusten ondorioztatu nuen. Eta Mondragon Unibertsitatetik deia jaso ostean, hilabete batzuk irakasle lanetan aritu ondoren, errektoreorde postua eskaini orduko Oliverirekin hasi nintzen lanean.

Erronka berri hura 'Bolonia pertsonal' moduko bat izan al zen?

Ilusioz beteriko apustua, bai. Desafio garrantzitsua baina aldi berean, antolaketa kooperatiboak hurbiltasuna sustatzen duenez, pertsonen arteko hartu-emana oso zuzena izatea ahalbidetzen du.

Eta zein da errektoreorde baten egitekoa?

Hiru ardatz ditu. Batetik, unibertsitate osoa garatzeko hartzen diren proiektu estrategikoak bultzatzea: epe luzekoak. Bestetik, fakultate ezberdinen arteko koordinazio dezente. Eta erlazio instituzionalak ere, mordoska bat.

Irakaskuntzara itzultzeko asmorik?

Batzuetan, bai. Halere, kudeaketan buru-belarri murgildurik gustura nabil.

Kudeatu eta irakatsi ez ezik, zenbait ikerkuntza ere argitaratu dituzu.

Irakasle garaian dezente aritu nintzen ikertzen. Zuzenbide arloko gaiak batik bat; Kontzertu Ekonomikoa...

Zer ezaugarri ditu Mendeberri irakaskuntza ereduak?

Unibertsitatea eraldatzeko gure proiektu



Basque Culinary Center Fundazioko lehenengo prentsa-aurrekoa

propioa da *Mendeberri*. Galderak egin genizkion gure buruari. Zer behar du gizarteak etorkizunean? Zer titulu mota? Zer gaitasun? Galderak erantzun ahala gure eredu pedagogikoren zutabeak jarri eta aplikatzen hasi ginen. Ondorioz, Euskal Herrian gradu berriak ezartzen lehena Mondragon Unibertsitatea izan da. Taldeetan oinarritutako metodologia aktiboen ezarpena, eleaniztasuna... bultzatzen dugu.

Hau da, ikasten eta irakasten ikasi.

Bai. Arazo berriei behar den bezala erantzuten. Ikasle batek edota edozein pertsonek errealitatean topatuko duen arazo bat, unibertsitatera ekarri eta irtenbideak aurkitzen ahalegintzen gara. Ez du zerikusirik orain arte ezagutu dugun unibertsitatearekin.

Nola sortu daiteke lider bat?

Badago eztabaida bat, liderra jaio edota egiten ote den. Guk gure ikasle-taldeei, irakasleen laguntzarekin, -dinamismoaren eskutik...- arazoak gainditzeko bostekoa luzatzen diegu. Entrenamendu kontua da. Lider mota ezberdinak daude; bidea irekitzen dutenak, jendea integratzen dakienak...

Bolognarekin ikasketak eta lana tartekatzea posible izango al da?

Lanaren arabera. Oinarrizko maila batean, ikasketekin zerikusia duen lana baldin bada, Mondragon Unibertsitateak kreditu batzuen bitartez onartu egingo du. Hori ere ikastea baita. Hainbat gaitasun eskuratuko baititu ikasleak.

Eta klasera asistentzia, nahitaezkoa?

Unibertsitate bakoitzak bere arauak jarriko ditu baina ez dut uste asistentzia behar-beharrezkoa izango denik. Ikaste-prozesuan ardura eta parte-hartzea zuzenagoa izango denez, ikaslea ez bada jardueretan murgiltzen, gauza asko utziko ditu bidean. Hau da, hankamotz geratzeko arriskua izango du.

Beraz, kafetegietako mus txapelketak desagertzear daude?

(Barrez) Txapelketen iraupenaren arabera. Bazkalostean, kafetxo bat hartuz, ordubeteko partida batek ez dio inori minik egiten. Baina lehia goiz osokoa bada...

Mondragon Unibertsitateak, 2011n, Miramonen, Gastronomia Zientzien fakultatea (Basque Culinary Center) jarriko du martxan. Hernanin sukaldari onak ditugu. Lekurik izango al dute?

Ederki poztuko nintzateke hala balitz. Gastronomia fakultatea Hernaniko mugetan eraikiko da gainera. Euskal Herriak duen kultura gastronomikoa izango du ardatz, eta noski, sona ezberdineko sukaldariek hartuko dute parte.

Eta zu pertza artean zer moduz?

Nahiko txukun. Zalea naiz. Maila ertain batean arrain zein haragiarekin moldatzen naiz. Gustuko dut zartagin artean ibiltzea; ilunabar eta asteburuetan afaria prestatzea laket dut.

Sagardotegien filosofiaren defendatzailea al zara?

Bai, noski. Aitak, sagardoa egiten duenez ez dut oso urrutira bila joan beharrik izaten. ■

Peña Otaño,

50. urteurrena

Esku artean duzuen hau paper asko begiratu eta, batzuk bertan eta beste batzuk urrutiago, datu asko arakatsearen emaitza da. *Oinez egiten da bidea* **esan omen zuen poetak eta Peñaren kasuan asmatu egin zuen. Ez da gertatutako guztia azaltzen, ezta Peña orain dena izateko izen askok egin duten lana eta txikitasunak ere.**

Lagundu digutenak gogoratu nahian Josetxo Santana, José Luis González eta Alfredo Azkueren hitzak eskertu behar ditugu, Peña Otañoren aurren pausotan murgildu baikintuzten. Eta Gipuzkoako Txirrindulari Elkargo, Joxan Aizpurua eta Manolo García Sarasolari ere bai, dutena utzi eta konpontzeko ederki etorri zaigulako.

Badakigu ez dugula hitz egin zerbait dakiten guztiekin, baina ezin izan dugu. Oinarrizkoak bete izana espero dugu. Xehetasunek liburu baterako eman dezakete, eta ez litzateke gaizki egongo, izan ere kontu-pila oso polita da.

Atea irekita dago.

Peña Otañoren bidea

1959-09-05 Peña Otañoren Batzar Orokorra ospatu zen eta bazkide guztiak azaldu ziren. Aho batez onartu zuten bere sorrera. Bere lehen helbidea Oarso, 2 – 1. B izan zen eta lehen lehendakaria, Batzar honetan hautatua, Josetxo Santana. Horren guztiaren berri hauei eman zitzaien: Hernaniko alkateari, Udal-Kirol delegatuari eta Elur-Txoriko lehendakariari, bere laguntza eskertuz.
Ikur bat ere onartu zen, Hernaniko ezkutua bertan sartzekotan, alkatearekin hitz egin arte gelditu baziren ere.

1959-12-13 Luis Otañori omenezko afari bat egitea onartu zen, Elur-Txoriko lehendakaria, Elizegi jauna, eta txirrindulari batzuk gonbidatu gisa etorriko zirela.

1960-01-13 Elur-Txoriko lehendakari aukeratu berriari, Joanito Aierberi, Peñaren bilerak Elur-Txorin egitea eskatzea onartu zen.

1960-09-16 Batzar Orokorra. Karting taldeak, Josetxo García Sarasolak sinatuta, Peñan sartzeko egin zuen eskaera-idatzia irakurri zen. Aho batez onartu zen, garbi utzita kirol berri hau atal bat izango zela eta besteetan bezala Zuzendaritzak aginduko zuela. Bazkide-tokia bilatzea onartu zen.

1960-12-01 Ikur txuri, gorri, berdea egin nahi, baina koloreak omen ziren arazo, eta ziurtagiri bat lortu behar izan zen Gobernu Zibiletik. Hola egin zituen.

1960-12-08 Ezohiko Batzarra. 1.000 pezetako 100 bono atera ziren bazkide-tokia erosteko.

1960-12-23 Luis Otañoren omenez afari bat egitea onartu zen. Abenduaren 30ean egingo da Elur-Txorin eta urrezko ikurra emango zaio. Emango den lehenbizikoa izango da.

1961-03-09 Gipuzkoako Aurrezki Kutxari 20 urtetan ordaintzeko mailegua eskatzea onartu zen. Oarso, 2ko bazkide-tokia erosteko izango da.

1961-07-24 Ezohiko Batzarra. Peña Otañoren "atseginezkoa" onartu zen aho batez.

1962-03-30 Apirilaren 27an inauguratuko da bazkide-tokia. Zintzotasuna zinegelan bi film emango dira eta Migel Etxebarren traumatologoak txirrindularitzari buruz hitz egingo du. 28an bazkide-tokiko giltzak emango zaizkie bazkideei eta 29an inaugurazio-bazkaria egingo da.

1965-12-02 Ezohiko Batzarra. Estatutuak aldatzea proposatu zen egungo Lege, dekretu eta ordenetara egokitzearren. Aho batez onartu zen.

1966-03-16 JOCCek bere tokia ez duenez, bere artxiboa Peña Otañon egotea onartu zen.

1966-08-03 Munduko Futbol txapelketa izan dela-eta telebista erostea onartu zen. Espainiako txapelketa irabazi duela-eta omenezko afari bat egingo zaio Luis Otañori.

1967-09-30 Irailaren 30ean ezkondu aurreko agur-afaria egin zaio Luis Otañori.

1968-01-14 Batzar Orokorra. JOCCa hiru entitatek osatzen dute, baina batek ekonomikoki ez du erantzuten. Txirrin-dularitza Peña Otañon sartuta dagoenez, eta berez Peña Otañorena denez, Peña Otañok JOCC har ote lezake bere kargu?

1968-10-18 Peña Otaño handitu nahian, aldameneko etxebizitzaz galdetu da. Gestioa ez da gauzatu.

1971-07-04 Ohorezko lehendakari izendatzeaz gain, Leandro Irazustari urrezko ikurra ematea onartu zen. Bere argazkia Peña Otañon jarriko da.

1975-07-05 Ezohiko Batzarra. Zuzendaritzari baimena eman zitzaion Lizeaga auzoko lokala erosteko seinalea emateko.

1977-02-20 Batzar Orokorra. Entitatearen izena euskaraz jartzea erabaki zen, sarreran eta inprimakietan azal dadin.

1979-05-07 Sanjoanetan txaranga aterako den begiratzea onartu zen.

1982-08-03 Urriaren 3an egingo den *Kilometroak 82*rekin lankidetzan aritzea onartu zen, materiala, zerbitzu eta laguntzaileak jarrita.

1983-03-27 Ezohiko Batzarra. Estatutuak puntuz puntu irakurri eta onartu egin ziren eta iragarki-taulan jartzea erabaki.

1983-08-02 Bere laguntza eskertzeko Langile Ikastolak *Kilometroak 82*ko kartel bat oparitu dio Peña Otañori. Koadro batean sartu eta bazkideen aurrean jartzea erabakitzen da.

1984-01-09 Peñaren 25. urteurrena ospatze aldera, herrigunean txirrindularitza proba bat egitea eta lagun arteko bazkari bat egitea erabaki zen.

1984-07-10 Peñako lehendakarien argazkien koadro bat jartzea erabaki zen.

1985-10-01 Garaikurrak ikusgai jartzeko bitrina bat jartzea erabaki zen.

1991-02-24 Lehen aldiz lehendakaria taldekako sistema erabiliz aukeratu zen.

1993-02-28 Ezohiko Batzarra. Estatutuak 3/1988 Legeari egokitu zitzaizkion. Puntuz puntu eta kapituluz kapitulu irakurri ziren, eta xehetasun guztiak argitu ondoren, onartu egin ziren.

1999-03-14 Ohiko Batzarra. 14 urtetik gorako emakumeak sartzea baimendu zen, egun edo ordu mugarik gabe, baina haurrak ez.

2002-02-24 Ezohiko Batzarra. Indarrean dauden erabakiak eguneratzen dituen barne araudia.

2002-09-26. Kontabilitatea informatizatzeko atze-aurreak egiten hastea erabaki zen.

Argazki bilduma



Bestek beste: José Luis Gutiérrez "Guti", Alfredo Azkue, Nazario Zulaika, Luis Fernández, Francisco Oruezabala eta Agustín Mendizábal.



Mahaiburuan Josetxo Santana, Prudencio Aierra, Luis Otaño, Inazio Setien eta Josetxo Garcia Sarasola.



Besteak beste, zutik: Fermin Cuesta, Santi Zubeldia, José Mari Goñi, Jesús Carrión, Manolo Adarraga, Txomin Perurena, Leandro Lujanbio, Ramón Mendiburu, Zuza (aita), José Mari Armendariz eta José Mari Zubillaga; makurtuta: Patxi Ugalde, José Antonio Apezetxea eta Javier Alberdi "Pastelero".



Peña Otaño egunean haur – jolasak, oraindik Oarso kalean geunden.



Nicanor Irazusta, Leandro Irazusta, Florentino Monfort eta Josetxo Santana.



Alfredo Azkue eta Prudencio Aierra.




Karlos Argiñano eta Juan Mari Arzak 2001eko urtarrilean sukaldea jarri berria zenean.



Eugenio Belategi, Joxemiel Azurmendi eta Anjel Garmendia.

Mende erdi honetan hauek izan dira lehendakariak.



1959 Josetxo Santana
1960 Josetxo Santana
1962 Inazio Setien
1964 José García Sarasola
1965 Prudencio Aierra
1966 Prudencio Aierra
1968 Francisco Gorospe
1969 Francisco Oruezabala
1970 Francisco Oruezabala
1972 Luis Antonio Rekondo
1973 José Ángel Landazuri
1974 Francisco Oruezabala
1975 Inazio Aristeta
1978 José Luis Gutiérrez
1979 Prudencio Aierra
1980 José Mari Soto
1981 José Mari Soto
1982 José Dorronsoro
1983 José Dorronsoro
1984 Francisco Iriondo
1986 Francisco Iriondo
1990 José Dorronsoro
1992 Juan José Montero
1993 Juan José Montero
1994 José Mari Odriozola
1996 José Dorronsoro
1998 Inaki Casado
2000 Joxemiel Azurmendi
2002 José Mari Odriozola
2004 Pedro Galardi
2006 Pedro Ugalde
2008 Joxemiel Azurmendi

Eta, beste aldetik, ohorezko bazkideak *Lucio Yaniz Arrieta, José A. Egaña Rodríguez, P. Jesús Bilbao Moya, José M. Olano Zubiri eta Atanasio Irurtia* dira.

Ekintzak

MUSA Pena Otañok 1962tik aurrera urtero egiten du bere mus txapelketa eta 1986tik Elkarte artekoan hartzen du parte. 1998an, hola egokituta, antolatu egin zuen eta txapeldunorde gelditu. 2009an ere antolatzea dagokio. 1991n EGIN egunkariko finala antolatu zuen.

TXARANGA 1979an Sanjoanetan txaranga atera zuen.



EUSKARA 1982an, urriaren 5ean, lan egin zuen *Kilometroak 82*ren alde. Prontxio Aierrak asmatu omen zuen ibilbidea. Langile Ikastolak eskerronez hormirudia eman zion Peña Otañori. BATEGINIKeko antolatzaileek euskararen aldeko laguntza eskatu zuten eta elkarte bakoitzean herri afari bat egin eta ateratako dirua antolatzaileei ematea erabaki zen. 1990ean AEKri diru-laguntza eman zitzaion.

DANTZA 2002an bazkari bat antolatu zen Dantzari Egunaren alde.

SAGARDOA 2002an, urriaren 11n, Peña Otañoko lehen sagardo lehiaketa antolatu zen.

JOCC - Junta Organizadora de Competiciones Ciclistas

Herrian txirrindularitza sustatu behar zenez eta jendea lanerako izanik, C.D. Hernani, Peña Otaño eta O.S. de Educación y Descansoko ordezkariak bildu ziren Junta Organizadora de Competiciones Ciclistas (JOCC) sortzeko, zeina 1959ko azaroaren 20an legeztatu zuten.

Sorrerako akta hauek sinatu zuten: C.D. Hernanitik Tiburtzio Agirre lehendakariak, Peña Otañotik Josetxo Santana lehendakariak eta Educación y Descansotik Nicanor Irazusta ordezkariak.

Erabaki zuten, C.D. Hernani herrian errotuena zela eta, bere ordezkaria JOCCeko lehendakaria izatea, lehendakariordea Peña Otañokoa izatea eta Idazkaritza-Diruzaintza Educación y Descansoren arduran uztea. Beraz, JOCC lanean hasi zen Leandro Irazusta lehendakari, Josetxo Santana lehendakariorde eta Nicanor Irazusta idazkari-diruzain zituela.

Paper fidagarririk ez dagoenez, nahiago izan dugu izenik ez azaldu, inor ez ahazteko noski, nahiz eta ondo dakigun aurreneko urtetan Peña Otaño izan zela JOCCen gorputz eta arima.


Erabaki zen entitate bakoitzak JOCCi kuota moduan urtero 2.000 pezeta ematea, hasiera hartan bere lana esku aske egin zezan. 1963an 3.000ra igo zuten, 1965ean 5.000ra eta 1967an 7.000ra.

Dirudienez, 1965 eta 1966an ez zuten dirurik jarri. Izan ere, Donostian antolatu zen Munduko Txapelketan nahiko diru bildu zenez, JOCCek diruz ondotxo hornituta egin zuen bere lana. Gastuen gehitzeak, txirrindulari ekipoa mantentzea eta lasterketak antolatzea, kuotaren gehitzea ekarri zuen.

Izan ere, lasterketa batzuk Gipuzkoako egutegian sartuta zeuden eta beste batzuk, Hernaniko jendeak lan asko eta ondo egin zuenez, Hernanira ekarri ziren. Orduko JOCC hark Usurbil, Ergobia, Astigarraga, Andoain eta Donostian ere antolatu zituen lasterketak.

Honen adibide bat Tolosan 1981an antolatu zen Ziklo-Krosseko Munduko txapelketan gertatu zen.

Prudencio Aierrak José Luis Gonzalezen bitartez 500.000 pezeta eskatu zizkion Euskadiko Kutxari. Eta, nahiz eta José Luisi erruzkeria iruditu, Euskadiko Kutxak eman egin zuen. Holaxe egin da lan Hernanin.



LASTERKETAK[1]

Hauek dira JOCCek antolatu dituen lasterketa batzuk:

LASTERKETA	URTEAK	ZENBAT ALDIZ
San Juan	1960-2004	39
Arañoko Igoera	1968-1990	23
Gipuzkoako Txapelketa erlojupekoa "Serváis-en Oroimenezkoa"	1960-1974	15
Gipuzkoako erlojupeko Txapelketa	1969-1993	4
Hernaniko Klasikoa	1988-2001	3
Biarritz - Hernani	1985-1986	2
Espainiako Txapelketa (gazteen mailakoa)	1960	2
Ziklo-kroseko Gipuzkoako Txapelketa	1964-1986	2
Bordelais - Donostia Tourra (irteera eta helmuga)	1959-1968	1
Espainiako afizionatu Txapelketa	1964	1
Espainiako afizionatu Txapelketa (erlojupekoa federazioka)	1959-1968	1
Espainiako afizionatu Txapelketa (taldeka)	1970	1
Espainiako Bira (Hernani-Tolosa erlojupekoa)	1968	1
Euskadiko Txapelketa	1999	1
Euskal Herriko 38. Itzulia	1998	1
Euskal-Nafar Bira (gazteen mailakoa etapa bat)	1960	1
Independienteen Espainiako Txapelketa	1959-1968	1
Kantauriko III. Jokoak	1966	1
Lasarteko Zirkuitoa	1990	1
Munduko Txapelketa (Donostia)	1965	1
Ziklo-kroseko Euskal-Nafar Txapelketa	1960	1

1 Batzuetan paperen faltak eta beste batzuetan datu faltak, erabat baldintzatu dute gure lana. Lasterketak mailarik gabe daude. Hau da usteak ustel bihurtzea.

Kart-ak

Hernanin 1959an kirol berri batean hasi ziren, kartinean. Taldea 1960ko irailaren 16an Peña Otañon sartu zen. Ezagunenak Roberto Usabiaga, Josetxo eta Manolo García Sarasola, Karmelo Ogando, Simón Garin, José Antonio Cuesta, Juan Urruzola, Javier Bengoetxea, Isidro Garmendia eta Migel Capa ziren.

1965ean elkartu zitzaizkien Jean eta Paulette Lavie, Sousolons, Sens, Mesprede eta Napias eta emaztea, batzuk Frantziako ekipokoak ziren.



Josetxo García Sarasola

Bartzelona, Madril, Santander, Zaragoza, Gijón, Logroño eta Donostian lehiatu ziren. Eta Hernanin ere bai, noski. Bolido hobeak izanik eta bere maila ikusita, frantsesak izaten ziren faborito. Dena dela, hernaniarrek ehun trofeo baino gehiago lortu zituzten. Hernanin ibili ziren estatubatuar bat, hiru Kataluniako, hiru madrildar, bi Santanderko, bi asturiar eta nafar bat.

Bi eratan lehiatzen ziren: lerroan, denak batera, eta amerikar eran, bira bakoitzeko azkenak kanpoan gelditzen zirela. 25 aldiz betetzen zuten zirkuitu hau: Juan de Urbietan, Biteri parean, abiatu, Izpizuan gora jarraitu, Zintzotasuna Zinean eskubira hartu eta Elkanon behera Juan de Urbietan amaitu.

Lehiaketak euskal-nafar trofeorako balio zuen. Kronometrajea Gipuzkoako Federazioak egiten zuen eta kontrolatzaileak Gipuzkoako Real Automóvil Clubek jartzen zituen. Antolaketa, xehetasun guztiak barne, eta asko ziren, Peña Otañoren ardura zen. Babesa, ia dena, Udalarena, lehiaketa jai-programan sartuta zegoen eta.

Hola izan zen 1965etik 1970era. Azken honek Espainiako txapelketarako balio izan zuen. Hala ere, 1961eko urriaren 1ean antolatu zen aurrenekoa. 1967ko Gabon egunean antolatu zen Xoxokako igoera eta, eguraldi txarra egin arren, arrakastatsua gertatu zen. Aranora ere igo omen ziren, baina ez dugu aztarnarik aurkitu.

Kart-ak mugatik pasatzea zaila zen eta behin baino gehiagotan konpondu zuten alkatearen bitartez eta dirua aurreratuta. Eta kart-ak bere etxe aldera itzultzen zituztenean, dirua jaso.

1968an saiatu ziren umeentzako kart lehiaketa antolatzen, baina mila oztopogatik ezin izan zuten.

Peña Otañoko akta batean, 1969ko maiatzaren 26koan hain zuzen, lana nola egiten zuten oso ondo adierazten da: "*Lehiaketa bikaina gerta dadin, ez utzi ezertxo ere zehaztu gabe*".



Besteak beste, Patricio Rodríguez, Javier Bengoetxea, "Piru" Iparragirre, Simón Garin, Isidro Garmendia, Carmelo Ogando, Manolo García Sarasola eta Roberto Usabiaga



Patricio Rodríguez, Josetxo eta Manolo García Sarasola.

Aitorpenak

1959-12-13	Luis Otanori afari bat eskaintzea erabaki da; Elur-Txoriko lehendakaria, Elizegi jauna, eta txirrindulari batzuk gonbidatuta.
1960-12-23	1961eko urtarrilaren 10ean Elur-Txorin Luis Otanori afari bat eskaintzea erabaki da. Lehen urrezko domina ezarriko zaio.
1962-03-30	Jesús Maidagan, José Garaiar, Francisco Oruezabala eta Marcos Estefanori zilarrezko domina ematea erabaki da.
1962-05-18	Emiliano García eta Aurelio Hijarrubiari zilarrezko domina ematea erabaki da.
1962-08-17	Pena Otañoren egoitza inauguratu zenean musu truk egindako lanagatik Migel Etxebarren sendagileari zilarrezko domina ematea erabaki da.
1966-08-03	Espainiako Txapelketa irabazi duela eta Luis Otanori afari-omenaldi bat egingo zaio.
1966-09-07	Dionisio Mujika, José Mari Amasene eta Santi Amaseneri zilarrezko domina ematea erabaki da. Luis Otanok Espainiako Txapeldunaren trofeoa Peña Otañori eskaini dio.
1967-01-09	Prontxio Aierrari urrezko domina ematea erabaki da.
1969-01-31	Pedro Jesús Bilbaori zilarrezko domina ematea erabaki da.
1971-07-04	Leandro Irazustari urrezko domina eman eta ohorezko lehendakari izendatzea erabaki da. Bere argazkia Peña Otañon jarriko da.
1975-02-02	Francisco Oruezabalari urrezko domina eta Alberto Ruizi zilarrezkoa ematea erabaki da.
1976-09-03	Egindako lanak eta obrak zuzentzeagatik Anjel Azkue bazkide egitea erabaki da.
1977-02-20	Zuzendaritzari zilarrezko domina ematea erabaki da.
1979-05-07	Pedro Jesús Bilbaori urrezko domina ematea erabaki da.
1979-12-10	Ladis Egañari afari-omenaldia, plaka bat ematea eta ohorezko bazkide egitea erabaki da.
1984-01-09	Josetxo Santana eta José Luis González bazkide fundatzaileak eta Elur-Txori omenduko dituzte plaka baten bitartez, bere lankidetza eskertuz.
1992-02-23	Alfredo Azkueri urrezko domina ematea erabaki da.
2001-02-18	Patxi Iriondori plaka bat eman zaio bere lana eskertuz.

Luis Otañoren txirrindularitza historiala

Peña Otañoren berrogeita hamargarren urteurrena ospatzen ari garen honetan bidezkoa jo dugu Luis Otañoren historiala plazaratzea. Errenterian jaio zen 1934ko urtarrilaren 25ean eta profesional gisa aritu zen 1956 eta 1968 artean. Laburtuta hauxe da bera palmaresa:

URTEA	TALDEA	LASTERKETAK
1956		Espainiako Txapelketan (Gipuzkoarekin) parte hartu zuen; 11. postua lortu zuen.
1957	**REAL UNION PALMERA**	Legazpian lehenengo postua lortu zuen. Bigarrena, Zumarragan; eta hirugarrena, Antzuolan. Parte hartu zuen: Puenteseko Zirkuituan, Volta a Catanunyan, Eibarreko Bizikletan, Ordizian, Espainiako Txapelketan (Gipuzkoarekin), Lizarran eta Udaberriko Sari Nagusian. ZIKLO-KROSean Espainiako Txapelketan 4. postua lortu zuen, eta Mundukoan 25.a.
1958	**BEASAIN CAOBANIA**	Ondarroan lehenengo postua lortu zuen. Espainiako Biran: bigarrena, 12. etapan eta hirugarrena 14.ean. Parte hartu zuen ere Espainiako Biran (5.a egin zuen), Eibarreko Bizikletan (6.a), Espainiako Mendi Txapelketan eta Frantziako Tourrean.

URTEA	TALDEA	LASTERKETAK
1959	**PEUGEOT**	Hirugarren postua lortu zuen Espainiako Birako 14. etapan (erlojupekoa). Parte hartu zuen: Andaluziako Bira, Getxo, Volta a Catalunya, Espainiako Txapelketa (Gipuzkoarekin), Eibarreko Bizikleta, Espainiako Txapelketa (erlojupekoa) eta Frantziako Tourrean.
1960	**ST. RAPHAEL GEMINIANI**	Anvers-en Hiru Egunetan parte hartu zuen eta 1. etapa irabazi zuen; baita Dauphiné Liberéko 4. etapa. Bigarren postua lortu zuen Eibarreko Bizikletako 5. etapan; hirugarrena Dunquerqueko Lau Egunetako 3. etapan eta Paris-Tourseko etapa batean. Parte hartu zuen ere: Tour de Sud-Est, Espainiako Txapelketa (erlojupekoa), Nazioen Sari Nagusia, Eibarreko Bizikleta, Milán-San Remo, Frantziako Tourra, Lieja-Bastogne-Lieja eta Giro de Lombardia probetan.
1961	**ST. RAPHAEL GEMINIANI**	Espainiako Birako 10. etapan eta Circuit de la Aquitaineko 4.ean lehenengo postu lortu zuen. Eta hirugarrena Eibarreko Bizikletako 3. etapan eta sailkapen nagusian (erregularitatea ere irabazi zuen). Parte hartu zuen: Niza, Espainiako Bira, Ronde Mont D'Auverne, Frantziako Tourra, Lieja-Bastogne-Lieja, Midi Libre eta Paris-Bruselas probetan.
1962	**MAGNAT PALOMA**	Espainiako 41. Txapelketa erlojupeko sektorean lehena geratu zen, baita Espainiako Txapelketan ere. Espainiako 17. Txapelketa (Gipuzkoarekin) bigarren postua lortu zuen baita Ordizian ere. Espainiako Txapelketan (lerroko sektorean) hirugarrena lortu zuen... Parte hartu zuen: Suitzako Bira, Dunquerqueko Lau Egunak, Munduko Txapelketa, Frantziako Tourra, Dauphine Liberé, Midi Libre eta Paris-Bruselas lasterketetan.
1963	**MAGNAT PALOMA**	Midi Libreko 1. etapan eta Espainiako 19. Txapelketan (Gipuzkoarekin) lehenengo postua lortu zuen. Bigarrena, Dunquerqueko Lau Egunetako 3. etapan eta hirugarrena Midi Libreko 4.ean. Volta a Catalunya, Milán-San Remo, Tour du Sud-Est, Frantziako Tourra, Paris-Niza, Paris-Tours, Paris-Roubaix, Lieja-Bastogne-Lieja eta Lombardiako Giroan parte hartu zuen.
1964	**FERRYS**	Lehenengo postua egin zuen Iruñako Zirkuituan eta Espainiako Birako 9. etapan (sailkapen nagusian 2. egin zuen). Bigarren postua lortu zuen ere Ordiziako Sarian eta Espainiako 20. Txapelketan (Gipuzkoarekin). Hainbat hirugarren eta laugarren postu lortu ere egin zuen: Eibarreko Bizikletako 2. etapan, Espainiako Txapelketan, Frantziako Tourreko 14. etapan,... parte hartu zuen ere Munduko Txapelketan.
1965	**FERRYS**	Lehenengo postua lortu zuen Eibarreko Bizikletako 2. etapan eta Dauphine Liberéko 6.ean. Bigarrenak, Udaberriko Sari Nagusia, Eibarreko Bizikleta (3. etapan eta sailkapen nagusian), Dauphine Liberé (4. etapan) eta Espainiako 24. Mendiko Txapelketan. Parte hartu zuen Milán-San Remo, Frantziako Tourra eta Munduko Txapelketan.
1966	**FAGOR**	Lehenengo postua lortu zuen Levanteko Birako 1. etapan, Espainiako Birako 10.ean, Avilako biran 6.ean, Frantziako Tourreko 15.ean eta Espainiako 65. Txapelketan (erlojupekoan). Bigarren postua Espainiako 22. Txapelketan (Gipuzkoarekin), Andaluziako Birako 8. etapan, Espainiako Birako 13 eta 15. etapatan eta Avilako Birako 4.ean... Espainiako Mendi Txapelketa, Eibarreko Bizikletan eta Frantziako Tourrean ere parte hartu zuen.
1967	**FAGOR**	Espainiako Biran 4. postua lortu zuen. Parte hartu zuen ere Volta a Catalunya, Andaluziako Bira, Eibarreko Bizikleta eta Milan-San Remo lasterketetan, baita Frantziako Tourrean ere (sarrerako etapan 4.a egin zuen).
Represión, violencia, sufrimiento, victimas,.. antes y ahora. Es necesaria una solución.

Las soluciones vienen siempre del reconocimiento de la verdad. En este pueblo nadie podrá negar nunca que ha habido mucho sufrimiento pero tampoco se podrá negar que se ha sufrido en todas las partes implicadas en el conflicto, tanto durante el franquismo como después de la muerte del dictador. Hay muchas víctimas y también hay muchas responsabilidades que cada uno tendrá que asumir algún día en un clima más relajado que el actual y sobre todo con una actitud predispuesta a generar convivencia y reconciliación. Creo de todas formas que lo que procede es resolver este viejo conflicto pendiente de resolución que tenemos entre manos y simultáneamente, con sinceridad y con honestidad, ir reconociendo las responsabilidades habidas en las numerosas heridas abiertas en nuestro pueblo.

Dikatadorea, bakea eta indarkeria aipatu ditut aurreko lerrootan eta duela aste batzuk izandako gertaera batek eraginda eta hitz beroiek erabiliz, bertso bat jarri berri dut. Diktadoreak bost militante hil zitueneko 34. urteurrena zen, irailaren 27a. Zarautzko hilerrian Txiki-ren familia, urteoro bezala, beren mutila omendu eta Gure Aita bat errezatzera joan zen, baina, bateonbat oso adi zegoen....

Diktadorea hil zorian zen
amaitu berria uda,
azken bidaia heltzear zuen
oraingoan infernura,
bertso batean kanta dezadan
gertaeren egitura,
nola bizitzan kriminal zena
hil zen kriminal modura,
diktadorea, espainol asko
eta frankisten ardura,
bost iraultzaile, bi abertzale
hiltzearen arrengura,
gero urteak joanda, heldu da
Aresen "bake" kultura,
eta ertzainak bidali ditu
Zarautzko kanposantura,
eta frankistek odolez busti
zuten goiz mingarri hura,
Txiki-n amaren otoitz eder bat
debekatuz bukatu da.

El año 81, especialmente febrero, estuvo marcado por varios sucesos relevantes como la visita del rey español a Gernika y la expulsión de los electos abertzales al interrumpir el discurso del monarca Borbón cantando el *Eusko Gudariak* o la muerte de Joseba Arregi tras nueve días de tortura en comisaría, lo que puso muy gráficamente en evidencia una aberrante practica policial que desgraciadamente perdura pese a las denuncias de todo tipo, entre otras las de Amnistía Internacional. Un mes antes, el 2 de diciembre, ese organismo había confirmado la existencia de torturas en el Estado Español. A pesar de esas denuncias y otras posteriores, la tortura continua y es algo estructural al régimen político. ¿No es hora de poner fin a esa lacra social?

Sobre la tortura creo que poco nuevo se puede decir. Aquí todo el mundo sabe lo que pasa. Lo de las cámaras me parece una aberración. La gente no necesita que le pongan cámaras en su trabajo. Los gobiernos y la policía no debieran necesitar cámaras en las comisarías. La gente buena, la gente honrada no necesita cámaras para desarrollar su trabajo. Si se ponen es porque ya se sabe lo que ocurre. En mi vida nunca he sentido la necesidad de maltratar a nadie. El que lo haga y los que sabiendo que ocurre lo permitan que no me vengan hablando de derechos humanos ni de condenas de violencias porque les diré que son unos fariseos. En este tema además, aunque haya evidencias de sobra, me remito a los informes de Amnesty International que anualmente denuncia a todos los gobiernos españoles por cuestiones de tortura y malos tratos.

A lo largo de la legislatura no faltaron además amenazas anónimas y detenciones. El 9 de junio 1982, cuando los hernaniarras tenían ya la mente en las fiestas de San Juan, tuvo lugar una redada policial en la que fueron detenidos en Hernani el propio Alcalde, Juanjo Uria, Josetxo Etxarri, Juan Bautista Izagirre, Jokin Izeta Alberdi y Javi Jiménez. En Barcelo-

na, dentro de la misma operación policial, Agustín Apaolaza, Carlos Sanchiz e Iñaki Mendizábal, y seis días antes la policía detuvo en el pueblo a Xabier Arnaiz, Maria Jesús Etxenike, Satur Idarreta, Felix Lopez, Arantxa Rekondo, Angel Osa y a Isaac Usabiaga. Algunos recobraron la libertad días después tras pasar por la Audiencia Nacional, pero otros conocieron la cárcel y por muchos años, como de Xabier Arnaiz. ¿Tu detención fue una experiencia de las que no se olvidan?

Es una experiencia terrible y por tanto imposible de olvidar. Son más que evidentes además, las secuelas que deja una experiencia de detención prolongada. Eso ellos lo saben. Además, es uno de los motivos por los que durante décadas han sido detenidos miles de vascos y vascas, que después de tres, cinco o diez días de incomunicación (en nuestro caso agotaron hasta los diez días), en un porcentaje altísimo han tenido que ser puestas en libertad sin que recayera ni un solo cargo en su contra. Aquí me viene también a la cabeza toda esa gente (políticos, periodistas, etc.) que hablan y escriben con la insistencia que lo hacen para condenar una de las violencias existentes en nuestro pueblo y callan e incluso ocultan esta abrumadora cantidad de detenciones y sus secuelas y consecuencias. Y son los que siempre se autositúan en el lado de los buenos, en el eje del bien, en el de los demócratas, en el de los amantes de la paz. Ellos mismos se llaman buenos a sí mismos. Lo tienen fácil, ¿verdad? Tan fácil como los gobernantes israelíes que masacran Palestina y a los que a los dos días les extienden la alfombra roja para pasearse por las dependencias de los gobiernos europeos; como los responsables de los acontecimientos de Irak, donde se culminó una invasión basada en la mentira más cruel y perversa promovida por Bush, Blair y Aznar, falseando la existencia de armas de destrucción masiva y cuyas consecuencias fueron muertes, saqueos, asesinatos, torturas y desolación de todo un pueblo. Y pensar que aquí hay gente que no ha movido un dedo en contra de estas atrocidades y encima se atreven a dar lecciones de ética, de moral y de buen comportamiento. Tiene narices.

Duela bi mila urte, fariseo hark Jesusi Tenploan esan ziona datorkit gogora hemen eta munduan hainbeste jende "on" ikusita. Eta koplatxo parea jartzeko aitzakia izan da niretzat. Hortxe doazkizue, fariseoak Jesusi esandakotik hasita:

"Jauna mesedez, nire jarduna,
nire jarrera konpreni,
ni ez naiz hauek bezalakoa,
zein gizon ona naizen ni".

Nik beste mezu honekin lasaiago
gelditzen naiz:

Jesus onartzen dut betidanik
bekataria naizela,
baina ez dut nahi izan munduko
gizon "on" hauek bezela.

Hace treinta años hubo procesamiento de parlamentarios abertzales, Telesforo Monzón, Francisco Letamendia y del senador Miguel Castells. Además, el Parlamento Vasco acordó no otorgar a HB las subvenciones establecidas reglamentariamente para los grupos parlamentarios. Actuaciones represivas muy llamativas entonces, que sin embargo se han convertido en habituales por su repetición y acentuación a lo largo de estas tres décadas. Uno de los últimos episodios antidemocráticos en esta espiral represiva jurídico-policial es el intento de violentar la decisión de los hernaniarras en las urnas y tratar de destituir a nuestra alcaldesa ¿A pesar de este oscuro panorama compartes la opinión de que Euskal Herria tiene futuro?

No tengo la más mínima duda de que Euskal Herria tiene futuro. No sin dificultades ni acosos, pero saldremos adelante. Siempre hay que respetar las decisiones que democrática y mayoritariamente se tomen, pero estoy convencido que tarde o temprano acabaremos siendo un pueblo soberano y dueño de nuestro destino. En todo caso ahora lo que procede es hacer un intento serio, sincero y lo más plural posible en la resolución del conflicto político de nuestro pueblo. Y en la configuración de un movimiento estructurado en base a las fuerzas abertzales y progresistas dispuestas a luchar por la soberanía de nuestro pueblo, y es evidente que todo debe ser por vías exclusivamente políticas. Los españoles ya se han unido, ahora nos toca a nosotros. No voy a negar que el conflicto vasco es una cuestión compleja y de mucho calado. Pero después de todas las experiencias de negociación que ha vivido nuestro pueblo, de todo lo que ya se ha andado, de los compromisos que unos y otros han ido adquiriendo en el camino (Lizarra, Loiola, etc.) y sobre todo de los que se van a tener que asumir en el futuro, creo que la clave está en dos cuestiones: que haya personas de buena voluntad y que haya gente con profunda convicción democrática. Lógicamente me refiero a gente integrante de todas las partes que son claves en el conflicto y con capacidad para aportar y tomar decisiones importantes y definitivas. Si así fuera, si nos encontráramos ante gente en representación de todas las partes implicadas y que sean portadores de los valores mencionados, estoy convencido (y esto no es una tontería) que una reunión de tres horas sería suficiente para desactivar todas las violencias que hoy confluyen en el conflicto político vasco. ¿No sería poco, verdad? Y también estoy convencido que un periodo de tres meses sería suficiente para llegar a los acuerdos políticos necesarios y suficientes para apuntalar con garantías un proceso más largo que resolvería definitivamente "la cuestión vasca". Recordar que estoy hablando de personas de buena voluntad. Si es que no las hay, otro gallo cantará y todos saldremos perdiendo. El que no esté dispuesto a ello, el que no esté dispuesto a sentarse para solucionar este problema, sea de la parte que sea, que asuma su responsabilidad y las consecuencias que se deriven de ello. Aquí hay mucha gente que desea ese escenario. Aquí hay un pueblo que lo desea y que lo ansía. Los que deban mover ficha deberían ir haciéndolo ya. ■



Jose Antonio eta Ohiana Gaincerain aita-alabak, Zelaiako upeltegian
Argazkia: Hernaniko KRONIKA

Zelaia sagardotegiak 50 urteko ibilbidea du sagardotegi munduan, gurean sagardoa beti egin bada ere. Jose Antonio Gaincerainen aitak, Joakin Gaincerainek, jarri zuen sagardotegia berak 12 urte zituela. Soldadutzatik bueltan heldu zion buru belarri Jose Antoniok negozioari eta gaur arte lanean jarraitu du erronka berriei aurre egiten. Azken 20 urteotan egin dituzte berrikuntza inbertsiorik handienak, sagardo munduak izan duen bilakaeraren lekuko. Berak eta Ohiana Gaincerain alabak...[1]

Oihana Gaincerain,
heredera y futuro de sidras zelaia

Oihana Gaincerain – Elena Sierra

Oihana Gaincerain nació un 19 de abril de 1979 en el caserío Zelaia del barrio Martindegi de Hernani. Hija y nieta de sidreros, esta ingeniera técnica agrícola está al frente de una de las sidrerías más importantes de Gipuzkoa. Su objetivo: hacer sidra del siglo XXI sin alterar la tradición y con la pasión por el trabajo bien hecho que ha heredado de su familia.

1 Hernaniko KRONIKA, 2009-I-25.



Cada persona tiene algo que le marca de por vida. En mi caso fue algo que puede parecer tan insignificante como una manzana. Como les ocurrió a Adán y Eva, pero por circunstancias muy diferentes. Primero marcó mi infancia. Aún recuerdo cómo olían a sidra las castigadas manos de mi aitona, al mismo tiempo que en la ikastola cantaba la canción *Sagarra, manzana, ikatza, carbón*.... Más tarde, aprendí la importancia de la manzana de Newton y su ley de la gravedad, y después, al frente de la sidrería de mis orígenes, Zelaia. A lo largo de mi vida siempre ha estado presente la manzana.

Era una niña cuando un sábado por la mañana, jugando en la bodega, presencié como el aita se cayó de una kupela. Se encontraba a unos 5 metros de altura y el golpe fue terrible, pero no le dolió. Como todas las niñas, la admiración por su padre es tal que llegué a pensar que mi padre estaba hecho de una pasta especial. Y, en cierto modo, lo sigo pensando, pero con los años comprendí que la caída no le dolió porque estaba haciendo lo que más le gustaba: sidra, ese caldo con olor a verde oro. Desde entonces, de él lo he aprendido todo, pero sobre todo la pasión por el trabajo bien hecho. Ese afán de potenciar la calidad del producto y el buen servicio al cliente.

...sagardoak behar du lehenengotik kolore ona, sudurrean usain ona eta ahoan zapore ona.

...bidea egin dugu sagardo suabeak ateratzera, azidez bajukoak... garbi ikusi da kontsumitzaileak orokorrean azidez gutxiko sagardo suabea -baina ez motela- errazago edaten duela. Gure erronka da sagardoa ateratzea azidez gutxikoa, gustu onekoa eta gorputz pixka batekin;...

...beste gauza bat lortu beharrekoa da ama gutxikoa izatea: hoztuta eta trasiegoak eginda asko jaistea lortu da gaur egun,... Garai batean, sagardoa trasegatu (posoa kentzeko ontziz aldatu) egiten zela esatea pekatua zen, baina gaur egun lasai esan liteke sagardoa trasegatu egiten dela, erreminta natural bat da, besteak beste, ama gutxitzeko.

Zein den sagardo ona? Ez dago formula magikorik edo zehatzik. Guretzat, sagardo ona da trago bat hartu eta bigarrena eskatzen duena. Eta, noski, sagardo naturalaren osasun, higiene eta kalitate baldintzak betetzen dituena[2].

Así que cuando el aita nos hizo a mis hermanas y a mí la propuesta de seguir con el negocio familiar, no lo dudé. Fui a la universidad y posteriormente he seguido formándome, pero lo cierto es que la veteranía de mi padre y el día a día en la bodega han sido mi mejor escuela.

...Oihana, nekazaritza-ingeniari teknikoa da eta enologia praktikak eginak ditu.

Y ahora me toca a mí llevar el timón de Zelaia. Ya son tres generaciones dedicándonos a la elaboración de la sidra con un sistema tradicional mejorado en el tiempo. Todavía hay gente que se sorprende al ver a una mujer joven al frente de un negocio tan tradicionalmente masculino como es el de las sidrerías. Pero corren nuevos tiempos. Zelaia es la fusión de tradición y modernidad. Lo cierto es que no hace tantos años que sólo el primogénito heredaba los títulos y propiedades. Ahora, mi hermana pequeña Jaione y yo compartimos frente. Jaione se encarga de la comercialización del producto, dando a conocer la sidra Zelaia por todo el mundo. Y yo, como responsable de la producción, de la cata para su posterior embotellamiento y de obtener la mejor materia prima en colaboración con el agricultor y, en definitiva, de realizar un seguimiento de la entrada de la manzana que tanto ha marcado mi vida.

Egitez, kanpotik ekarritako sagarrarekin sagardo ona egin liteke, baina beti argi eduki behar dugu



Argazkia: Txus Aranburu

2 *Ikusi, usaindu, dastatu: sagardoa edaten ikas daiteke* en *GAUR8, GARA*, 2009/martxoa/13.

bertako sagarra askozaz tratu hobea hartuta etortzen dela. Gaur egun sagardo sagar klase onak daude aldatuak, sagardotarako aholkatutako 16 barietateekin; bertako sagarra astean behin bilduta etortzen da, kolpe gutxi hartuta. Kanpoko sagarrak beti bere arazoak baditu: han biltzean kamioi batera botako dute eta handik beste batera igual, hona etortzerako bi egun igual pasako ditu kamioian... beti mailatuagoa izaten da. Berez ez dira barietate txarragoak, sagar ona bada kanpoan, baina mailatze horrekin oxidatuago egoten da.

Conmigo llegaron a Zelaia las nuevas tecnologías y el afán por la innovación. Con la mejor formación y la tecnología más avanzada, me he colocado al frente de la firma Zelaia, con el objetivo de mi padre: hacer no buena sagardoa, sino la mejor. Mi objetivo es transformar la esencia de la bebida sin alterar la tradición.

Guk pasa ditugu urteak bodega ondo jartzeko ilusioarekin, eta uste dut iritsi garela upeltegiak lanerako egoki jartzera; orain azken urteetan gure burua dago sagar aldatzeko kontu horrekin.

Horrez gain, asko aurreratu da garbitasunean: sagarra garbitzea izan da inbentorik onenetakoa eta tresnerien garbitasunean ere asko irabazi da.

Eta gero tolareak: ... lehengo tolareen aldean oxidazio aldetik, azidez aldetik eta gustoz sagardo hobea ateratzen dute.

Sekula ez du gelditu behar,... ikasketekin,... praktikarekin... esperimentatzen joan behar da, geroz eta gehiago.... Etengabeko ikasketa da hau.

Duela hamabost urte... mesfidantza handiz ikusten zen enologo bat sagardotegian. Gauza arraroren bat egingo zuenaren beldurra zegoen. Garbi geratu da jarraitu beharreko bidea hori dela eta asko dugula oraindik ikasteko.

Cada mes de enero, celebramos el inicio de la temporada del txotx con la visita de un grupo de amigos para que prueben la primera sidra del año.


Sagardoaren dastatzea hiru pausotan ematen da. Lehendabizi, begiek lan egiten dute; bigarrenik, sudurrak, usaimenak; eta, azkenik, dastamenak.

Gutxien gustatzen zaizkigunak kolore iluneko sagardoak dira. Horiak egokiak dira, baina tonu oso desberdinak egon daitezke horien barruan. Eta, normalean, hori-berdexkak gutxi egindako sagardoak izaten dira, arinagoak .

Lehendabizi basoan hartu orduko usaintzen dugu sagardoa. Ondoren, behin sagardoa edan eta gero, berriz ere usaindu egiten dugu, baina bigarren aldi horretan barrutik etortzen zaigu, sudurraren barrualdetik. Sagardoak aroma asko dauzka,... Gure usaimen-atariak sagardotik sortzen diren 50 aroma desberdin bereiz ditzake.

Lehendabizi sagardo pixka bat sartu behar da ahoan eta horrek lehen inpresioa emango digu. Lehen sentsazio hori garrantzitsua da. Sagardoa irensten dugunean beste sentsazio bat sortzen da. Hortik zehaztu dezakegu sagardo horren nortasuna, noraino mantentzen duen lehendabiziko sentsazioa, noraino hiltzen den puntu hori irentsi ondoren...

Son momentos de emoción y de nerviosismo. Queremos que todo salga bien, que la gente esté a gusto. Este día, el aita suele estar radiante, feliz por recibir en casa a su gente dispuesta a probar el producto que con tanto mimo ha trabajado durante meses. Mientras saluda y da la bienvenida, la ama se pelea entre fogones y yo vuelo por las mesas con el menú, en el que como en el caso de la sidra, prima la calidad e intentamos mejorar cada año. Y cada año ocurre lo mismo, el ambiente es inmejorable, todo el mundo está contento, comentando de pie, como manda la tradición, en qué número de



Argazkia: Txus Aranburu



kupela se encuentra el caldo con color más claro, mejor aroma o sabor.

Jose Antonio eta Oihana Gaincerainek eta Xabier Kamiok [enologoak] ***oso ondo ezagutzen dute Zelaia sagardotegiko kupela bakoitza. Hau lehorragoa, hura eginagoa, beste hura mingotsagoa... ...Askotan dastatzen ditugu hirurok, astero-astero, sagardoa nola ari den egiten ikusteko, uneoro zein puntutan dagoen jakiteko. Eta analisiak egiten ditugu etengabe....***

Y cuando se van, todo son abrazos y felicitaciones, y nosotros nos quedamos con la satisfacción de que el cliente se va contento y con la ilusión de abrir nuestras puertas los cuatro meses de temporada que quedan por delante. Porque estar en Zelaia es estar en familia.

Ahora es momento de trabajar en la materia prima, es momento de mirar al manzano. Ahora soy yo quien le canturrea a mi hija Haizea de un año *Sagarra, manzana; ikatza, carbón,....* Tal vez ella sea la siguiente heredera de sidras Zelaia. ■



Alfonso Maria Zabala, apaiz komediantea

Gorka Bereziartua

1847an Ezkion jaioa, Gasteizen apaiztua, tradizionalista eta, beste edozeren gainetik, euskaltzalea. Alfonso Maria Zabala duela 90 urte, 1919an, hil zen Hernanin. Hementxe eman zituen bizitzako azken urteak. Euskal Esnaleako zuzendari izan zen, eta literaturan ere utzi zuen arrastoa, ipuingintzan eta, batez ere, antzerkigintzan.

"Benetako euskaltzalea zan". Hala irakur daiteke *Euskal Esnalean*. Hala deskribatu zuten lagunek, zendu zenean publikatutako hil-berrian. 72 urte zituen azken arnasa ematerakoan. Zabala oso gaztea zenean aldatu zen familia Ezkiotik Zegamara, hangoa baitzen ama. Baina Alfonso ez zen han luzaz geratzekoa: berehala sartu zitzaion apaiz izateko gogoa, eta Gasteizera jo zuen horretarako ikastera. Gazte bihurria zela diote berari buruz kontatu diren pasadizoek. Behin adibidez, apaiz izateko ikasten ari zen garaian, Zegamako festak ailegatu eta ezin liburu artean etsi: alde egin zuen ikastetxetik inori abisatu gabe. Tren geltokira iristean komeriak, txartela ordaintzeko sosik gabe joan baitzen. Eta hala ere festetara nahi. Zer egingo, eta kaleko txakurkume bat galtzarbean hartu, hura saldu, eta korrika leihatilara, billete bila. Etxean formalagoak izango ziren, amak etorri zen bidetik bidali baitzuen atzera.

Ez ziren abenturatxo horrekin bukatu Zabalaren bizitzan kontatzeko daudenak. Gogorragoak jasan beharko zituen gizonduta, 1872an hasi zen Gerra Karlistan. Baina guri hemen haren lan literarioa interesatzen zaigunez, ez gara su horietan sartuko. 1880ra egin behar da jauzi Zabalaren aurreneko idazlanak ikusi ahal izateko. Donostian Jose Manterolak argitaratzen zuen *Euskal-Erria* aldizkarian atera zituen plazara. Denbora batez aldizkarian sail finko bat izan zuen Zabalak, *"Neguko arratse-*

tan su ondoan kontu-kontari" izenekoa, eta umorezko ipuinak kontatzeko baliatu zuen. Hortik aurrera etengabe aritu zen euskara bultzatzeko ahaleginetan: 1881en Irunen ikusten dugu, Manterola bera, Arturo Campion eta Klaudio Otaegi lagun, euskal jaietako literatur sariketako epaimahaia osatzen. Urtebete beranduago bera saritu zuten Hondarribian, "*Ondarrabiko Ama Guadalupekoaren kondaira*" ipuinagatik. Handik bost urtera ikusi zuen argia "*Gabon gau bat*" ipuinak, saritua hau ere Donostiako lore-jokoetan.

Mende berriarekin, Hernanira.

1901ean iritsi zen Zabala Hernanira, erretore izateko. Lehenago Hondarribian, Zegaman eta Donostian aritua zen, baina gurean egin zituen urterik gehienak. "*Zenbat jaiotze, ezkontza eta eriotz idatzi ote zitun Ernani'ko elizako agiri-liburuetan, Jaungoikoak bakarrik daki. Bere eskuz idatziak daude danak, iya bere eriotzako egunа arte*" zioen *Auspoa* bildumako liburu batek Zabalaren erretore garaiaz. Hemezortzi urtek emango zioten lan egiteko, berez lanerako joera zuenari. Bestelako testuak ere idatzi zituen ordea. Hernanin osatu zituen literatur lan garrantzitsuenak Zabalak: antzerkirako prestatu zituenak.

Ez zen goi-mailako antzezlanak egiten tematu. Zabalaren antzerkia herriaren ahotik jasotakoa zen, herriaren belarriari emateko. Komedia laburrak gehienak, daukaten umore ukituarengatik bereizten dira: nonbait, apaiz eskolatik festara alde egiten zuen mutikoak umorezko testuetan aurkitu zuen bihurrikeriak egiteko txoko egokiena gizontzean.

Garaira egokitutako antzerkia.

Bizitzako azken zortzi urteetan idatzi zituen antzezlan guztiak: 1911koak dira "*Apari merke*" eta "*Periyaren zalapartak*". Bigarren hori, gaur egungo *sketch* bilduma baten tankerakoa izango zen agertoki gainean. Pieza ugariz osatua dago, antzezlanaren parte bakoitzean pertsonaia sorta bat taularatzeko prestatu zuen Zabalak, eta bukaerako eszenan elkartuko dira denen istorioak. Batzen dituen haria Donostiako Santo Tomas eguneko feria da. Han ibiliko dira Gipuzkoa osotik etorritako protagonistak batetik; eta besamotzaren plantak egiten poltsiko guztietan lapurretan ari den pikaroa, bestetik. Obra honetan ikusiko dugu aurrenekoz Zabalaren ondorengo antzezlanetan behin eta berriro aterako den estilo-marka bat: antzezlanaren hasieran egoera aurkezteko, eta bukaeran agurra emateko, bertso bana idaztea.

1912an "*Jauregi errotako astoa*" idatzi zuen. Bakarrizketa bat da, errotari batek bere astoari buruz ikusleei kontatua. Formatu txikiko lana, bere garaian Donostiako gaztedi integristarentzat prestatu zuen Zabalak, baita haien biltokian estreinatu ere.

Baina 1918an, hil baino urtebete lehenago egin zituen antzerkian gehien aipatzea merezi duten bi lanak: "*Melitonaren bi senarrak*" eta "*Urruti-izketa*".

Aurrenekoa korapilo batekin abiatzen da: Melitonak bi senar ditu. Tira, bat hilda dago... baina bizi da. Esplikatu dezagun: aurreneko senarrari ez zitzaion gustatzen emakumearen agindupean egotea, eta ahal izan zuenean, lagun batekin Ameriketara egin zuen alde. Laguna Ameriketara iritsi eta gutxira hil, eta Melitonaren lehen senarrak hariak mugitu zituen hildakoa bera zela sinestarazteko. Horrela alargundu zen emakumea, eta bigarren gizon batekin ezkondu. Baina bigarrenak ere emakumea gustuko ez, eta lehenengo senarra kalean aurkitu duenean, hasi zaio kargu hartzen; hasi zaio esaten bueltatzeko emaztearekin; hasi zaio sesio latzean. Eta eztabaida berotzen joango da, Melitonaren diruak tartean azalduko dira... eta inork espero ez duen zerbait gertatuko da. Umore handiz idatzitako obra da, baina gaurko betaurrekoekin begiratuta, nabarmentzekoena zera da: joera integristako apaiz batek hain garbi hitz egitea diruarengatik konpondutako ezkontzez, eta bikotean ezin biziaz. Kritikaren bat egitekotan, emakumea fantasma bat dela antzezlanean: berari buruz hitz egiten dute, baina Melitonaren pertsonaia ez da obra osoan agertzen.

"*Urruti-izketa*" berriz, egituran "*Periyaren zalapartak*" obraren antzekoagoa da, *sketch*en tankerako zati motzekin osatua dagoelako. Baina badu diferentzia bat: titulutik igartzen denez, telefonoa da eszena guztiak elkartzen dituena. Herritar arruntek teknologia berri horrekin harremanetan jartzean izaten dituzten zailtasunak erabili zituen Zabalak publikoaren barrea eragiteko. Baina, barrearekin batera, teknologia hori jende artera ekarri zuen. Horrek zer esan nahi duen? Zabalak ez ziola modernitateari bizkarra ematen. Dena ez zen urre eta zilar ordea garai berriekin, eta modernitate horrek zekartzan buruhauste batzuk eszenatokira igotzen asmatu zuen, garaiko publiko zabalak ulertzeko moduan egin ere.

Mende hasiera gure artean nolakoa izan zen ikusteko muestra polita dira, 90 urte beranduago, Alfonso Maria Zabalaren antzezlanak. Gainera, Interneten daude osorik irakurri nahi dituenarentzat, Armiarma.com webgunean egindako lanari esker: http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00570.htm. ■

Biharamunean

Uxue Apaolaza

Larritasun sentsazioa sortzen du kaleak tarte honetan goizaldean, taberna guztiak itxita izaten dituzten ate erabatekoez, bideokluba ere hala aspaldidanik eta txokolatina makina parea tabernak irekirik daudenean baizik erabiltzen ez direnak. Estankoa baino ez ateak zabalik, barruan ezin eta dendaria kalera erretzera aterata, kalea hustu duen etxeratze-agindu batean zentinela balitz bezala alde batera eta bestera begira.

Taberna eta taberna artean beren etxebizitzetara igo daitezen karitatez utzitako espazioa dirudi portalek inguruotan betetzen dutena, eta haietako batetik irten da Ainara Sagarzazu. Juanjo eta Ixabelen alaba, zuzenbidea ikasten duenaren itxura egiten du plan hobeagoen zain; zurbil dago, baina egunero bezala, eta gaur eguzkia bere begiak zigortzeko baizik ez dela atera iruditzen zaio eskua zerurantz luzatzeko moduagatik; berorik ere ez du ematen, baina inoiz ez ditu eguzkitako betaurrekoak ahazten parrandara doanetan, negua izanik ere; inoiz ez da jakiten non eta zein aurpegirekin harrapatuko zaituen egunsentiak. Maribelek adibidez ez luke ezagutuko jantzi izan balitu parera iritsi zaion baino lehen, ez du egin ordea agurtu duen arte. "Iepa!" bat gehiago baizik ez litzateke hala ere jarri aurretik betaurrekoen gainetik begi ertzaz ezkerretara begiratu ez balu atzean utzitako arrastoa neurtzeko bezala Maribelen begirada ere balkoira gidatuz; zerbait izan da kortinaren ertzari helduta, galtzontzilotan, Ainarak atzera begiratuko ote duen zain baita bart gaueko trofeoa.

"Beherantz zoaz?" Betaurrekoak atondu eta abiatu da kalean behera amaren lagunaren aurrean lotsatzen den nerabearen plantak eginez, Maribelekin, zeina kasu berri baten aurrean Sherlock-i jarriko litzaiokeen aurpegieraz doan, harategiraino. Ainararen aurpegierak ajeaz gain, ongi burututako mendekuaren betetasunezko irribarrea darama.
Maribelen begiradak erre balu bezala kortinaren atzetik paretarenera ezkutatu dena Iñigo da Ainararentzat, Lutxi eta Joxeren semea Maribelentzat, Itziarren mutila bientzat.

Kalean bakarka geratu denean poltsa arakatu du Ainarak mugikorra eta tabako paketea ateratzeko; hamaikak dira. Ama irten da erosketak egitera, aita ere ez da etxean, bilera edo halako zerbait zuen soziedadean; nahi gabe hartu du loak ohe arrotzean baina gutxienez behar adina berandutu zaio etxean inorekin ez topatzeko. Metxeroa erori zaio.
Harategiaren atean ikusi gabe mugimendua sumatu du makurtzean, buru pare baten ihesa, Maribel eta Maribirenak adibidez eta hasi da marmarra."Hazita dago bai, ez nuke asmatuko Ixabelen alaba zenik", "Gure artean gera dadila, baina esango nuke..." "Esan, esan..." "Su peso en oro balio du nobiak..." Giltza etxeko sarrailan sartu eta hantxe utzi du Ainarak poltsikoetako txanpon eta billete kiribilduak ateratzeko, zenbatu ditu. Giltza atzera atera eta jarraitu du kalean behera . "Nori esan behar diot nik! Sospetxak baino ez dira gainera...". Arrandegian agian izango du nori kontatua; Ainara oraintxe pasa da bere elikadura fosforoan aberats egin duen komertzioaren paretik. Ama edozein dendatan egon daiteke, behin harategia eta arrandegia pasatuta ordea, fruta-dendan da dudarik gabe; lehenago edo beranduago Maribelek hasitako ikerketarekin gurutzatuko da, "... mutila? Sinsangre bat, aita bezala". Ainarak ez du handik pasa behar Eroskira iristeko.
Eskua kamiseta azpian sartu eta saiatu da besazpietatik bereizten; azkura du izerdia dela eta, bezperako arroparekin lo egin du eta kalean hotz den arren, gau osoko beroa ematen dio kamisetak. Tabakoak usaimena anulatu ez balio deserosoago legoke. "Hara, de inkognito zoaz?" Horrelakoetan ulertzen du Ainarak jendea zergatik joaten den bizitzera hiri handietara, Nosotras-ek kantatzen duen eran herria handiegi geratzen zaie. "Kafe bat?" Ixone; Iñigo eta Iratxeren pisukidea eta koadrilako moralaren zaindaria. Militantziara mutilaren itzalpean integratua; horiek dira elkarrekin pasatzen dituzten orduak, militantzia politikoarenak eta militantzia familiarrarenak, momentuz dibertsioa bakoitzak bere aldetik bizi dute, Ixonek ezta orduan ere.
"Ez, ez, Eroskira noa denetarik erosi eta gaur gelatik irten behar ez izateko, gurasoak etxeratu aurretik egin behar dut". "Ajea?" Pipak jateari utzi gabe egiten ditu galderak Ixonek, kuriositateak baino protokoloren batek gidaturik. Gaur gutxienez bere sekretuak plazererako eremu intimo bat eskaintzen dio Ainarari; Ixoneri Iñigorekin oheratu dela oihukatzeko gogoak eztarria kilimatzen dio; "Itziarren 'eta punto' batzuen kontra argudiatuz aritu naiz bart gauez, zure pisuan hain zuzen" esan nahi dio. "Ez zara oraindik oheratu?", jarraitzen du Ixonek. "Norekin?" "Hiruretan etxeratu zirela esan zidaten". "Norekin?" "Ni Josuren [bere mutila] etxean, pelikula bat ikusten". "Itziarrekin gelditu naiz gosaltzeko, bazatoz?". Ixone Ainarari belarri hertza urratzen

dioten marmarrak sugartsu mantentzearen arduradun gorenetakoa da, bere mutila dibertitzen ari den bitartean egiten du, bera hartarako gai ez denez. Dibertitzen ez den jendea (edo bakardadeari erabilerarik topatu ez diona) oso langilea izaten da (langilea lanean, langilea etxean, langilea pankarta/kartelgintzan, bonoak saltzen, komunikatugintzan eta txoznatan, langilea koadrilan, "antolatzaile" eternalak dira, edo Ixoneren kasuan, "antolatzaile"-en aholkulari), horixe bihurtzen da gainera besteengan ikus dezaketen bertute ia bakarra "langilea behintzat bada"; Ainara alperra da eta Ixoneren aurrean dena baino are agertzen da hala; "porro bat erre eta telebista ikusteko gogoa bakarrik dut". Ixoneri pena eman dio Ainararen aktibitate gabeziak. Gero eta jende gehiago ikusten da kalean, vermouth-aren orduaren iragarle, derrepente desagertuko dira gutxira, Ainararen gurasoak bezala.

Eta supermerkatuko ateak atzean ixtearekin, isiltasuna. Ez ditu eguzkitako betaurrekoak kendu. Arrandegian topatuko da ama Maribelekin, edo bere miatzaileren batekin. Orain ohartzen da eguzkitako betaurrekoak hain berandu jartzea norainoko akatsa izan den, eta are balkoira begiratu izana. Banitatea zer den. Eguna ordenagailuan pelikulak ikusten pasatzeko gogoa du, amaitu dira interakzioak; horregatik batzuei herriak handiegi geratzen zaizkie, edozein unetan edonor agurtzeko borondatea izan behar da, aurreko elkarrizketa zure buruari barkatu aurretik ekin behar diozu hurrengoari. Gazpatxoei begira, egokia topatu nahian, "Andalúz", marmarrak hasi zaizkio burmuinean, agian Iñigo ere joan da Ixone eta Itziarrekin gosaltzera, espero du Iñigok jakingo duela tipoa mantentzen, espero du ez zaiola Itziarrekin nobio damutuaren maitemin antzezpenetan hasterik bururatuko, harrapatu egingo dute, ezingo du Ixoneren galdeketa gainditu, galdera eta galdera artean bi pipa, hiru asko jota. Tentsioa mantentzeko. Ainarak ez ditu kalkulatu bere mendeku sekretua azaleratuz gero jasan beharko dituenak, ez du melodrama batetarako indarrik; ziurrenik horregatik jarraitzen du koadrilan; zenbat "hitz egin behar dugu" pasa beharko lituzke harremanak moztuz gero? Baliteke Ixone Maribelekin topatu izana ere. Ez dute elkar ezagutzen. Edo bai, Ixone Maribelen semearen nobiaren laguna da. Urrunegi.
Jamon York-a hartzera makurtu da, "Ze, de inkognito zoaz?"; berez esaldia Josurena da, horregatik erabiltzen du Ixonek. Josu "antolatzaile" horietako bat da, nahiko dibertigarria hala ere, politika kontuetara mugatzen du "antolatzaile"-tasuna, lagunartean sukaldari lanak egiten ditu; eremu guztietan "antolatzailea" Itziar da; Ixone bien aholkulari eta miatzailea. "Ixone, Iratxe, Itziar eta Iñigo datoz bazkaritara, animatzen bazara"; inoiz ez ditu hainbeste gonbidapen izan hain epe laburrean. Iratxe Ixone eta Iñigoren pisukidea da, hor dagoela ohartzen ez garen horietakoa; gela batetik azkena irtengo balitz, argia itzaliko genioke barruan dela; horregatik ez da inondik azkena ateratzen. Elkarrizketa laburra izan da, Ainarak behingoagatik izozkailuzko pasillo honi sortzen duen hotz jasangaitza justifikatuko lukeen erabilera bat ikusi dio; ezin dira bertan elkarrizketa luzeak izan, zer hartu pentsatuta sartu behar da eta produktua bilatzeari lehenbailehen ekin. Ainarak eutsi dio pultsuari, ez da izotzezko pasillotik mugitu Josuk alde egin behar izan duen arte.

Harategitik irteten amarena baizik izan ezin duen zamarra horia ikusi du portaletik Ainarak. Iñigo, Itziar, Iratxe eta Ixonerekin dator hizketan; arrandegitik pausu txikitan baina ia lasterka irten da Maribi eskuak poltsaz gainezka, batetatik perrexila ia erorian, lehoia balitz lerdea dariola legoke kotilleoaren iturrietara jo ahal izatearekin aztoratuta. Amak gazteenak agurtu eta Maribiri kasu egiteko gelditu da. Ainarak atea itxi du bere atzean.

"Luisitok bere etxean ikusi zaitu, bueno, eskilaretan, Itziarren mutila agurtzen". Luisito. Luisito. Ainarak ez daki Luisito zein den. "Aita, gelara noa". Baina ez da itzultzen, aitari begira jarraitzen du, zerbait gehiago jakin nahi balu bezala. "Zeri egiten diozu irribarre?" Luisito! Ixoneren osaba. Ni más, ni menos. Egun bat ere ez da pasako enteratzen denerako. "Ainara, utzi barre egiteari; hainbeste aspertzen zara horrelako gauzak egin behar izateko?" Ez daki aitak zenbat. Gelara sartzen den bitartean pentsatu du ezer gertatu gabe hainbeste denbora eta gero, beharbada melodrama bat ez legokeela gaizki. Gero Iñigo Itziarrekin itzuliko da, edo bakoitza antzekoren batekin, baina denbora batez "antolatzaileak" aztoraturik ikusteko plazera biziko du. Eta kitto. Berriro hastera. Bestela nola? Ama sartu da etxean. "Kendu eguzkitako betaurrekoak nirekin hitz egiteko". Eta esaldi horrekin, hasi da pelikula... ■

Hernaniko Musika Eskolak, hogeita bost urte

Iñaki Eguren (*Hernani* Musika Eskola Publikoa)

Mende laurdena joan da 1985eko irailean Hernaniko udal musika eskolak lehen ikasturtea hasi zuenetik. Historia egiten hasita ordea, ez dago esaterik orain hogeita bost urte sortu zenik musika eskola Hernaniko Udalean. Ez da hala, XIX. mende bukaeratik, musika banda dagoenetik, alegia, zerbitzu hori eskaini izan delako; eta seguru asko lehenagotik ere izango ziren, bai txistu eskolak, baita musikako eskolak ere, parrokiako organistiatik edo. Baina urrutitxo joatea genuke haietara jotzea. Inork gehixeago jakin nahi izanez gero aurrekari haiei buruz, urtekari honetan bertan, 1999ko alean, Zipri Otxandorenak artikulu labur baina mamitsua badu argitaratua.

Gaur *Hernani* Musika Eskola Publikoa denaren historia, seguru asko, 1984an hasten da. Garai hartan, udaletxeko azkeneko pisuan, **Juan Jose Iruretagoiena**ren zuzendaritzapean entsaiatzen zuen Severino Vázquez lehendakari zuen udal musika bandak, ordurako Manuel Sagarna jada bandaren batuta hartua bazen ere. Eta udaletxeko azkeneko pisu hortantxe, bandak entsaiatzen zuen areto hartan alegia, gauzatzen ziren orduan "**akademia**" zeritzan hartako musika eskolak. Ordura arte, bandako musikoak beraiek (Manuel Sagarna, José Luis Fernández, Juan Jose Iruretagoiena,...) eta txistulariak (Antonio Insausti ***Txobito*** batik bat) izan ohi ziren musika irakasleak, gainera Manuel Yabenek organoa eta akordeoia jotzen ere erakusten zuelarik. Akademia hura ordea behera zihoan nonbait. Txobitok 1983-1984 ikasturtean 42 txistu ikasle bazituen ere, 1984-1985ean jada ez zuen akademiako irakasle gisa figuratzen; Manuel Yabenek arazoak zituen akordeoi eta solfeo eskolak mantentzeko; eta Iruretagoiena bera ere bandatik erretiratzekotan zen.



Aldi berean, ordea, Gipuzkoa osoan herrietako kontserbatorioak berrindartzeko mugimendu bat nabaritzen hasia zen. 1984an bertan, Foru Aldundiak laguntzak eman zituen herri ezberdinetan soinu tresnak eros zitezen, honela eskola hauek bultzatzen joateko, eta 1980ko hamarkada hartan sortu ziren gure lurralde honetan gaur hain ugari diren musika eskola publiko gehienak. Bestalde, Hernanin bertan, gero Kantuz musika eskola izango zenaren hazia ernetua zen, Imanol Urbieta, Fernando Ederra eta beste zenbaiten egitasmoa Udalak bere eginik herriko ikastoletan musika hezkuntza zerbitzu berezia antolatua zuelarik, eta gainera gitarra eskolak ere ematen zituzten, arrakasta handiz.

Ez da kasualitatea beraz, 1984 hartako udal agintariek, Ricardo Mendiola alkate eta **Koro Etxeberria** zinegotzia kultura batzordearen buru zituztela, musika akademia hura berritu beharra zegoela erabaki izana. Xede honekin, 1984-1985 ikasturterako piano irakaslea kontratatu zuten, **Montserrat Auzmendi**, musika eskola berriko lehen irakaslea izango zena, eta solfeo eskolei heutsi zitzaien trantsizioko urte hartan, Juan Jose Iruretagoiena eta Maribi Arrutiren eskutik; eta Txobitok, bere kabuz, lau txistu ikasle mantendu zituen (ni ere lau horien artean nintzenez, ondo oroitzen dut eskola haiek "klandestino" samarrak zirela, komunean eman behar izaten baitzituen beste lekurik ez eta; eta inoiz bere etxean ere bai). Aldi berean Donostiako Udal Kontserbatorio Nagusiko arduradun Jose Ignazio Ansorenarekin ere harremanetan jarri ziren akademia berrituari legezko eta taxuzko egitura emateko asmotan, eta txistuaz gainera beste euskal soinu tresnen irakaskuntza ere ezartzeko aukera aztertzen hasi, albokak, dultzainak, txistuak eta txalaparta erosiz **Juan Mari Beltran**en bitartez (berau izango zen tresna hauen irakaslea hurrengo ikasturtean). Eta honela atondu zuten, 1985-1986 ikasturterako musika eskola berria.

MUSIKATEGIA

1985-1986 ikasturte hartan, aurretik lanean ari zen Montserrat Auzmendiz gainera, beste bost irakasle kontratatu ziren. Aipatu dugun bezala, Juan Mari Beltranek txistu eskolak emango zituen, eta lehen aldiz, alboka, dultzaina eta txalapartakoak ere bai. Solfeo irakasleak **Arantza Alberdi** eta **Erramun Oiartzabal** izan ziren, lehenak Montse Auzmendirekin batean piano eskolak eta bigarrenak saxofoikoak ere bere gain hartu zituztelarik. Txistua eta saxofoiarekin, nolabait ordura arte udalaren musika zerbitzu historikoa izan zenarekin uztartzen zen eskola berritua, udal txistulariak eta musika banda baitziren, tradizioz, musika jardueraren funtsa herrian; baina ildo berean, herriko organista zen Manuel Yabenek akordeoiarekin urtetan egindako lana ere ezin zen ahaztu, eskusoinuak bere tokia eta pisua hartua zuelarik hernaniarren belarritan, eta honela hasi zen **Joxan Goikoetxea**, udal eskolaren aldi berriko hernaniar







Eskolako abesbatza.

bakarra ere, akordeoi eskolak ematen. Eta eskola xume antzean hasi bazen ere, egitasmoa askoz zabalagoa zelako, edota eskolaren ofizialtasuna lortze aldera harizko soinu tresna sinfonikoren bat sartzea derrigorrezkoa izango zela aurrikusita, biolina ikasteko aukera eskaintzea ere erabaki zen, **Eduardo Lassalette** izan zelarik lehen ikasturte hartan (eta hurrengo zazpitan) lau harizko soinu tresnaren arduraduna. Eta noski, pianoak osatzen eta sustatzen zuen eskaintza berritua.

Langile plantilla berri honekin gauzatuko zen eskolaren lehenengo pedagogia plana, eta ofizialtasuna lortzeko tramiteak hasiko. Musika akademiak aurreko ikasturtean 94 ikasle inguru izan bazituen, 1985-1986 ikasturteko Musikategi berriak bikoiztu baino gehiago egin zuen ikaslegoa, 222 ikasletara iritsiz, eta hori izan zen, zalantza handirik gabe, handik 25 urtera Hernaniko musika eskola izango zenarentzako oinarri eta zutaberik sendoena.

Bigarren ikasturtean etorri zen ofizialtasuna, eta Hernaniko musika eskolak Kontserbatorio edo, garai haietan esaten zitzaion eran, "Musikategi" izendapena lortu zuen oinarrizko mailako musika irakaskuntzarako. Aurrerantzean, eta hurrengo bost urtetan gehienbat, hazkundea ia etengabea izan zen: piano eskolak gehitzearekin Arantza Alberdik solfeoak utzi eta **Garbiñe Orbegozo** hasi zen eskola hauek ematen 1986ko udazkenean, **Joseba Tapia**rekin lehenengo trikitixa eskolak ezarri zirelarik. Hurrengo ikasturteetan abesbatza ("korala"), perkusioa, klarinetea eta tronpeta gehitu zitzaizkion eskaintza pedagogikoari hurrenez hurren, eta lehenengo ikasleen musika taldeak sortzen hasi ziren, 1990eko bueltan 360 ikasletik gora zituelarik Hernaniko Musikategiak.

Eta hazkunde honekin, musika heziketaren ezinbesteko alorra den jarduera ere garatzen joan zen: jendaurrean, plazan, kalean edo aretoetan, ikasle haiek beraien musika herriari eskaintzekoa alegia. Jada lehen ikasturte amaieran, 1986ko ekainaren 26an, eta San Juan festen egitarauan, ikasleen lehen kontzertua eskaini zuten **Sandiusterri aretoa**n. Areto horixe, Biteri kultur etxekoarekin eta, geroago, Milagrosa kaperarekin batean, Hernaniko musikoen ehundaka saioren testigu izana da gaur arte. Ez daukagu hemen aipatzerik zenbat emanaldi egin dituzten musika eskolako ikasle eta irakasleek herrian urte luze hauetan, baina lehenengo kontzertua izan zenez, laurogeita seiko sanjoanetako kontzertu hura nola osatu zen oroitzea egin dezakegu besterik ez bada ere: Txalaparta taldeak eman zion hasiera kontzertuari, eta jarraian Javi Morcillo albokarekin, Kepa Osses eta Juan Alvarez dultzainarekin, Garikoitz Zeberio saxoan, Lierni Guerrero, Maider Ikaran, Ana Mari Perez, Eli Lujanbio, Alazne Mutiloa eta Arantxa Astigarraga pianoan, eta akordeoia joaz Mirari Iradi, Maider Tolosa eta Marta Igarriz jardunda, eskolako lehenengo taldeak ere agertu ziren, txistu eta akordeoi taldeak alegia, bi talde hauek oinarri hartuta, ikasle guztiek abestuz itxi zutelarik kontzertua.

Hurrengo ikasturteetan berriz, urrats handia emango zen musika jardueraren alor honetan ere. Bigarren ikasturtea besterik ez zen, 1987ko apirilaren 9tik 11ra Juan Mari Beltranek **I. Txalaparta Festa** antolatu zuenean; jaialdi honek, geroztik, ez du hutsik egin, hitzaldi, erakusketa, mahai-inguru, disko eta liburu, kontzertu, dantzaldi eta abarrez horniturik, beti txalapartaren inguruan, garai hartan galtzear zegoen soinu tresna honek gaur hartu duen indarraren motore nagusietako bat izan delarik, 23 txalaparta festatako



Eskolako trikiti ariak, saxojoleak (eta perkusionista batzuk) sanjoanetan.

larunbatean Gudarien enparantzan, Tilosetan, Elizatxo ikastolan edo Atsegindegin egin izan den jaialdi nagusia Euskal Herri osoko txalapartari guztien erreferentzia funtsezkoena bilakatu baita. Hirugarren ikasturtean berriz, ikasturte amaieran ikasleen kontzertuak, irakasleenak eta txalaparta festa bat eginik "I. Aste Musikala" deitu zitzaion zikloa antolatu zen, jada itxura hartzen ari zen musika eskaintza baten seinale, eta hori gutxi balitz, inauterietan, sanjoanetan, erregeen kabalgatan eta San Inazio eguneko Santa Barbarako erromerian musikategiko txistu, alboka, dultzaina, txalaparta, trikitixa eta akordeoi ikasleak ibili ziren jotzen. Geroztik ez da izan Hernanin musika eskolarik gabeko sanjoanik, eta herriko festa gehien-gehienetan izan dira bertako ikasleak jotzen: Florida-Etxeberriko Pentekostesetan, Ereñotzuko Sanantoniotan, Portuko San Juan Txikitan, Lizeagako Madalenetan, Karabeleko eta Akarregiko festetan,...

Hirugarren ikasturtean berriz, 1988-1989ko hartan, eskolaren etengabeko jarduna izan diren beste bi zutarri ezarri ziren. Batetik, ikasturtean barrena igandero-igandero eskolako alboka, akordeoi, dultzaina, trikitixa eta txistu ikasleak kaskoko kaleetara ordu pare batez jotzera ateratzen hasi ziren; hasiera hartan jai arratsaldeetan egiten zuten beraien kalebuelta eta saiotxoa, gerora eguerdietan egiten hasi bazen ere, eta gaur da eguna urriaren azkeneko igandean hasi eta sanjoanak bitarte, Hernaniko kaleak alaitzen jaiero eskolako ikasleak dabiltzana. Bestetik, 1988ko urriaren 19an, Donostiako Kontserbatorioko Metal Boskoteak kontzertu aipagarria eskaini zuen Udaletxeko Areto Nagusian; kontzertu hau aipagarria dela diot, gehienbat musikategiak antolatutako lehenengoa izan zelako, eta harekin hasi zen **"Hileroko Musika Emanaldi" zikloa**, urtez urte kalerik egin gabe, zortzi-bederatzi kontzertu eman dituena. Kontzertu ziklo honen helburu nagusia, hasieratik eta gaur arte izan duena, eskolako ikasleei zuzeneko musika gerturatu eta entzuteko parada eskaintzea izan da, beraien musika formazioan funtsezkotzat jo izan den osagarri gisa; baina era berean, emanaldi edo kontzertu hauek herri guztiari ireki izan zaizkio lehenengo hartatik bertatik, eta urteen poderioz herriko musika eskaintza zabalena bilakatu da. 1988ko ziklo hartatik hasi eta 2009ko abendu arte 150 kontzertutik gora eskaini dira, piano, akordeoi, abesbatza, ganberako musika, folk talde eta tankerako formazio txikienak nagusiki (aurrekontuek eta herriko azpiegiturek baldintzatu izan dutena beti), eta denak aipatzerik ez badugu ere, besteak beste, bertatik pasa dira: Carmen Ayastui, Iruñako Gaiteroak, Angel Huidobro, Kepa Junkera, Joseba Tapia, Hodeiertz abesbatza, Jean-Marc Fabiano eta Gerard Occello, Aritzak taldea, Josetxo Silguero, Olatz Zugasti eta Pello Ramirez, Amaia Zubiria eta Pascal Gaigne, Javier Arrillaga, Txanbela, Dixiekleta Jazz Band, Gasteizko "Jesus Guridi" eta Pasaiko "Illunbe" musika eskolatako orkestrak, Donostiako Udal Txistulari Taldea, Bogdan Precz, Joxan Goikoetxea, Gozategi, Euskal Kamerata, Habas Verdes, Balen López de Munain, Janne Rättyä, Etzakit, Mayalde (Eusebio eta Pilar), Iker Goenaga, Mixel Etxekopar eta Lurralde Zilarra, Judith Montero, Ainhoa Mercero, Kanta Cantemus, Marta Zuñiga eta Anna Alemany, Lituus, Zaldibobo, Eduardo Baranzano, Landarbaso abesbatza, Angel Unzu, Imuntzo eta Beloki, San Ignazio Eskolania, Sergei Voitenko, Iñaki Salvador, Ainara Ortega, Karlos Gimenez, Lauhaizeta akordeoi orkestra, Ansa ahizpak, Lizarrako Gaiteroak, Coro y Orquesta de San Ignacio de Moxos, Pirineos Jazz Orchestra, Javier Girotto, Os Miñotos, Jesus Mari Garmendia eta Javi Area, eta abar luze bat.

"Hernani" Musika Eskola Publikoa



Hastapenako ikasleak.

90eko hamarkadan, musikategi, kontserbatorio, musika eskola eta zirena zirelakoek, erronka handi bati egin behar izan zioten aurre. Hezkuntza sistema osoa eraldatzera zetorren **HSAOL legea**k (erdarazko "LOGSE" izenez ezagunagoa) 1992an ume txiki bat erditu zuen, Eusko Jaurlaritzaren Musika Eskolak Sortzeko 289/1992 Dekretua izena eman ziotena. Dekretu honek hankaz gora jarri zuen musika hezkuntzaren sistema osoa gure lurraldean, eta gaur egun "Hernani" Musika Eskola Publikoak duen egitura eta antolakuntza ezarri zituen. 92ko hura zetorrenari aurre egiteko prestakuntzako urtea izan zen, baina 1993-1994 ikasturtean, gure eskolaren 11.ean alegia, bete-betean ezarri zen sistema berria. Lehenik eta behin, musika heziketa sisteman bi formula edo bide ezberdin ezartzen zituen: irakaskuntza arautua, Kontserbatorioetan emango zena, eta irakaskuntza ez-arautua, Musika Eskolatan ematekoa. Ordura arteko "musikategi" eta gainerakoak aukeratu beharrean suertatu ziren, zein alorretatik jo nahi zuten, eta Hernanikoak, lurraldeko gehientsuenek bezalaxe, bigarrena hautatu zuen, Kontserbatorio izateari utziz.

Musika Eskolak, Kontserbatorioekin alderatuz, batik bat musika zaletu edo afizionatuei egongo ziren zuzenduak, bide profesionala hautatu zezaketen ikasleei ere lagunduko bazien ere, hauek Kontserbatorioetara bideratuko zirelarik. Hala, lehen Goi Mailako musika ikasketak Donostia, Bilbo, Gasteiz nahiz Iruñan gauzatu bazitezkeen ere, ordutik aurrera Donostiako "Musikene" eta Iruñako Kontserbatorioa izango ziren (eta dira) inguruko zentro bakarrak, eta oinarrizko nahiz erdi mailako irakaskuntzari dagokionez, Donostia, Errenteria eta Irunek soilik eutsi zioten Kontserbatorio izaerari Hernani inguruan. Musika Eskola berrietan solfeoa (orain "lengoaia musikala" izena hartuko zuena) musika hezkuntzaren funtsa izatetik osagarri bat baino ez izatera pasa zen, eta taldeko irakaskuntzak berriz, ordura arte izan ez zuen nagusitasuna hartu zuen. Ikasle bakoitzari eskain ziezaiokeen irakas denbora murriztu egin zen, baina aldi berean eskola bakoitzak bere eskaintza moldatu ahal izateko malgutasun handia irabazi zen. Eta honek, ez Hernanin bakarrik, musika eskoletako jarduera urte gutxitan ikaragarri haztea ekarri zuen.


"Hernani" Musika Eskola Publikoa hartu zuen gureak izentzat 1996an, eta ordurako pedagogia plana ongi definitzen hasia zen (urte hartan bertan erredaktatu zen eskola arautzen duen Antolamendu eta Funtzionamendu Araudia). 1997.ean eskolako lehen zuzendaritza eratu zen, **Ana Martínez** zuzendari zuela, eta **Maribel Insausti** idazkari; eta 1998.ean Eskola Kontseilua jarri zen martxan, ikasle, guraso, irakasle eta udal ordezkariek osatua. 1993tik 2004 bitarte, esan bezala, beste hazkunde garrantzitsua eman zen, nola eskaintzan, hala ikaslegoan ere. Hala, 1993an sortu zen lau-zazpi urte bitarteko haurrentzako musika tailerra, hastapenekoa deitzen duguna, zortzi urtetik gorakoek musika ikasketak zuzenean soinu-tresnarekin hasten dituztelarik. Taldeko jarduera ere areagotzen joan da, eskolako ikasle guztiek taldeko irakaskuntza jaso behar baitute, eta hala sortu zuen **Roberto Pacheco**k 1998an lehen ikasleen banda, jada martxan ziren abesbatza, akordeoi orkestra, txistu, dultzaina, alboka, trikitixa eta txalaparta taldeak, soka taldea eta saxofoi taldea berrindartuz zihoazelarik. 2001ean biolontxeloa eta gitarra gehitu zitzaizkion eskolaren eskaintzari, eta eskolak hiru probintziatako beste musika eskola publikoekin bat egin zuen **Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartea**n. 2003an berriz, teklatu taldeak sortu ziren.

Hazkunde honek, ordea, bazituen arazoak ere, handiena seguru asko toki premia zelarik. Hala, musikategiak udaletxeko azkeneko solairuan egin

behar izan zituen urte luzeak, horietako asko behin-behineko aglomeratuzko paretekin nolabait antolatutako "gela" batzuetan, baina Musika Eskola bihurtzeko prozesu berriak jada derrigorrezkoa egin zuen aspaldiko eskaera zena gauzatzea, eta honela, 1997.ean inauguratu zen **Atzieta kaleko 4**.ean, lehen DYA izandakoan, eskolak gaur duen eraikina. Eraikin hau ordea, hasiera-hasieratik antzeman zen txikitxoa izango zela eguneroko lanerako, eta 2001etik zenbait eskola emateko Milagrosa kapera ere erabili beharrean izan zen, areto hura darabilten taldeekin batera (Kantuz abesbatza, txistulariak eta Musika Banda). Eta gaur egun ere, espazioarena da noski, musika eskolaren arazo nagusia.



Arazoak arazo, 2009-2010 ikasturte honekin hogeita bosgarrenari ekin diogu, eta esan liteke, mende laurdena igarota, Hernaniko musika eskolaren eskaintza ongi sustraitua eta oinarritua dagoela, bere gabezia eta guzti, hainbat alorretan lan bikaina gauzatzen ari dena. Ikasturte berri honetan 465 ikasle ditu matrikulatuak, hasierako 222 haiek ere bikoiztu baino gehiago egin direlarik hortaz, eta eskaintza zabaltzeko zailtasunak direla eta 2004ko hartatik hazkundea gelditua dagoela badirudi ere, 947 matrikula konta ditzakegu jada, irakasgai ezberdinetan.



"Hernani" Musika Eskola Publikoan, gaur egun, 14 soinu tresna ezberdin jotzen ikas daiteke: **alboka, akordeoia, biolina, biolontxeloa, dultzaina, gitarra, klarinetea, pianoa, perkusioa, saxofoia, trikitixa, tronpeta, txalaparta eta txistua**. 4-7 urte bitarteko haurrek musikaren hastapeneko tailerrak egiten dituzte, eta 8 urtetik gorako ikasleek lengoaia musikala ikasteko aukera dute soinu-tresnarekin batera. Inoiz helduentzako solfeo talde bereziak egin izan badira ere, gaur gaurkoz ez da lortu talde horiek eskaintzan finkatzerik. Eta azkenik, musika talde ezberdinak daude eskaintza pedagogikoan: **abesbatza**, txistu, dultzaina eta alboka taldeak, trikitilarienak, akordeoi taldeak, teklatu taldeak, saxofoikoak, ikasleen banda, soka taldea, eta **Joera Ezberdinak** deitzen zaion irakasgai gisa, bestelako talde hetereogeneoagoak osatzeko aukera.



Txalaparta eta albokako ikasleak.

Eskaintza pedagogikoaz gainera, honen osagarri gisa sortu zen musika eskaintza ere badago, baina halako indarra hartu du eskaintza honek, jada herrirako zerbitzu bilakatu da, herritik kanpora ere gero eta maizago sentitzen delarik. Beste herrietako musika eskolekin alderatuz, beharbada bi puntutan ezberdintzen eta nabarmentzen da Hernanikoa: lehena, Euskal Herriko herri musikako soinu tresnen inguruan eratu duen eskaintzan, berau izan baitzen txalaparta, alboka edo dultzaina lehen aldiz eskola publiko batean ikasteko aukera eman zuena, 1985eko hartan, eta beronek jarraitzen du izaten bost soinu tresna horiek (alboka, dultzaina, trikitixa, txalaparta eta txistua) eskaintzen dituen eskola publiko bakarra, Euskal Herrian eta, beraz, mundu osoan. Eta beste puntu nabarmena, ikasleen jendaurreko jarduerarena da. Gero eta gehiago gainerako eskolek ere jarduera hauek bultzatzen badituzte ere, Hernanikoan sortu zenetik egin da ahalegin berezia honetan, eta gutxi izango dira, baita hiri handietan ere, urtean barrena Hernaniko musika eskolak adina aktuazio gauzatzen dituztenak.

1986ko lehen ikasle kontzertu hartatik hasi eta, urtez urte, ugaritzen joan diren saioekin, 2008-2009 ikasturtean, ikasle eta irakasleek jendaurrean egindako **175 saio** kontatzera iritsi ginen. Honek esan nahi du, egun batean saio bat baino gehiago kontzentratuko ez balira (asteburuetan batik bat), urtean barrena ia bi egunetik behin gure eskolako ikasleren bat jende aurrean jotzen aritua izango zela. Saio horietako 118 (%68) Hernanin gauzatu ziren, eta Hernanitik kanpora, Donostian 30 saio, Andoainen 4, Errenteria, Oiartzun eta Madrilen bina, eta saio bana Alegia, Arrasate, Durango, Elgoibar, Goizueta, Igeldo, Itziar, Mungia, Olite, San Adrian, Tolosa, Usurbil, Zaldibar eta Zaldibian, hala nola Castelfidardon (Italia) eta Xixonen (Asturies). Kontuan izatekoa da saio horietako asko ez direla musika eskolak berak antolatuak izaten, denera 75 direlarik zuzenean edo beste erakunderen batekin elkarlanean musika eskolak antolatutakoak. Ez da gutxi, ez baita ahaztu behar hori ez dela eskolaren egiteko nagusia. Baina bistakoa da beste 100 saio horiek kanpoko erakundeek eskatutako **lankidetzak** izan badira, musika eskolak herriari eta herritik kanpora eskaintzen duen zerbitzua ere ez dela makala. Hala, Hernaniko beste elkarte eta erakundeen artean, 2008-2009ko hortan musika eskolara laguntza eske jo zutenen artean aipa ditzakegu zenbait: Tolare Sagardo Kofradia, Berriak, Chillida-Leku, Gabiltza, Ereñotzuko Jai Batzordea, Akelarrea, Gazte Asanblada, Kaxko Auzo elkartea, Hernaniko Udala, Axeri dantza, Ttarla Dantza taldea, Kriskitina Dantza taldea, San Juan Konpartsa, Martindegiko Jai Batzordea, Portuko Jai Batzordea, Senideak edo Xalaparta elkartea, besteak beste.

Jendaurreko saio horien artean aipagarriak dira, batetik, urtero-urtero egiten direnak, batzuk hogei urtean baino gehiago. Iganderoko kalebueltak dira horietako batzuk; San Joanetako dianak, erraldoiak, akelarrea, Ttarlaren dantza saioa, txupinazoko kalejira, dultzaineroen topaketa eta Larrain-dantza, edo ekainaren 27ko axeri-dantza mistoa ere ezin ahantzi; berdin inauterietan astelenitako diana eta axeri dantza, edo sardinaren ehorzketa; Santa Zezilia eguneko ikasle kontzertua; ekainean gauzatzen diren ikasturte amaierako kontzertuak; otsaileko hastapenekoen entzunaldiak, edota maiatz-ekaineko akordeoi jole eta pianistenak; Donostia Hiria pianoa lehiaketa eta Elgoibarko Instrumentu Taldeena; Olentzero ezberdinak, musika eskolak ateratzen duena, abenduaren 23ko Antiguoko olentzeroa edo 24ko Hernanikoa nagusiki; erregeen kabalgata; Arrasateko akordeoi lehiaketa; Dantzari Festa; Eguberritako abestien jaialdia; Zaldibiako Ardiki Eguna; Portuko txupinazoa eta diana; Hernaniko Trikitilari Txapelketa; Donostiako Euskal Jaietako Trikitilari Jaialdia; Zarauzko Akordeoi Kultur Astea;... eta batek daki zenbat gehiago.



Akordeiojole gazteak eta "biolinak" Chillida-Lekun.





Eskolako txistiularian 2005eko Dantzari Festan.



Eskolako pianojolea.

Eta amaitzeko, ezin utzi aipamen berezia egin gabe musika eskolatik bertatik antolatu izan diren jaialdiei. Txalaparta Festaz hitz egin dugu gorago, baina jada ospatuak diren 23 txalaparta festen eragina ez da izan soilik txalapartaren munduan izan duena. Horien arrakastak animatuta, eta euren eredua jarraituz, **Albokarien Topaketak** antolatu dituzte Juan Mari Beltran eta musika eskolako alboka taldeak, 16 urtez. 1994an, ekainaren 27an sanjoanetako baserritarren egunа ospatzen zela eta, berau antolatzen aritzen ziren Elur Txori elkartekoek euskal herri musika osatu behar zutela pentsatu zuten, eta Juan Mari Beltrani otu zitzaion aukera ona izan zitekeela Euskal Herriko alboka eskola guztiak (orduan Hernani, Gasteiz eta Bilbon bakarrik zeuden halakoak) Hernanin bildu eta, alboka joaz, elkarren ezagutzera egiteko. Aurrerantzean, urtero egun horretan gauzatu zen topaketa hori, harik eta albokarien lana hazten zihoan neurrian egun hura euren lanak agertzeko txikitxo egin zitzaien arte: sanjoanak ez ziren garai egokiena albokaren inguruan kontzertuak, erakusketak, hitzaldiak, tailerrak, eta bestelakoak antolatzeko, eta honela, 1999.ean, iraileko azkeneko asteburura eraman zen Hernaniko 6. Albokarien Topaketa.

Txistulari Jaialdia geroxeagokoa dugu. Iñaki Eguren eta txistu taldeak ere ikusten genuen nonbait, txistuaren inguruan txalaparta eta albokarekin egiten zenaren antzeko zerbait egiteko premia. Soinu tresna hau ez zegoen aurreko biak bezain egoera prekarioan, baina Hernanik txistuaren inguruan izandako tradizio bizia kontuan izanda, elkargune nagusia ez izanda ere, txistuaren mundurako beste motore garrantzitsu bat izan zitekeela otu zitzaien. Eta honela jaio zen 2005ean **Hernaniko I. Txistulari Jaialdia**, Patxi Apezetxeak zuzentzen duen "Goizetik" txistulari taldea eta Euskal Herriko Txistulari Elkartearekin lankidetzan. Lehen urte hartan, eta oinarri izan behar zuela pentsatuz, gure oinarrietara begiratu genuen hain zuzen ere: Antonio Insausti Txobitori eskaini zitzaion jaialdia eta, bereziki, honen bizkarrezur edo muin bihurtu den Txistulari Gazteen Hernaniko Txapelketa (gaur gaurkoz, Euskal Herrian jarraikortasunez egiten den txistularien txapelketa bakarra).

Pianoarekin horrelako zerbait egitea askoz zailagoa zen. Txistu, alboka eta txalapartarena baino izugarri mundu zabalagoa da pianoarena batetik, eta bestetik tresnak berak zailago egiten du pianisten arteko topaketak gauzatzea. Baina Arantza Alberdi, beste eskola batzuetako zenbait irakasle bezala, konturatua zegoen piano joleek behar zutela lehia baino gehiago elkarren ezagutza bultzatuko zuen topagunerен bat, eta behar zutela jende aurrean euren lana azaltzeko gune zabalagoren bat. Arrasaten akordeoiaren inguruan egiten zen antzeko zerbait, eta musika eskola ezberdinetako sei irakasle elkartuta, tartean Arantza bera, **Andoaingo Piano Jaialdia** antolatu zuten estraineko 2006an, Andoaingo Bastero Kulturgunea baitzen horretarako azpiegitura nahikoa zuen leku egokiena. Jaialdi hori, urte pare batean, izan den arrakastarik handienetakoa bihurtu zen: 2009ko edizioan, 921 piano jolek parte hartzeraino.

BAIETZ BESTE HOGEITA BOST!

Honela bada, hogeita bost urte horietan, *"Hernani"* Musika Eskola Publikoa herrian ongi sustraitu eta sendotasuna hartzeaz gainera, zenbait alorretan Euskal Herri mailan erreferentzia garrantzitsu izatea ere lortu da. Baina beste hogeita bost eskatzeko ere, kontuan izatekoa da orain arteko bidean hutsuneak ere izan direla, eta aurrera begira erronka ugari dauzkagula begien bistan.


Eskolaren gaur eguneko pedagogia planari erreparatuta, ezarrita dauzkan zenbait helburu esan liteke sobera lortuak daudela, eta aurrerantzean horietan egin beharreko lana ongi bideratua dago hortaz: ikaslegoaren musika ezagutzak bultzatzea, inguruaren musika eskaerei erantzutea, irakaskuntza praktikoa bakarka nahiz taldeka eskaintzea, ikaslegoaren parte hartzea sustatzea, musika estilo ezberdinak lantzea, ikasketa erritmo ezberdinak ezagutzea, herriko musika tradizioak bildu eta zabaltzea, edota beste herrietako musika eskolekin lankidetzan jardutea. Baina badira oraindik bereziki landu beharreko helburuak ere. Esaterako, adin guztietarako irakaskuntza eskaintzea da horietako bat, eta oraindik orain, helduentzako taxuzko musika irakaskuntza antolatzear daukagu. Beste erronka bat, eskolaren beraren markoa gainditzen duena, maila profesionala lor dezaketen ikasleei bidea erraztekoa da, asko badira ere bide hori hartu izan duten ikasleak, zaletuen mailan lan egiteko ahalegin berezia egin den gisara, ez baita nahi eran lortu alor profesionalera bideratutakoei merezi duten orientaziorik eta jarraipenik egiterik.

Horiek eta bidean ezartzen joango diren beste zenbait helbururi erantzuten joan ahal izateko, bi koska nagusi aurrikusten ditugu, jada, oso epe laburrera. Bata, herri mailan konpondu beharrekoa, espazioen arazoa da. Musika eskolak apustu handia egin beharra dauka horretan, herriko beste elkarte eta erakundeekin batean, arazoa ez baita soilik ikasgelen eskas eta desegokiarena (une honetan ikasleek ez dute non entsaiatu, etxean ez bada), Hernanin ez baitago oraindik itxurazko aretorik kontzertuak eta musika emanaldiak txukun gauzatu ahal izateko, eta daudenen gabeziek (Sandiusterri, Biteri eta Milagrosa batik bat) erabat baldintzatzen eta mugatzen dute hor egin daitekeen lana. Espazio horien sakabanaketa ere arazo garrantzitsua da, lanerako ahalmenak ere horrelaxe sakabanatzen baitira. Musika eskola eta herriko musika jardueran dabiltzan beste elkarteak (abesbatzak, banda, txistulariak,...) elkartzen hasteko garaiek ere iritsi beharko dute noizbait.

Bestetik, "goitik" edo datorren koska daukagu. Musikaren hezkuntza sistema arautzen duen dekretuak hamazazpi urte egin ditu, eta badira batzuk zenbait aldaketa egin behar zaizkiola eskatzen ari garela, besteak beste, Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartetik. Eta badirudi aurki baino lehen izango dugula dekretu berriren bat. Oraindik ez dakigu ordea nora eraman gaitzakeen aldaketa horrek. Nolanahi ere, musika eskolen antolakuntza eta funtzionamendua ziurrenik asko alda dezake, eta hori, arrisku larri samar bat izan litekeen bezalaxe, izan liteke eskola hobetzeko jauzi garrantzitsu bat. Horren alde apostu egin behar, eta ez da apustu makala izango, hasteko azken hamar urteotan ezartzen joan garen mugak haustea eskatuko baitu. Baina nik baietz egingo nuke, Hernanik aurre egingo diola beste hogeita bosti, gutxienez aurreko hogeita bostei egin dien indar eta gogoz. ■

Vision artística de Hernani

Torre Onddi



El pasado 2 de abril de 2009 fallecía el arquitecto Luis Peña Ganchegui (Oñati, 1926 - Donostia, 2009), *"uno de los máximos referentes de la arquitectura vasca..."*.

... Y, entre las numerosas obras de su legado en Hernani contamos con la ***Torre Onddi*** (1994), en el Polígono Lastaola, la torre de prueba de ascensores de la empresa ORONA S. Coop. Ltd[1]. Esta obra, mereció el reconocimiento y menciones varias del COAVN (Colegio Oficial de Arquitectos Vasco Navarro). ■

1 También proyectó 48 viviendas VPO en Gabriel Celaya plaza, 2 (1995).

Agur Angel,

eskerrik asko!

Angel Azkue Orayen falleció el pasado 20 de agosto de 2009. ¡Sirvan estas líneas[1] de sencillo homenaje y recuerdo a un asiduo colaborador de esta publicación y de otras iniciativas municipales!



"Hil berria dugu Angel Azkue Oraien hernaniarra. Donostian hil da 62 urterekin. Albiste tristea, benetan.

...

Arkitektura teknikoa ikasi zuen Bartzelonan. Gizatasun handiko pertsona zen Angel, gure herriaren historia ondo baino hobeto ezagutzen zuena...

Artista ezaguna nazioarte mailan, pintore autodidakta zen, sentsibilitate handikoa, teknika finekoa eta sormen izugarrikoa. Hainbat erakusketa egin zituen Donostian, Bartzelonan, Hernanin (Xalaparta Elkartean eta Biteri Kultur Etxean), Bilbon, Londresen, Argentinako Mar de Platan, Donibane Lohizunen, Ibizan, etab. Etxe askotan daude haren lanak zintzilik. Biteri Kultur Etxean ere bada mihise edo lientzo bat haren sinadura daramana.

Karmelo Labaka Eskolaren kanpo aldean dagoen murala berea da, Eskolaren 50. urteurrena (1948-1998) ospatzeko egin zuena. Hernani 1994 urtekariaren azala ere berak egin zuen. 1982an Xalaparta Elkartean antolatu zen Probintzia Mailako Lehen Pintura Lehiaketa irabazi zuen; eta Epaimahaiaren aipamen berezia jaso zuen, lehen saria konpartituz, Lezoko Elias Salaberria lehiaketa ospetsuan.

... Angel... laguntzeko beti prest egoten zen. Pintura eta eskultura lehiaketa askotako epaimahaikide izan zen, bai Xalapartak antolatzen zituen probintzia mailako lehiaketetan eta baita urtero Urumea ikastolak haurrentzat antolatzen dituen pintura lehiaketetan ere.

Aktiboki hartu zuen parte Hernaniko Turismo Plana-ri buruzko bileretan, 2003-04 urteetan...

Lerro hauek omenaldi txiki bat izatea nahi [ge]*nuke, hernaniarren artean leku bat eduki beharko lukeen pertsona honi egin nahi* [ge]*niokeen omenaldi xumea...".*

Eskerrik asko, Angel! ■

---

1 Texto extraído de las cartas remitidas a *HERNANIKO KRONIKA* y a la crónica local de *EL DIARIO VASCO* el 4 de septiembre de 2009, por Mikel Ruiz.

cronica 2008ko kronika

Mikel Zapiain

Urtarrila / Enero

► La Farmacia Correa cubrirá las urgencias nocturnas del año.
► Paleta ikastaroak emakumeentzat (ekainera arte).
► Olatz Altuna, Mañel Aizpurua eta Maitane Danborenak Igeritako 25. Nazioarteko Sari Nagusian, Ordizian.
► Eskulanak, tailerrak eta irteerak Gazte Txokoan.
► El Consistorio gestionará el mercado de segunda mano mensual.
► Buruntzaldeak okindegietan euskara sustatzeko kanpaina abian jartzen du.
► Se crea el coro *Goiz Eguzki* en el Hogar del Jubilado.
► Semaforoa Tellerigainen.
► Los disminuidos físicos de Hernani crean una asociación: *KOXKA*.

Urtarrila 2 enero

- Elvi Sabeliztunaren emanaldia Biteri Kultur Etxean.
- Lur Korta ipuin kontalaria Udal liburutegian.
- Urte Berriko bingo berezia Zaharren Egoitzan.
- Malabar tailerrak Portu auzoan.

Urtarrila 4 enero

- Eskulanak eta merendola Portun.

Urtarrila 5 enero

- Errege Magoak.
- Kontzentrazioa Zinkoenean (LAB).
- Hernaniko KRONIKA Pelota Txapelketako finalak Tilosetan.

Urtarrila 6 enero

- *Winhyren zaldia* euskarazko filma haurreentzat Biterin.
- Erregenetako krosa Zurriolan: Rosi Talaverak, Eider Aldabek (juniorra) eta Mikel Von Wichmanek (jubenila) 3garren, lehenengo eta 4garren postuak lortzen dituzte.

Urtarrila 7 - 10 enero

- Ekologismoaren inguruko erakusketa Biterin (EGUZKI).

Urtarrila 9 enero

- Herri batzarra Biterin (Ezker Abertzalea).

Urtarrila 10 enero

- *Literatura eta emakumeak* ikastaroa martxan (Berdintasun Saila).

Urtarrila 11 enero

- Xabier Lareki aske.

Urtarrila 12 enero

- Kalez kale kantari.
- Bertso afaria Amets Arzallus eta Jexux Mari Irazurekin, Martindegi auzoan.

Urtarrila 12 - 13 enero

- Iraupen eski eta eski alpinoko ikastaroa (Mendiriz Mendi).
- Atletismo. Pista estaliko Euskadiko Txapelketa: Maitane Iruretagoiena, Enara Agirrezabala, Eider Aldabe eta Mikel Von Wichmanek urrezko dominak lortzen dituzte.

Urtarrila 13 enero

- Gaztetxoentzako irtenaldia (Mendiriz Mendi).
- Ur ludoteka kiroldegiko igerilekuan.
- Ezohiko eta ohiko bilera Elur Txorin.
- Javier Vizcaíno kazetariak txotx denboraldia irekitzen du.
- Marian Beitialarrangoitia, alcaldesa de Hernani, acusada de enaltecimiento del terrorismo.

Urtarrila 14 enero

- *Emakumeen identitatea eta jabetzea* ikastaroa martxan (Berdintasun Saila).

Urtarrila 15 enero

- Dantza garaikideko ikastaroa martxan, Zilegi Eskolak antolatuta, Biterin.
- Memoria lantzeko tailerrar Goiz Eguzkin.
- Haizeak kalteak eragiten ditu herriko bazterretan.

Urtarrila 15 - 29 enero

- Nagore Lozanoren argazki eta Sahatsa Jauregiren oleo erakusketak Biterin.

Urtarrila 15 -31 enero

- Matrikulazio epea irekita Helduen Hezkuntza Zentroan.

Urtarrila 16 enero

- *Gure erotismoa: sedukzioa, zentzumenak eta espazio pertsonala* ikastaroa martxan (Berdintasun Saila).

Urtarrila 17 enero

- *Turlach* taldea Kixkal tabernan.
- Desaparece el hernaniarra Alberto Zapirain Sanchiz.

Urtarrila 18 enero

- Aritz Sound System Leoka tabernan.

Urtarrila 19 enero

- *Blogak eta komunikazio digitala* ikastaroa martxan (Berdintasun Saila).
- Saharara janaria bidaltzeko kanpaina martxan: "sei tona elkartasun" Hernanitik Saharara.
- Herritar talde baten prentsaurrekoa Alkateari babesa emateko.
- Tabernetako 14. Bertsolari Txapelketa Garinen: Urko Kasado txapeldun.

Urtarrila 20 enero

- EHNE nekazal sindikatuak 5. Nazio Batzarra Sandiusterrin.

Urtarrila 21 enero

- Comienzan las reuniones sobre la temporada de Txotx en Biteri Kultur Etxea, también en Ereñotzu.

Urtarrila 23 enero

- Reunión abierta para presentar el presupuesto municipal en Biteri.
- Marian Beitialarrangoitia deklaratzera deitu izana salatzen duen mozioa onartzen du plenoak. Ordu laurdenez argiak itzaltzeko deia alkateari elkartasuna adierazteko (EAE-ANV).

Urtarrila 24 enero

- Marian Beitialarrangoitia, Hernaniko alkatea, Audientzia Nazionalera deklaratzera: libre. Alkatearen aldeko mobilizazioak.

- Ezindu fisikoen bilera Biteri Kultur Etxean.
- *The Spring Onions* jazz hirukotea Biterin.

Urtarrila 25 enero

- Gazte Asanbladako batzarra Gaztetxean.
- Hitzaldia Karboneran.

Urtarrila 26 enero

- Kaldereroak.
- Bigarren eskuko azoka Atsegindegin.
- Atletismoa: Maitane Iruretagoiena Espainiako Txapelketan.
- Aritz Otaegi Gipuzkoako Trinkete finalean, Iruran.

Urtarrila 26 - 27 enero

- Iraupen eski eta eski alpinoa Cauteretsen (Mendiriz Mendi).

Urtarrila 27 enero

- Bilera Osinagako auzoan (Osiñagako auzo elkartea).
- Ur ludoteka kiroldegian.
- Martxoaren 9ko hauteskundeetarako EAE-ANVko listeen aurkezpena Biterin.
- Iñude eta Artzainen konpartsa (Urumea ikastola).
- Inauteri Kontzertua Musika Bandarekin udaletxeko arkupeetan.

Urtarrila 28 enero

- Bilera arrantzaleekin Txantxangorri elkartean.
- La Fiscalía de la Audiencia Nacional recurre el archivo de la causa contra la alcaldesa de Hernani.

Urtarrila 29 enero

- Ipuin ordua Pello Añorgarekin Udal liburutegian.

Urtarrila 30 enero

- Bideo emanaldia Biterin Askapenaren 20. urteurrenean.

Urtarrila 30 - 31 enero

- EIBI - Enpresen Ingurumenerako Baimen Integratua: Zicuñagako Papelerako teknikariak udaletxean herritarren zalantzak argitzen.

Otsaila / Febrero

► Autobus-txartela martxan.
► Alkateari babesa adierazten diote Hernaniko hamazazpi elkartek.
► Urbieta kaleko parkean ezkia botatzen dute.
► El Consistorio presenta el Inventario de Recursos Naturales realizado por Aranzadi.
► Zaharren Egoitzako obrak martxan.
► La empresa Hexion cerrará su planta de Hernani.

Otsaila 1 febrero

- Barrikotea Karobi elkartean.

Otsaila 1 - 5 febrero

- Inauteriak. *Txatarra* txaranga omendua. Aritz Arrizabalaga Urreisti kartelaren egilea.

Otsaila 2 febrero

- Bazkaria Kontrakantzan (Gazte Asanblada).
- Amaia/Aimar-en omenez *Ikustezina Ikusten Ikasten* emanaldia Sandiusterrin.
- *Nazka* taldea eta Djak Karboneran.

Otsaila 3 febrero

- Fiesta anual de los quintos del 53.

Otsaila 4 febrero

- Santa Ageda erronda herrian barrena (Ohitura Zaharrak) eta Ereñotzun.
- Goiz Eguzkiko korua Portun eta Karabelen.

Otsaila 6 febrero

- Tabernarien bilera Biterin.

Otsaila 6 / 8 febrero

- Memoria lantzeko mintegia (Ana Rosa Fernández) Goiz Eguzkin.

Otsaila 7 febrero

- *Conversaciones con mi jardinero* filma Biterin (Zine Klub).
- Olio bilketa Urbieta kalean.

Otsaila 7 - 21 febrero

- Andoni Unanueren pintura eta margo erakusketa Biterin.

Otsaila 8 febrero

- Angel Pikabea aske.

Otsaila 9 febrero

- Kalez Kale Kantari.
- Bidezko merkataritza Plaza Berrian.
- Hernani Arraun Elkarteko batelak Orion.

Otsaila 9 - 10 febrero

- Eider Aldabe Espainiako Pista estaliko Txapelketan, Donostian.

Otsaila 10 febrero

- Salida de Mendiriz Mendi al pantano de Urkulu.
- Parkea gaztetxoentzat Atsegindegin: Formula 1ean ibiltzeko aukera.
- Jornada de puertas abiertas en Zubipe (C.D. Hernani).
- Ohiko batzarra Santa Barbara eta Txalaparta elkartetan.

Otsaila 11 febrero

- Soin heziketako irakasleen greba.

Otsaila 12 febrero

- Charla sobre testamento y herencia en Goiz Eguzki (Ana Casco).
- Anorexia eta bulimiari buruzko hitzaldia Inmaculada ikastetxean.
- Garikoitz Pascual eta Eneko Pascual atxilotuak Baionan.

Otsaila 14 febrero

- Greba orokorra Ezker Abertzaleak deituta.

Otsaila 16 febrero

- Perkusio soinuak herrian barrena.
- Literatura eskola Joxemari Iturralderekin, AEK-ko egoitzan.
- Encapuchados queman un autobús, atacan la Casa del Pueblo,...

Otsaila 16 - 17 febrero

- Zuhaitz eguna. Anttonio Aramburu, udal landazain erretiratu berria, omendua.

Otsaila 17 febrero

- 45. Adarraga Memoriala

Otsaila 19 febrero

- Argentinako diasporari buruzko hitzaldia (Zilegi Eskola).
- *Situación de la mujer en la India* hitzaldia Biterin (Calcuta Ondoan).

Otsaila 19 - 20 febrero

- *Utopia*-ren inguruko saioa (Damian Pedrosa) Zilegi Eskolan.

Otsaila 20 febrero - Martxoa 11 marzo

- Curso de socorrismo y primeros auxilios en Inmaculada ikastetxea (DYA Gipuzkoa).

Otsaila 20 febrero

- *Euskaldunon Egunkaria*-ren alde kontzentrazioa Gudarien plazan.
- Ainara Ortegaren jazz kontzertua Biterin (*Hernani* Musika Eskola Publikoa).

Otsaila 21 febrero

- Urteko batzarra Gure Etxolan.
- *Turlach* taldea Kixkal tabernan.
- Herri batzarra Biterin (Ezker Abertzalea).
- AHT-ren inguruko bideoak herriko tabernetan.
- Olio bilketa.
- *Irina Palm* filma Biterin (Zine Klub).

Otsaila 21 / 28 febrero

- *Hiri debekatua* (Zilegi Eskola).

Otsaila 22 febrero

- Incendio en la empresa Irurena, en Zikuñaga.
- Sex-drog informazio puntua Gazte Txokoan.

Otsaila 23 febrero

- Irteera Luz Ardidenera eskiatzera (Gazte Asanblada).
- Olitera eguna pasatzera (Goiz Eguzki).
- *Nahas Mahas* bigarren eskuko azoka Atsegindegin.
- 2. Sagar Lasterra.

Otsaila 24 febrero

- Tranbia desargetu zela 50 urte. Hainbat ekitaldi garaiko tranbia gogoratzeko.
- Ohiko batzarra Peña Otaño elkartean.
- Ur ludoteka kiroldegian.
- Trialsina. Gipuzkoako Txapelketa Fagollaga.
- Plater tiroa Santa Barbaran (Txantxangorri).

Otsaila 26 febrero

- Lur Korta ipuin kontalaria liburutegian.

Otsaila 27 febrero

- Asamblea General anual del Hogar del Jubilado.
- *Emakumeen borroka abortu eskubidearen alde* hitzaldia Biterin (Berdintasun Kontseilua).
- Bilera Iturritxo auzo elkartean.

Otsaila 28 febrero

- Olio bilketa.
- *¿Cipayos? Policía vasca o brazo armado del PNV* liburuaren aurkezpena Biterin (Natza).
- *Red Road* pelikula Biterin (Zine Klub).
- Hernaniar bat labanaz zauritua.

Otsaila 28 febrero – Martxoa 2 marzo

- Holiday zirkoa Landaren.

Martxo / Marzo

► *Kexen kaxa*, euskararen inguruko kexak eta zoriontzeak bideratzeko zerbitzua martxan (Dobera).

► La empresa Couth homenajeada en la 25 Bienal de máquina herramienta.

► *Morau eta Agotak* taldeak *Hamalau kalamidaderi esker* disko berria plazaratzen du.

► Mehatxatutako emakumeentzat eskolta izateko aukera izan dezaten diru partida bat eskatzen du EAJk.

► Udalak abortatzeko eskubidearen aldeko mozioa onartzen du.

► Alain García y Alazne Egiazabal participan en el Campeonato estatal de Waterpolo.

► Etorkinek ahotsa ahal izateko *Kaixo* aldizkaria argitaratzen da.

► 3.000 izokin gazteak Urumea ibaian.

► Atletismoa: Maitane Iruretagoiena, Mikel Von Wichmann eta Enara Agirrezabala Espainiako Txapelketan.

► J.A. Torresen argazki dendak *Q* ziurtagiria lortzen duen lehenengo Hernaniko denda.

► Espainiako Gobernuko delegaritzak Pana parkeari izena aldatzeko agintzen du.

► Marisol Yaben argazkilariaren lanak ikusgai www.euskonews.com web orrian.

► Centenario de la muerte de Pedro Viteri y Arana.

► Un retoño del gingko de Goiz Eguzki en Atarrabiyo parkea.

► Eguzki Perfumeriak betirako ixten ditu bere ateak.

Martxoa 1 marzo

- Merkealdi bukaerako azoka Atsegindegin.
- Ongi etorria Xabier Lareki eta Angel Pikabeari.
- Tolosako Laskorain ikastolako eta *Hernani* Musika Eskola Publikoko abesbatzen kontzertua Milagrosan.

Martxoa 1 – 2 marzo

- Hiru Errege Mahaiara irteera (Mendiriz Mendi).

Martxoa 2 marzo

- Zikuñako Ama elkartea echa a rodar.
- Patxin eta Potxin pailazoak Atsegindegin.
- 3. Sagardo Festa Chillida Lekun.
- Ohiko bilera Karobi elkartean.
- Bola tiraldia Ereñotzun.

Martxoa 3 marzo

- Autoestima eta psikologiari buruzko hitzaldia Elkano kaleko Emakume Zentroan.

Martxoa 4 marzo

- *Gronholm Metodoa* antzezlana (Txalo produkzioak) Biterin.

Martxoa 5 marzo

- *Sommer jaunaren istorioa* antzezlana Biterin.

Martxoa 6 marzo

- *Sexo gratis!* antzezlana Biterin.
- Bullying-ari buruzko hitzaldia (Joxe Amiana) Urumea ikastolan.
- *Salbuespen egoerari salatu* eta abstentzioa eskatzeko mobilizazioak.

Martxoa 7 marzo

- Aritz Sound System Leoka tabernan.
- *Generoa eta rolak* tailerra Gazte Txokoan.

Martxoa 8 marzo

- Emakumeen Nazioarteko Eguna.
- Patxin eta Potxin pailazoak Atsegindegi plazan.
- Behemendiko azoka eta Bidezko Merkataritza Plaza Berrian.
- Kalez kale kantari.
- Kontzentrazioa Isaias Carrascoren hilketa gaitzesteko Plazan.
- Trinketea: Mikel Noble eta Aritz Otaegi Gipuzkoako txapeldun.

Martxoa 9 marzo

- 15.339 hernaniar daude botoa ematera deituta.
- Auza Gaztelura irteera (Mendiriz Mendi).
- Ludoteca acuática en el Polideportivo.
- Jolas ez sexistak Gazte Txokoan.
- Txistulari bandaren kontzertua Milagrosan.

Martxoa 10 marzo

- Araitz Zubimendi aske.

Martxoa 11 marzo

- Hitzaldia institutuan: *Tratu txarrak*

bikoteetan eta etorkinen arteko berezitasunak.
- *Inmigrazioan eta generoan adituak* hitzaldia Biterin (María Antonia Caro, AMHER).
- Dependentzia Legeari buruzko hitzaldia Goiz Eguzkin (Inma Lopetegi eta Antton Aizkorreta).
- Oarso kaleko lokal batek su hartzen du.

Martxoa 12 marzo
- Homenaje al directivo Julián Moreiro en el amistoso de fútbol C.D. Hernani - Eibar, en Zubipe.
- BERRIAK elkartearen ohiko bilera Biterin.

Martxoa 12 - 13 marzo
- Kristaldun mosaikoen tailerra Gazte Txokoan.

Martxoa 13 marzo
- Olio bilketa ferian.
- Egungo nerabeei buruzko hitzaldia Institutuan (Elene Herran).

Martxoa 14 marzo
- Basauriko jabetze eskola bisitatzera eta *Monólogos de la vagina* antzezlana ikustera irteera (Berditasun Kontseilua).
- 7. Jardunaldi kulturala Hernaniko Institutuan.
- Pasaian, urteak direla, izandako sarraskiaren inguruko hitzaldia Karboneran.
- Xabi Bixintxo eta Jesus Rubio garaile Garin tabernako futbolin txapelketan.

Martxoa 15 marzo
- Navarretera irteera (Goiz Eguzki).
- Arantzazura joateko autobusa antolatzen du San Joan parrokiak.
- *Txitxarro eta inurria* haurrentzako antzerki obra Biterin (Markeliñe).
- Angel Pikabeari ongi etorria Ereñotzun.
- Gazte diskojaia Gazte Txokoan.

Martxoa 15 - 16 marzo
- Bertso Eskolako gazteak Zumaiako Askizu auzoan asteburupasa.

Martxoa 16 marzo
- Domingo de Ramos.
- Izotzetan patinatzera (Gazte Txokoa).
- Bola. Binakako Txapelketako tiraldia Benta Berrin.
- TOLARE Kofradiaren 13. Kapitulua.
- Musika Bandaren kontzertua udaletxeko arkupeetan.

Martxoa 17 marzo
- Elkarte Penitentzia elizkizunak San Jose Langile Parrokian.

Martxoa 18 marzo
- *Turlach* taldea Kixkal tabernan.
- Gazte zinema saioa Gazte txokoan.

Martxoa 21 marzo
- Vía Crucis a Santa Bárbara.

Martxoa 23 marzo
- 77. Aberri Eguna.
- Plater tiroa Santa Barbaran Trap Amerikar modalidadean (Txantxangorri).
- Arrantza denboraldia hasten da.

Martxoa 23 - 29 marzo
- Viaje a París organizado por el Hogar del Jubilado.

Martxoa 25 marzo
- Landare urak hartzen du.
- Incendio en Villa Politena de Etxeberri auzoa.

Martxoa 26 marzo
- Udalak ematen dituen diru-laguntzen inguruko bilerak hasi dira.
- Lupe Lekuona ipuin kontalaria Udal liburutegian.

Martxoa 27 marzo
- Olio bilketa ferian.

Martxoa 29 marzo
- *Nahas Mahas* bigarren eskuko azoka Atsegindegi plazan.
- Clown y debate sobre los efectos de la globalización en la mujer (Garaipen elkartea).
- Hernaniko batela Getariako uretan.

Martxoa 29 - 30 marzo
- Campeonato autonómico juvenil de rugby en Landare.

Martxoa 30 marzo
- Kale Antzerkia: *Visa vis*.
- Erga-Trinitatera irteera (Mendiriz Mendi).
- Igande musikatuen lehenengo saioa Tilosetan.
- Eskuz Binakako Txapelketa: Oier Mendizabalek finala jokatzen du. Oier eta Aimar Olaizola txapeldun.

Martxoa 31 marzo - Apirila 11 abril
- Herriko bost ikastetxetan matrikula egiteko aukera.

Martxoa 31 marzo
- Udalak harrera egiten dio Oier Mendizabal pilotariari.

Apirila / Abril

- ► Igeriketa: Olatz Altuna eta Mañel Aizpurua Estatuko Txapelketan, Palma de Mallorcan.
- ► Nagore Legarretaren argazki erakusketa Ondarruko Basati Pitzaken.
- ► Obrak direla eta Hernaniko irteera itxita Lasarten, N1ean.
- ► Posibilidad de solicitar la tarjeta sanitaria electrónica en el KZgunea.
- ► Udalekuetan izen emateko aukera.
- ► Dobera Euskara elkartearen 1. Komiki lehiaketa.
- ► Mandoegin parke eolikoa jartzeko proiektua udaletxean.
- ► Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiak Elias Querejeta omentzen du.
- ► Luis Mari Zerain campeón de Euskadi de tiro al plato, modalidad mini foso.
- ► Abizenak euskalduntzeko kanpaina abian (Buruntzaldea).

Apirila 1 abril
- Alejandra Torrado eta Marta Ayalak lortzen dute Chillida Fundazioaren Beka.

Apirila 2 abril
- Kirol medikuntza eta txirrindulari buruzko hitzaldia Biterin (Manu Zubillaga, Zikuñako Ama).
- Bilera irekia Biterin (Kooperazio taldea).

Apirila 3 abril
- Olioa eta etxeko hondakin arriskutsuen bilketa ferian.

Apirila 4 abril
- *The Mckensey's Clan Band* taldearen emanaldia.
- Urteko batzarra (Dobera elkartea).
- Auzitegi Nazionalak Hernaniko alkatearen aurkako auzia zabaltzen du berriro.
- Taller de serigrafía en el Gazte Txoko.

Apirila 5 abril
- *Babel mundua* umeentzako antzerki obra Biterin.
- Infantilen batela Errenterian eta Trintxerpen.
- Erasoa eta lapurreta Hernaniko etxe batean.
- DJ RocKaiek Goiz Argi tabernan.

Apirila 5 – 6 abril
- Extremadurako 16. Jardunaldiak.

Apirila 6 abril
- 5. Hizkuntza Eskubideen Eguna.
- Ur ludoteka kiroldegian.
- Pasacalles con la Escuela de Música *La quintana* de Xixon.
- Igande musikatuak: Aritz Sound System eta Katta Tilosetan.

Apirila 7 – 16 abril
- *Hodeiak*, lainoen inguruko erakusketa Biterin.

Apirila 8 abril
- Felix Lopez *Neron*, LABeko sindikalista historikoa hil da.

Apirila 10 abril
- Euskarazko hamar film labur *Film Laburren 5. Zirkuitua*-ren barruan Biterin.
- Erabilitako olioa eta hondakin arriskutsuen bilketa ferian.
- *El don del ser* hitzaldia Biterin (Marijo Trueba).
- *Turlach* taldea Kixkal tabernan.

Apirila 11 abril
- *Izeia* folk taldearen kontzertua Sandiusterin.
- Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia Hernanitik.

Apirila 11 – 13 abril
- 5. Txistulari Jardunaldiak. Txistularien topaketa. Hernaniko Txistulari gazteen 4. Txapelketa Milagrosan.

Apirila 12 abril
- Haurrentzako puzgarriak eta tailerrak Atsegindegin.
- Herrian barrena paseatzeko deialdia (Goiz Eguzki).
- Kalez kale kantari.
- Etxean konposta egiteari buruzko informazioa zabaltzen du *Ongarri* taldeak Plaza Berrian.
- Bidezko merkataritza Plaza Berrian.
- Juan Mari Olano eta Araitz Zubimendiri ongi etorria Tilosetan.
- *Rock in Tilos*, rock jaialdia Tilosetan (Gazte Asanblada).

Apirila 13 abril
- 7. Argazki Rallya.
- Kiroldegiak ekitaldiz beteta ospatzen du 25. urteurrena.
- Tercer puesto para Hernani en el Campeonato provincial alevín de Judo.

Apirila 15 abril
- *Sexualitatea zahartzaroan* hitzaldia Goiz Eguzkin.
- Gazte zinema Gazte Txokoan.

Apirila 16 abril
- Itoitzi buruzko *Hustu arte* dokumentala Karboneran.

Apirila 17 abril
- *Seme-alabak modu positiboan hezteko familiaren parte hartzea* hitzaldia Institutuan (Juan Mari Maganto).

Apirila 19 abril
- 54ko kinto festa.
- Los grupos de *Hernani* Musika Eskola Publikoa *Hernasax* y *Leoka* (primeros) y *Saxoka* (terceros) premiados en el Concurso de Elgoibar.
- Felix Lopez *Neron* zenari agurra Leoka labaderoan.
- DJ Rockaiet, Bodegan.

Apirila 19 – 26 abril
- 13. Dantzari Festa. Euskal jantzien erakusketa Biterin.

Apirila 20 abril
- Irubelakaskoara irteera (Mendiriz Mendi).
- Hernaniko Motolagunak taldearen irteera.
- Omenaldia Zapa, Portu eta Luis Mariri.
- Jai gastronomikoa Plaza Berrian (AMHER).
- Hildako lagunen aldeko meza (Txatarra koadrila).
- Concurso local de pesca de trucha (Txantxangorri).
- Igande musikatuak: *Rude Kanka Sound* Tilosetan.
- *Malo* taldearen kontzertua Goiz Argin.

Apirila 21 – 25 abril
- Curso de informática en el Hogar del Jubilado.

Apirilia 21 – 27 abril
- Abiadura Haundiko Trenaren aurkako erakusketa Biterin.

Apirila 21 abril – Maiatza 24 mayo
- *Saski-naski* azoka Udal liburutegian.

Apirila 22 abril
- BERRIAK elkartearen bilera Ave Marian.

Apirila 23 abril
- ELKAR megadenda inauguratzen dute Kale Nagusian.

Apirila 24 abril
- *Show-Stakovich* musika, poemak eta dantza ikuskizuna Chillida Lekun.
- *Alpimanbo* mendi espediozoko proiekzioa Karboneran.
- Herri Urratseko arropa salgai Errioguardan.

Apirila 25 abril
- Iñaki Dieguez Hirukotea jazz taldearen kontzertua Sandiusterrin.
- JOCC-Zikuñako Amak bilera egiten du.

Apirila 26 abril
- AHT Abiadura Handiko Trenaren aurkako eguna.
- *Nahas-Mahas* bigarren eskuko azoka Atsegindegin.
- Waterpoloa: Hernani Gipuzkoako txapeldun Irunen.
- 1952. urtean jaiotakoek bazkaria egiten dute.
- Kontzertua Getariako Bandarekin.
- Play-back jaialdia Gazte Txokoan.

Apirila 27 abril
- Artikutzara gazte irteera (Mendiriz Mendi).
- Udal Kiroldegiko Ur ludoteka kiroldegiko igerilekuan.
- 1962. urtean jaiotakoak bazkaltzera.
- Hernani debuta en el Campeonato Interpueblos de Pelota, en Zarautz.
- Akordeoi kontzertua Milagrosan (Hauspoz elkartea).
- Igandeko Sargoria: *Daddy Jeff* Dja Tilosetan.

Apirila 28 abril
- Lan Osasunerako Munduko Eguna.
- Herri Batzarra Biterin (Ezker Abertzalea).

Apirila 29 abril
- Parisera bidaiako bideoa Goiz Eguzkin.
- Rai Bueno ipuin kontalaria Biterin.

Apirila 30 abril
- *Goiz Eguzki* koruaren emanaldia Goiz Eguzkin.
- Gazte Asanbladaren batzarra Kontrakantxan.

Maiatza / Mayo

